# GOIENA TELEBISTA BERRITUA



# Bertakoa eta sasoikoa

**Halakoa da Goiena telebista eta berrituta dator, unean unekoak, bertatik bertara, herritarrekin, kaletik, kontatzeko gertu.**

JAGOBA DOMINGO

# Herritar guztiekin batera egindakoa

## Martxoan hainbat saio estreinatu ditu Goienak eta herritarrekin batera egin nahi ditu, haiei ahotsa emanda

Goiena telebistak ahalegin berezia egin du 2014an programazioa berritzeko, eta hainbat saio estreinatu ditu martxoan.

Goienaren lantaldeak, gaur egun, sei telebista saio ekoizten ditu astero: *Berriak, Debagoiena zuzenean, Harmailatik, Tertulia, Amaia DJ* eta *Harira*. Horretaz gain, lehendik ekoiztutako beste saio bi programatzen dihardu: *Kantari* eta *Pedalka*. Eta gainera, tokiko euskarazko beste telebista batzuekin batera *Gurean gaur* Euskal Herri mailako albistegia ekoizten du.

### HERRITARREKIN BATERA

Hiru helburu garbi dauzka Goiena telebista berrituak: eskualdean gertatzen den guztiaren berri, bertatik bertara, azkar ematea; herritarrei, elkarteei, taldeei, erakundeei... ahotsa ematea; eta, herritarrekin batera telebista egitea.

Helburu horiekin osatu du programazioa. Albisteak kaletik bertatik emanda, besteak beste. *Debagoiena zuzenean* magazin berritua da horren erakusle, erreportajeak herritarrekin eta kaletik bertatik egiten dira-eta.

### KOLABORATZAILEAK

Gainera, hainbat kolaboratzaile eta sail ditu: astelehenetan, Imanol Gallegoren asteburuko kultura kronika; martitzenetan, *Auzorik auzo*, Mireia Bikuñarekin; eguaztenetan, *Erakusleiho*, denda, jatetxe, enpresen... gainekoa, Amaia Txintxurretarekin eta sare sozialei begiratua, Amaia Pavon kolaboratzailearekin (MUko IKOko irakaslea); eguenetan, kultura hitzorduen berri; eta egubakoitzetan, eskualdeko sukaldari-zaleekin egindako erreportajea Julen Iriondorekin eta modaren gaineko tartea, Sergio Hernando, Amaia Albes, Uxue Erañarekin eta Jaizki Bakaikoarekin.



**BERRIAK** Goiena telebistaren albistegia. Egunero emititzen da, eguerdian hasita, astelehenetik barikura bitartean, eta asteburuan asteko albisteen errepasoa egiten da. Monika Belastegik aurkeztuta.

**Ordua:** 14:30, 16:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:00. **Eguna:** Egunero.






**DEBAGOIENA ZUZENEAN** Debagoieneko herritarren kontuak, bertatik bertara, kaletik emanak. Asteburuko erreportajeak, auzoetakoak, sukaldariekin egindakoak... Txomin Madinak aurkeztuta.

**Ordua:** 20:00, 21:00, 22:30, 00:20 eta 16:00 (errepikapena). **Eguna:** Egunero.




# Euskal Herriko euskarazko tokiko telebisten sarea

## Goienak beste telebista batzuekin batera dihardu elkarlanean

Goiena telebistak euskarazko beste telebista batzuekin jarduten du elkarlanean: saioak trukatu eta programazioa osatzeko; elkarrekin saioak ekoizteko eta edukiak —informazioa, albisteak, kontaktuak— konpartitzeko.

Euskarazko beste telebista lokal batzuekin —Goierri, 28. Kanala (Tolosaldea), Oizmendi (Busturialdea eta Lea Artibai), Erlo (Urola Kosta), Xaloa (Baztan)—, Hamaikarekin eta ETBrekin dihardu elkarlanean Goiena telebistak. Euskarazko tokian tokiko telebistak Tokiko elkartean batzen dira eta saioak elkartrukatzen dituzte, sare bitartez, programazioa osatzeko. Gauza bera Hamaika telebistarekin.

### SAIOAK TRUKATU

Esaterako, Hamaikatik, honako hauek: *Atik Zra* gaurkotasunezko solasaldia eta *Sagarrondotik*; Goierri telebistatik: *Ikusi Irratia*, eta *Onein* eta *Tripa -zorri* sukaldaritzakoak; Oizmendi telebistatik, *Klaketa* eta *Ikusmira*; eta, Xaloatik *Ur eta lur*. *Gurean gaur* albistegia ere denon artean egiten dute.

Bestetik, ETBrekin Tokikom elkarguneak adostu nahi du elkarlanerako markoa, baina Goiena telebistak aspalditik dihardu elkarlanean ETBrekin: "albisteetarako irudiak elkartrukatzen ditugu batik bat eta inoiz, dekoratuak ere ekarri izan ditugu Miramondik", dio Oihane Agirrek, Goiena telebistako programazio arduradunak.



Teknikari lantaldea, telebistako plato berrituan, Oihane Agirre programazio zuzendariarekin (eskuman).

# Telebista berria, dekoratu berrituekin

## Arrasateko Lanbide Hastapenekoek egin dituzte dekoratuak

Goienak Arrasateko egoitzan batuko du aurki bere lantalde osoa. Horretarako, Otalora kaleko lokala egokitzen dihardu. Telebistako platoa berritu egin du ekoizpen berriari erantzuteko; editatzeko eta errealizatzeko gelak ere berritu dituzte.

Platoa berrituta, saio berrietarako dekoratuak ere berritu dituzte eta, horretan bidelagun izan du Goienak Arrasateko Lanbide Hastapeneko taldea, Aitor Guridi *Txisto* buru dela. Hari esker egin dira platoko hainbat dekoratu, ikus-entzuleek igarriko zuten moduan.




**HARMAILATIK** Xabier Urzelaik aurkeztutako kirol saioa. Aste bukaerako kirol kronikak, elkarrizketak, erreportajeak, eta abar, protagonisten ahotan. Debagoieneko kirola, sakon aztertuta.

**Ordua:** 19:30, 22:00, 00:20 eta 15:30 (errepikapena, martitzena). **Eguna:** Astelehena.



**AMAIA DJ** Amaia Txintxurretaren musika saioa. Ikus-entzule gazteenekin komunitatea osatuz eta haien eskaerak aintzat hartuz, bideoklipak aurkezten ditu.

**Ordua:** 22:00 eta 00:20 eta 15:00 (errep., barikua) eta 19:00 (astelehena). **Eguna:** Eguena.



**TERTULIA** Goiena telebistaren asteroko hizketaldia, gaurkotasuneko gai jakin baten gainekoa, Larraitz Zeberiok aurkeztuta. Hizketaldiaren aurretik, euskarazko dokumental bat eskaintzen da gaia kokatzeko.

**Ordua:** 19:00, 22:00 eta 15:00 (errep., astelehena) eta 17:30 (eguaztena). **Eguna:** Egubakoitza.




**HARIRA** Elkarrizketa saioa, herri ordezkariekin, alkateekin, eta abar. Eneko Azkaratek aurkeztuta. Herriak aztergai, gori-gori dauden kontuak, herritarrei interesatzen zaizkienak.

**Ordua:** 22:00, 00:20 eta 15:00, 19:00 (errepikapena, eguaztena). **Eguna:** Martitzena.

# Asterokoez gain beste hainbat telebista saio

## 'Pedalka' eta 'Kantari' ezagunez gain, 'Zazpi akorde' musika saioa ere bai

Goiena telebistak astero ekoizten dituen sei saioez gain, lehenagotik ekoiztutako beste batzuk eta beste mikro-saio edo pilula batzuk ere emititzen ditu. Eta saio berria etorriko da aurki: *Zazpi akorde.*

**'KANTARI' KARAOKEA**

*Kantari* dantza-karaoke saioa 2013ko udazken-neguan grabatu da eta Debagoieneko neska-mutiko gaztetxoak ditu protagonista. Eskualdeko eskolekin eta udalekin elkarlanean ekoiztuta, ia 700 neska-mutikok hartu dute parte. Egunero emititzen da, eguerdian eta arratsaldean.

**BIZIKLETA GAINEAN**

*Pedalka*, ostera, bidaia saioa da. Duela urte bi, udan, Julen Iriondok Alpeetan barrena bizikleta gainean grabatutako irudiekin. Kamera eskuan, parean aurkitu zituen paisaia bikainak eta hainbat pertsonaia interesgarri hartu zituen. Martitzen, eguazten eta eguenetan emititzen da.

**'ZAZPI AKORDE'**

Bestalde, Huheziren ikus-entzunezko adarrarekin batera, beste saio bat ekoizten dihardu Goienak. Laugarren mailako ikasleek egingo dute eta musika saioa izango da: *Zazpi akorde*, Janire Zubizarretak aurkeztuta. Zortzi atal ekoiztu eta maiatzetik aurrera emitituko dira. Amaia Pavon MUko irakasleak eman dizkigu azalpenak: "Saio bakoitzean bi musika talde edo bakarlari izango ditugu: bata, ezagun samarra, eta bestea, hasi berria edo ezezagunagoa. Platoan eta entsegu tokian egingo dira elkarrizketak eta erreportajeak, eta zuzeneko akustiko batekin edo bideoklip batekin amaituko da".



***Kantari***, **gaztetxoei zuzendutako saio arrakastatsua.**



**Julen Iriondo 'Pedalka' saioko protagonista Alpeetan.**

**FILM LABURRAK, KLIPAK...**

Beste saio berezi batzuk ere ekoizten ditu beste erakunde batzuekin. Eta hainbat ekimenetan parte hartzen du: Huhezinema Film Laburren Jaialdian eta BHKlip Debagoieneko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako bideo lehiaketan, esaterako.

**JARRAIPENERAKO**

Saio arteko tarteak betetzeko, beste hainbat mikro-saio edo tartetxo ekoizten ditu Goienak: *Zorion agurrak, Kultura hitzorduak, Klip*... Eta emisiorik ez dagoenean (eguerditik gauerdira emititzen du), *Goiena.net*-etik hartutako albisteak eta agendako berriak pantailaratzen ditu.



**FELIX ETXAGIBEL**
BASERRITARRA, ARRASATE

## "Herriko eta inguruko berri eukitteko, biherrezko dittugu herri komunikabidiek"



**NEKANE GABILONDO**
MUSIKARIA, BERGARA

## "Herriko taldien kultura emanaldi berezixak ikusten dittugu Goiena telebistan"



**MIKEL ARANBURU**
SABADELL GUIPUZCOANOKO LANGILEA, OÑATI

## "Alkatien entrebistak, 'Debagoiena zuzenean' eta albistiak ikusten dittut"



**OLATZ IZARZUGAZA**
LANGILEA, ARETXABALETA

## "Betittik ikusi izen dou etxien Goiena telebista, bertakue, gertukue eta geurie dalako"



**ENERITZ ZUBIA**
IBARRAUNDI MUSEOKO LANGILEA, ESKORIATZA

## "Elkarrizketak, herriko berrixek, kirolekuek, hemengo jendie... holakuek ikusteko, Goiena!"



**JUANITA ZABALO**
ERRETIRATUA, ANTZUOLA

## "Etxian ikusten dittugu Goienako eztabaida saiuak, berbetaldixak eta holakuak"



**ROSA MONDRAGON**
KAZETARIA, ARAMAIO

## "Goiena telebistak emuten dusku gertuko informaziñue eta eskualdeko ikuspegixe"



**ANJE LOITI**
IKASLEA, ELGETA

## "Amaia Txintxurreta eta 'Kantari' die nere faborituak; beti egoten naz zain"



**EDORTA ARANA**
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA, GATZAGA

## "Goiena erreferentzia da toki telebisten artien; 'Debagoiena zuzenean' ikusten dot nik"

# Goiena telebista behar bezala sintonizatzeko jarraibideak

**Goiena telebista ikusteko hiru modu daude: batetik, ohiko antena bidez, Lurreko Telebista Digitalaren bidez (LTD); bestetik, Euskalteleko kable bidez, eta azkenik, Internetetik, streaming bidez *(goiena.net)*.**

▶ ANTENA (LTD). 52. kanalean sintonizatzen da. Antena kolektiboa denean, bereziki, moduladorea jarri behar da. Komeni da antena jartzailearekin harremanetan jartzea.

▶ EUSKALTEL. Kable bidez, Debagoienean, automatikoki topatuko du Goiena telebista. (S/11). Eskuz sintonizatu nahi bada, 231,25 frekuentzian dago. Debagoienetik kanpo ere ikus daiteke: 933. dialean.

▶ INTERNET. Beste aukera bat da *goiena.net* webgunean ikustea, Telebista atalean, edozein tokitatik. Streaming bidez emititzen da.




**Goiena telebista ikusteko arazorik baduzu edo argibiderik nahi izanez gero, deitu: 943 25 05 05.**

goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-03-14
EGUBAKOITZA
589. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM


## "Kapitalak elikatzeko eredua ere aldatu du"



**Debora Nunes** | MSTko Nazio Koordinakundeko kidea | 8

## Herriko ondarearen defentsa

Arrasate Zientzia Elkarteak ekintzak areagotu ditu | 9

EH Sukarra, Willis Drummond eta Bagauda, Oñatiko gaztelekuan | 28



Labegaraietako kirolgunean aisialdi-gunea eraikiko dute | 13



Atleta ugari batuko ditu Oñatiko duatloiak bihar, zapatua | 25



# KIROLAREN GOZAMENA ERAKUTSI GURAN

Erreala Fundazioko presidente Iraola eta Mikel Gonzalez jokalaria Eskoriatzan izan dira, Realaren heziketa-balioak transmititu guran | 24

Realeko jokalari Mikel Gonzalez, umez inguratuta, Mondragon Unibertsitatearen Eskoriatzako fakultatean. | JAGOBA DOMINGO

# Cegasa hartzekodunen konkurtsoan eta lan erregulazio espedientean da

Hala ere, zuzendaritzaren asmoa da negozioarekin aurrera egiten saiatzea | 4



Cegasa, Oñatin. | UBANE MADERA

## SINADURAK



**Ogia ogi, bi eta bi lau...** | 6
ARITZ ARRIETA



6 | **Etorri dena eta datorrena**
TXOMIN MADINA



**G(z)ure esku dago** | 23
XABI IGOA



36 | **Txipa aldatzea**
IDOIA ETXEBERRIA


ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 24
KULTURA 26 | GAZTEAK 30 | ZURE IRAGARKIAK 31
TELEBISTA-IRRATIA 32 | EZKONTZAK 33
ESKELAK 33 | NON-ZER 34


## 'Madama Butterfly' opera Arrasaten eskainiko dute martitzenean

Pucciniren obra ikusteko sarrerak agortuta daude | 26



Evariste Kone maliarra Oñatiko kuadrillarekin. | EVARISTE KONE

## Ibarrean integratzea lor daiteke

Debagoienean 3.806 kanpotar daude | 2

**HARIRA SAIOA | GOIENA TELEBISTA**

## "Ekainean jarriko dugu martxan moneta soziala herriko dendariekin"



**MIKEL BIAIN**
Oñatiko alkatea | 16



Sheila Fritz amerikarra Aloña Mendiko mendizaleekin batera. | SHEILA FRITZ

# Gurera etorri eta integratzea, lor daitekeen erronka

- Sei nazionalitatetako etorkinekin izan gara euren esperientziez berbetan
- Debagoienean 3.806 kanpotar daude, hainbat herrialdetatik etorriak

**IRATI GOITIA** | ARRASATE

Hizkuntza, kultura eta nazionalitate askotariko gero eta jende gehiago dago eskualdean. Marokoarrak, portugaldarrak, italiarrak, txinatarrak, kolonbiarrak... Zerrenda luzea da. Guztira, 3.806 kanpotar daude gurean, munduko hainbat tokitatik etorritakoak. Baina nola integratzen dira gure herrietan? Bertakotzen al dira? Laguntzen diegu? Euretako seirekin izan gara, askotariko esperientziak bizi izan dituzten sei lagunekin. Gure kultura, hizkuntza eta herrira egokitzea nolakoa izan den azaldu digute. Zailtasunak zailtasun, lor daitekeen erronka dela erakutsi digute, eta eurengandik ikas dezakegula.

**MARTA SILVA**
KOLONBIARRA

## "Etorri nintzenean 'kolonbiarra' nintzen"

Autobus bidaia batean hasitako maitasun istorioak ekarri zuen Marta Silva kolonbiarra Bergarara, duela 19 urte. "Garai hartan, Madrilen nengoen ikasten. Aretxabaletara etorri ohi nintzen autobusez bertan nituen ezagun batzuk bisitatzera. Madrildik Gasteizerako bidaia haietako batean ezagutu nuen nire gizona. Begira orain, 19 urte Bergaran".

Hona bizi izatera etorri zenean, herrian "kolonbiarra" zela dio, orduan ez zelako atzerritar askorik bertan. "Hasieran jendeak pentsatu zuen nire senarrak hona ekarri ninduela, nire egoera zaila zelako nire herrialdean. Izan ere, elkar ezagutu genuenean hura Salvador de Bahiatik zetorren, eta jende guztiak handik ekarri ninduela pentsatu zuen. Gero jakin dute, ordea, ni ordurako Madrilen bizi nintzela".

Hasieran, bertakotzea zertxobait kostatu zitzaiola esan du, euskaldunak ez ei garelako oso irekiak. Gutxika, baina, jendea ezagutzen joan zen. "Integratzeko denbora behar izaten da", zehaztu du. Egun, herrian erabat bertakotuta dagoela dio. "Harriekin ere hitz egiten duen horietakoa naiz. Gizonak esan ohi dit berak



Evariste Kone maliarra bere kuadrillarekin. | EVARISTE KONE



Marta Silva

baino jende gehiago ezagutzen dudala". Herriko ospakizunetan ere hartzen du parte. Adibidez, hiru urte daramatza Erramu Zapatuko ferian postua jartzen.

Pintzeladak izeneko pintura eskola du Ana Margarita Burgos lagunarekin batera, hura ere kolonbiarra. Oso gustura daude hemen. Silvak dio Kolonbiara gero eta gutxiago joaten dela: "Dagoeneko ez naiz hangoa, ezagun guztiek euren bizimodua egin dute eta ez naiz horren parte sentitzen. Gehiago naiz hemengoa".

**EVARISTE KONE**
MALIARRA

## "Kuadrillarekin gauza asko egiten ditut"

Evariste Kone maliarrak bost urte daramatza Euskal Herrian, azken hirurak Oñatin. Ikasketak egitera etorri zen. "Bilboko salestarrek Bamakon duten eskolan ikasi nuen eta nire osabak harreman handia zuen hemengo jendearekin; izan ere, Caritaseko zuzendaria da nire herrialdean –Oñatiko parrokoa ere ezagutzen zuen–. Beraz, harreman horien bitartez etorri nintzen hona ikastera".

Elgoibarko Makina Erremintan ezagutu zuen Aitor Arnaiz oñatiarra. Haren lagun egin, eta orain, bere kuadrillan erabat barneratuta dago."Eurekin gauza asko egiten ditut: auto lasterketetara joan, jaietan mozorrotu, mendi ibilaldiak, afariak elkartean, upeltegira...". Beraz, integraziorako ez duela arazorik izan dio. Hala ere, gaineratu du hainbat etorkinek hitz ez oso goxoak entzun behar izaten dituztela; adibidez: "Hona jendeari lana kentzera etortzen zarete". Hari, baina, inork ez dio horrelakorik esan.

Euskararen inguruan galdetuta, oraindik ez duela ikasi erantzun du. "Nire lagunak, baina, beti dabiltza euskaraz eta kuadrillako Whatsappean ere hala egiten dute. Ahalegintzen naiz gauzak ulertzen...".

Aurten amaituko ditu ikasketak. Haren asmoa, lana aurkituz gero, hemen gelditzea da.

**GHAZALA YASMIN**
PAKISTANDARRA

## "Hiri handietan ez bezala, gertutasuna sumatu dugu hemen"

Ghazala Yasmin pakistandarrak sei hilabete besterik ez darama Eskoriatzan, baina dagoeneko hasia da euskara ikasten. Auzoko egitasmoan hartzen du parte. "Euskara praktikatzeaz gain, herrian antolatzen diren ekitaldien inguruko edo bailarako informazioa izateko aukera ona da", dio. Udaletik ere jarrera baikorra jaso duela zehaztu du: "Gu herritarrekin erlazionatzea nahi dute. Adibidez, kultura etxearen berri eman ziguten, bertan jende asko mugitzen da". Yasmin eta bere familia Euskal Herrira etorri aurretik, zortzi urtez bizi izan dira Espainian; adibidez, Madrilen. Hiri handi batean ez dela Eskoriatzako gertutasunik sentitzen dio. Hala ere, Eskoriatzan etorkinak ikustera ohituta ez daudela ere badio.

Lan bila etorri dira hona: "Nire gizona eta biok lan gabe geunden. Arrasaten lagunak ditugu eta haiek esan ziguten hemen lana aurkitzeko aukera gehiago izango genituela".

**GIUSEPPE GILETTO**
ITALIARRA

## "Beti izango naiz kanpotarra"

27 urteren ostean, oraindik kanpotarra izaten jarraitzen duela dio Aretxabaletan bizi den Giu-

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2014
martxoak 15
maiatzak 17
ekainak 21
uztailak 19
irailak 20
urriak 18
azaroak 15



Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizuete.



eta Ana Margarita Burgos, pintura eskolan. | IRATI GOITIA



Giuseppe Giletto bere langile eta lagunekin, pizzerian. | NEREA HERNANDEZ



Ghazala Yasmin, Eskoriatzan ospatu zen Txirikilla egunean. | MIRIAM ISASMENDI

seppe Giletto italiarrak. "Bizitza osoan izango naiz kanpotarra. Nik askotan esan ohi diet gazteei eurek baino urte gehiago daramatzadala hemen, baina, hala ere, italiarra izaten jarraitzen dut".

Aretxabaletara etorri zenean herritarrek ondo hartu zutela esan du: "Etorri nintzenean grazia pixka bat ere egiten niela uste dut; izan ere, herrian zegoen italiar bakarra nintzen". Gaineratu du bere emaztea aretxabaletarra dela eta horrek asko lagundu ziola. Bestalde, zehaztu du berarentzat ez zela aldaketa handia izan: "Hemengo pentsaera eta bizimodua Italiakoaren antzerakoa da. Beraz, ez zitzaidan horren zaila egin". Horrenbestez, hasiera-hasieratik Aretxabaletan oso gustura sentitu dela dio. "Ni hiri batean bizitzera ohitua nengoen (Turin), baina hemen bizi kalitate handiagoa dagoela deritzot, lasaiagoa da, eta nahi nuen guztia nuen". Zailena hizkuntzarena egin zitzaiola esan du, ez zekielako euskaraz, ezta gazteleraz ere.

Egun, erabat integratuta dago herrian. UDAko bazkide ere bada. Gilettok, baina, ez ditu bere erroak ahaztu. Italiar "tipikoa" dela dio, oso etxekoa. Hain zuzen, bizimoduari aurre egiteko bere erraietara jo eta pizzeria bat ireki berri du Arrasaten.



Quingyu Jiang Pan txinatarra *Peter Pan* musikaleko kideekin. | MARIJE UGALDE

**SHEILA FRITZ**
ESTATUBATUARRA

## "Batua ikasi eta kalera irtetean..."

Gogoz barre eginda erantzun du Sheila Fritz amerikarrak Oñatin zenbat denbora daraman galdetuta. Lehen aldiz orain dela 39 urte etorri zen hona. "Idahoko eta eta Kaliforniako unibertsitateetatik etorri ginen euskara eta gaztelera ikastera. Urtebete egin genuen hemen. Ondoren, bi urte geroago, udan oporrak pasatzera etorri nintzen. Eteon justu ingeleseko irakasle bat behar zuten eta erabaki nuen beste urtebete gelditzea hemen eskolak ematen. Gero, baina, nire senarra ezagutu nuen eta...". Azkenean, urtebete egin beharrean, hiru egin zituen Oñatin. Ondoren, berriz itzuli zen Ameriketako Estatu Batuetara ikasketak amaitzera. Bertan ezkondu zen, 1985ean, eta ondoren Oñatira etorri ziren. Bada, ordutik hona bertan bizi da Fritz.

Herrian bertakotzea ez zitzaiola zaila egin esan du: "Hona ikastera etorri aurretik ezagutzen genuen bertako jendea. Horrenbestez, erreferentzia batzuk bagenituen. Gainera, asko ibiltzen ginen kalean eta jende asko ezagutu genuen". Hizkuntzarena zailagoa izan zela dio: "Gazteleraz pixka bat ikasita etorri nintzen, baina euskararekin hutsetik hasi behar izan nuen. Gainera, eskolak batuan hartzen genituen eta kalera irteten ginenean praktikatzera ez genuen ezer ulertzen". Hala ere, hizkuntza baino, eguraldia egin zitzaion gogorragoa Fritzi: "Idaho oso lehorra da; hemen, berriz... Gogoan dut etorri nintzen lehen aldian, lehen hiru hilabeteetan egunero-egunero egin zuela euria".

Bestalde, arraza, kolore edo ideologia ere izan ohi dira bazterketarako arrazoi. Fritzek kontatu digu lehen urteetan "Yankees go home!" eta horrelakoak entzun behar izan zituztela. "Gure Gobernua ez zegoen ondo ikusia. Hala ere, iraganeko kontuak direla esango nuke".

Herrian oso integratuta dagoela dio eta gustuko du ekintza edo ekitaldietan parte hartzea; esate baterako, bakearen alde egiten diren ekimenetan eta Aloña Mendik antolatzen dituen mendi irteeretan. Hala ere, urtero joan ohi da Ameriketako Estatu Batuetara familiakoak eta lagunak bisitatzera.

**QINGYU JIANG PAN**
TXINATARRA

## "Txina baino, Bergara dut nahiago"

Qingyu Jiang Pan 12 urteko gazte txinatarrari elkarrizketa euskaraz edo gazteleraz egin nahi duen galdetuta, ez du zalantzarik izan: euskaraz. Ia zazpi urte daramatza Bergaran, eta ederki egiten du euskaraz. "Hasieran zaila egin zitzaidan hizkuntza ikastea. Izan ere, etorri nintzenean ez nekien ezer. Horregatik, eskolan irakasgai batzuk galtzen nituen euskarazko eskolak jasotzeko".

Bergarar askoren moduan, musika gustuko du Panek. Tronpeta jotzen du eta koruan ere hartzen du parte. Bergarako Musika Eskolak egin dituen bi musikaletan ere hartu du parte: *Peter Pan* eta *Olentzero & Co,* hain zuzen ere. "Esperientzia politak izan ziren".

Txina edo Bergara aukeran emanda, zalantza gabe Bergara hautatu du.



Bergaran, auzokide eta auzotarrak bilduta, martitzenean. | I.G.

## Bertakotzen eta auzokotzen laguntzen duten egitasmoak

Etorkinak integratzeko egitasmo bat baino gehiago daude gurean. Esaterako, Auzoko. Euskaraz ez dakitenak edo euskaratik gertu bizi ez direnak euskarara gerturatzea da egitasmoaren helburua. Horretaz gain, baita bertakoek eta bertaratutakoek harreman-sarea osatzea. Martxan da egitasmoa Bergaran, Aretxabaletan, Oñatin eta Eskoriatzan.

Bestalde, Oñatin Bertakotze Programa ere badute atzerritik etorritako ume eta gazteentzat. Euskaraz irakastea, laguntza akademikoa eskaintzea eta integratzen laguntzea da helburua.

## ETORKINEN KOPURUA HERRIRIK HERRI

Nazionalitate askotako jendea dugu eskualdeko herrietan. Aramaion, esate baterako, 25 nazionalitate daude, Antzuolan 21, Arrasaten 61, Aretxabaletan 33, Elgetan 16... Eta, adibidez, bederatzi errumaniar daude Aramaion, 78 portugaldar Aretxabaletan, 258 pakistandar Arrasaten... Argi dago, horrenbestez, gure bailaran nazionalitate, kultura eta hizkuntzak ugarituaz doazela.

| HERRIA | BIZTANLEAK | ETORKINAK |
|---|---|---|
| Arrasate | 22.078 | 1.376 |
| Bergara | 14.836 | 1.098 |
| Oñati | 11.316 | 507 |
| Antzuola | 2.206 | 87 |
| Aretxabaleta | 7.021 | 380 |
| Leintz Gatzaga | 244 | 15 |
| Eskoriatza | 4.107 | 204 |
| Elgeta | 1.122 | 67 |
| Aramaio | 1.549 | 72 |
| **GUZTIRA** | **64.479** | **3.806** |



# Cegasak lan erregulazio espedientea abiarazi du

▶ Martxoaren 21ean eratuko dute baldintzak zehazteko negoziazio mahaia

▶ Hartzekodunen konkurtsorako administratzailea izendatzeko zain daude

**UBANE MADERA** | OÑATI

Hartzekodunen konkurtsoan dago Cegasa Taldea oraingo asteko astelehena ezkero. Eta behin prozesua abiarazita, Cegasa Taldea konkurtsorako administratzailea izendatzeko zain dago. Halako bi izendatuko dituzte, talde handia delako; eta administratzaile horien eskumena izango da taldeak aurrera nola egingo duen erabakitzea.

Oñatiko Cegasa fabrikako enpresa batzordeak espero du administratzailea "ahalik eta lasterren" izendatuko dutela, enpresak duen likidezia falta kontuan hartuta komeni delako ahalik eta lasterren jakitea ze aukera duten.



Cegasako langileak Oñatiko fabrikako bileratik ateratzen. | UBANE MADERA

**Lan erregulazioa**

Hala ere, konkurtso-administratzaileak izendatu artean, EREan sartuko da Cegasa talde osoa (Oñati eta Gasteiz). Hala jakinarazi du Oñatiko enpresa batzordeak oraingo asteko eguaztenean, lankideekin egindako informazio batzarraren ostean. Eta eguaztenean bertan abiarazi zuten lan erregulazioak (EREak) dakarren prozesua.

EREa aurkezteko arrazoiak bi dira: ekonomikoak (ia 100 milioi euroko zorra dauka Cegasa Taldeak) eta produkzioari dagozkionak. Hain justu ere, EREaren bitartez lortu gura den helburua da lanean segitu ahal izatea harik eta administratzaile konkurtsala izendatu eta hark taldearen etorkizuna zein izango den erabaki arte. Izan ere, lanerako lehengaiak erosteko likideziarik ez, baina lan-karga handia dute Cegasan, eta esandako moduan, lan horri eutsi ahal izatea da langileek gura dutena: "Topera gabiltza. Adibidez, manganeso produkzioa salduta dugu urte bukaerara arte. Bestalde, bideragarritasun plan bat badago: ahalik eta gehiena saldu, eta hortik eskuratzen den diruarekin bideragarriak diren negozio -lerroekin aurrera egin. Baina banketxeek stopa eman digute, zirkulantea moztu egin dutelako; eta hori da arazoa: lana badugu, handia, gainera, baina lan horri erantzuteko lehengaiak erosteko dirurik ez", azaldu dute.

Gauzak horrela, konkurtso -administratzailearen erabakia jakin artean lanean segitu ahal izateko, lan-jardunean murrizketa aplikatuko dute EREaren bitartez. Edozelan ere, ERE horrek izango dituen baldintzak negoziatu beharra dituzte eta hori martxoaren 21ean osatuko den negoziazio mahaiaren bitartez egingo dute. 13 kidek osatuko dute mahaia, Oñatiko ordezkariak tarteko.

**Aurrera egiteko ahalegina**

Cegasa Taldea hartzekodunen konkurtsoan sartu da asteon. Gasteizko Merkataritza Epaitegian egin du eskaria, finantzazio faltagatik eta bideragarritasun plana aurrera eroateko zailtasunak dituela-eta. Cegasak 900 langile ditu lau lantokitan banatuta, horietatik 500 Euskal Herrikoetan; bi lantegi ditu Gasteizen eta bat Oñatin, eta 75 lagunek dihardute lanean azken horretan –kopuru horri zeharkako langileak gehitu behar zaizkio. 2008. urtetik, galerak izan ditu Oñatin 1934an sortutako enpresak; urtarril amaieran hartzekodunen aurrekonkurtsoan sartu zen; eta, azkenaldian, zailtasun handiak izan ditu bere jarduerari eusteko. Horregatik sartu da asteon hartzekodunen konkurtsoan. Edozelan ere, Cegasarekin zerikusia duten guztien artean, hurrengo hilabeteetan, irtenbideak aurkitzen saiatuko direla espero du Cegasak. "Gure asmoa da orain arteko prozesu berarekin jarraitzea, hau da, negozio unitate bakoitzarentzat bazkideak bilatzen jarraitzea, guztien etorkizuna bermatzeko. Baina orain, konkurtso-administratzailearen eta epailearen oniritzia ere behar dute erabaki horiek", adierazi digute zuzendaritzatik.

## Fagor likidazio fasera pasatuko da

Asteon Debagoienean albiste den bigarren enpresa Fagor da. Bi arrazoirengatik: batetik, Cevitalek Frantziako Brandt eta Debagoieneko Garagartza eta Eskoriatzako hainbat negozio-lerro erosteko erabakia datorren martxoaren 27ra arte atzeratzeko eskaera egin duelako CGT sindikatu frantsesak. Eta bestetik, egunotan Fagor likidazio fasean sartuko delako.

**Cevitalendako, seguru aski**

Cevitalen kontuari dagokionez, eta Frantziako komunikabideetan asteon publikatutakoaren arabera, CGT sindikatuak eskatu du martxoaren 27ra arte luzatzea erabaki hori hartzeko epea, beti ere, Cevitalen eskaintzari bidea errazteko. Izan ere, Fagorreko iturrien arabera, Frantzian eskaintza bakarra jaso dute, eta haren aldeko ahalegin guztiak egingo dituztela uste dute, are gehiago kontuan hartuta Cevitalen eskaintza Mombur ministro frantsesaren eskutik etorri dela.

**"Fagorren markak, fabrikak, makinak... eros daitezke likidazio fasean"**

Likidazio faseari dagokionez, berriz, behin epaileak onespena emanda, Fagorren aktiboen gaineko eskaintzak jasotzeko epea zabalduko da: "Cevitalen moduan, badaude enpresa gehiago Fagorrekiko interesatuta; baina oraingoz ez dugu eskaintza firmerik. Likidazio fasean, beraz, Fagorren aktiboen gaineko eskaintzak egiteko epea zabalduko da; izan daitezke fabrikak, makinak, markak... Espainiako kasuan, Aspes eta Fagor markak ez dira Fagor Etxetresnenak, Fagor Taldearenak baizik, beraz, ezin dira saldu, baina bai negozia daiteke haien erabilera, adibidez. Edesa, berriz, Fagor Etxetresnena da, eta hori bai saldu daiteke", esplikatu dute Fagorretik.

# Hiru taberna, hiru elkarte eta bost lokal, sententziaren zain

'Herriko tabernen auzia'-ren sententzia udarako espero dute; ibarreko 11 lokal daude tartean

**M.B. / U.M.** | DEBAGOIENA

Epaiaren zain geratu da 35/02 auzia, *Herriko tabernen auzia,* alegia; udarako espero dute ebazpena. Baina, hori iritsi bitartean, eta auzia sententziaren zain utzi zuten egun berean (eguaztena) auzipetuen absoluzioa eskatzeko agerraldia egin zuten Bergaran, Arrano tabernaren kanpoko aldean, *Bergararron alegatua, absoluzioa* lelopean. Bertan, honakoa nabarmendu zuen Roberto Martinezek (Arrano elkartea): "Pieza ekonomikoa hor dago. Horren barruan, bai herriko tabernak eta baita elkarteak ere auzipetuta gaude, eta ez dakigu noraino irits daitezkeen ondorioak. Oraingoz, fiskaltzatik ate guztiak zabalik geratu dira".

Gai berarekin lotuta, beste hitzordu bat egin dute, etziko (domeka): Bergarako Pol-pol tabernan. Auzi horretan auzipetuta dagoen Joseba Alvarezek eta gazte independentisten auzian dagoen Ibai Esteibarlandak hartuko dute parte 18:00etan hasiko den berbaldian.

**Debagoienean, 11 lokal**

Urrian hasi zen 35/02 auzia. 2002an, Batasuneko kide ziren 40 lagun Auzitegi Nazionalean epaitzen zituzten hartan, herriko tabernen bitartez ETA finantzatzea egotzita. Zortzi eta hamabi urteko zigor eskaerei egiten zieten orduan aurre. Baina, bost hilabete pasata, joan den astean fiskaltza zigor eskaera horiek murrizteagren alde agertu zen. Hain justu, bederatzi lagunen aurkako akusazioa erretiratu zuen, eta gainontzekoendako lau urte eta sei hilabete arteko kartzela eskatu zuen.

Debagoienaren kasuan, Arrasaten Irati taberna, Arrano elkartea eta beste hiru lokal; Bergaran Arrano taberna, Artatse elkartea eta beste lokal bat eta Oñatin Arrano taberna eta elkartea eta hirugarren lokal bat daude sumario horretan.




Bergaran egindako agerraldia, eguaztenean. | JON MOÑUX

### Maiatzaren 10ean egingo dute Itziarrera gau-ibilaldi erlijiosoa

Urteroko ohiturari eutsita, Itziarrera egiten den gau-ibilaldi erlijiosoa martxan da. Txangoak aurreko urteetan Gipuzkoan izan duen oihartzunaren ondorioz, aurten ere egingo da 42 kilometroko mendi martxa. Maiatzaren 10ean izango da, zapatua. Segurtasun neurriak direla eta, ibilaldiaren antolatzaileek jakinarazi dute hasierako gurutzearen eta bidea ixten duen auto artean doan jendea soilik hartuko dutela partaidetzat. Norabideen inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, web orri honetan aurki daiteke informazio gehiago: *www.marchaitziar.com*.

### Iheslariek ere Euskal Herrira bidea egiteko asmoa agertu dute

Hainbat erakunde eta kolektibo "konponbidearen norabidean" egiten ari diren urratsei jarraiki, iheslarien kolektiboa ere bere "ekarpena" egitekotan da: etxera bidea egiteko asmoa agertu du. Bihar, zapatua, aurkeztuko du Bide Orria Altsasun eta martitzenerako hitzaldia antolatu du Bergaran. Arrasateko alkate ohi Xabier Zubizarreta *Txiron*ek, iheslari ohi ere badenak, Bide Orria azalduko du eta Bergarako iheslari ohiek nork bere bizipenen berri emango dute. Ostean, bideo -emanaldi bat ere izango da. Zabalotegi aretoan da hitzordua, 19:00etan.




AHT Gelditu Elkarlaneko kide batzuk prentsaurrekoan. | GOIENA

# "AHTrekiko aurkakotasuna" erakusteko, agerraldia

Biharko, zapatua, egin dute hitzordua, Bergaran egiten diharduten AHTren zubipean

**MIRARI ALTUBE** | DEBAGOIENA

Kale agerraldia deitu du biharko, 11:30etik 12:30era, *Despilfarroa gelditu! Aski da! Ez dugu ezertarako behar!* lelopean, Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlana taldeak. "Urteotan ikusten ari gara AHTaren obrak nola ari diren Euskal Herriko hainbat bazter apurtzen. AHTarekiko aurkakotasuna agertu izan dugunok behin eta berriz errepikatu ditugu proiektu antisozial honen kontra egoteko arrazoiak zeintzuk diren", adierazi dute prentsaurrekoan.

Biharko agerraldiaren ostean ekitaldia egingo dute, 12:30ean; eta horren ostean txorizoa eta sagardoa egongo dela iragarri dute.

**"Ekonomikoki hondagarria"**

Besteak beste, ekologikoki proiektu suntsitzailea eta ekonomikoki hondagarria dela diote deialdian. "AHT bezalako lan erraldoiek baliabide publikoen xahuketa izugarria suposatzen dute eta gaur egun pairatzen ditugun murrizketa sozialen erantzule zuzenak dira". Hala, kritikatzen dute gobernuek gastu sozialetan murrizketa gogorrak agindu eta kapitalismsoaren krisiaren zama herritarren gain botatzen dituzten bitartean, "AHTaren eraikuntzan baliabide kopuru itzelak" xahutzen direla.

Horrez gainera, Bergarako zubia dute hizpide Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlana taldeko kideek eginiko deialdian: "Aramaion egin zuten zubi erraldoiarekin nahikoa ez eta orain antzerako beste bat eraikitzen ari dira Bergaran". Hori dela eta, egin dute justu, biharko deialdia zubipe horretan.

# Familia-nekazaritzak dituen balioak eta garrantzia agerian jarri guran

Esperientzia handiko adituak izango dira Jalgi Hadi Ortura jardunaldietan

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

*Emakumezko antolatuak, munduari eusten dion borroka*; *Jakiek hitz egingo balute*; eta *Ondo bizitzeko estrategiak eta proposamen praktikoak ekofeminismoaren ikuspuntutik*. Horiexek dira astelehenean (martxoaren 17an) hasi eta martxoaren 27ra arte Debagoienean izango diren jardunaldietako hitzaldietako batzuk.

Mundukide Fundazioaren eta Lanki-Huhezi ikertegiaren eskutik, *Jalgi Hadi Ortura, lurra lantzen eta bizitza ereiten: elikadura burujabetzaren alde* izenburupean antolatu dute ekimena, familia-nekazaritzaren nazioarteko urtea den honetan. Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin egingo dituzte jardunaldiok, hitzaldi, mahai-inguru, erakusketa eta tailer formatuan. (Egitaraua taulan)

**"Praktika funtsezkoa"**

"Kanpainaren bidez elikagai-subiranotasunari, nekazaritza ekologikoari eta ekologia feministari loturiko esperientzia alternatiboak ezagutarazi nahi dira, antolaketa komunitarioari eta autokudeaketari dagokien balioa emanda. Halako praktikak funtsezkotzat jotzen dira bizi osorako, ekonomiarako eta planetaren iraunkortasunerako, eta krisia nekazariengan izaten ari den inpaktua salatzen da; baita eskala handiko nekazaritzak eragiten dituen kalteak ere. Brasilek garrantzi berezia izango du", esplikatu dute antolatzaileek.




Ibon Antero (Mundukide), Mirene Zufiaurre (Lanki) eta Debora Nunes (MST). | U.M.

## JARDUNALDIEN EGITARAUA

**Hitzaldia:** *Emakumezko antolatuak, munduari eusten dion borroka*. Bergaran. Martxoaren 17an, Irizar jauregian, 18:30ean. Debora Nunes eta Maite Aristegi dira hizlariak.

**Mahai-ingurua:** *Aldaketak ekartzen dituzten esperientziak*. Arrasaten. Martxoaren 18an, Kulturaten, 18:30ean. Debora Nunes, Marta Monasterio eta Maritxu Arroyo dira hizlariak.

**Mahai-ingurua:** *Bizitza ardatz jarriz, ekarpen feministak eta ekologistak*. Oñatin. Martxoaren 19an, kultura etxean, 18:30ean. Debora Nunes eta Marta Monasterio eta talde gonbidatua.

**Hitzaldia:** *Jakiek hitz egingo balute...* Arrasaten. Martxoaren 20an, Kulturaten. 18:30. Dorleta Martinez eta Idurre Aranguren.

**Hitzaldia:** *Brasilgo emakume nekazarien egoera eta erronkak*. Aretxabaletan. Martxoaren 24an, Zaraia aretoan, 19:00etan. Debora Nunes da hizlaria.

**Hitzaldia:** *Mugimendu sozialen indarra (MST)*. Arrasaten. Martxoaren 26an, Kulturaten 18:30ean. Debora Nunes.

**Tailerra:** *Ondo bizitzeko estrategiak eta proposamen praktikoak ekofeminismoaren ikuspuntutik*. Arrasaten. Martxoaren 19an, Kulturaten, 09:00-13:00. Marta Monasterio da dinamizatzailea.

**Esperientzia-trukeak:** *Oinak lurrean*. Arrasaten. Martxoaren 27an, Kulturaten, 18:00etan. MST elkarteak eta Debagoieneko erakunde eta eragile sozialek parte hartuko dute.

**Erakusketa eta bisita gidatua:** *Gure lurra, gure etorkizuna*. Arrasaten. Martxoaren 19ra arte (bisita gidatua martxoaren 18an da, 16:00etan), Kulturaten, 17:30etik 20:30era.

# Markel Olano, Floren Aoiz eta Juan Maria Uriarte, bakeaz eta berradiskidetzeaz

**U.M.** | DEBAGOIENA

"Elkarrizketa, enpatia, asertibitate eta begirune jarreren bitartez, bizikidetzaz, bortizkeriaz (edo ezaz), bakeaz, giza eskubideez eta abarrez hausnarketa egitea, betiere gure herrirako desiragarria bezain zaila datekeen berradiskidetzea erdiestea xedez, oroimen eta aniztasunez".

Helburu horrekin hitzaldi-solasaldiak antolatu ditu martxoaren 19rako (Oñatin, Santa Ana aretoan, 19:00etan) eta 5erako (Arrasaten, San Frantzisko elizan, 19:00etan) Arrasate-Bergarako Artzapez Barrutiak. Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga, Elgeta eta Bergara biltzen ditu barruti horrek.

**Aditu entzutetsuak**

Gaia lantzeko gonbidatu ezagunak izango dira Debagoienean: Juan Maria Uriarte, Donostiako gotzain emeritua; Markel Olano, Gipuzkoako ahaldun nagusi ohia; eta Floren Aoiz, Iratzar Fundazioko zuzendaria, Oñatiko hitzaldian. Eta Paul Rios, Lokarriko koordinatzailea; Jesus Loza, Eusko Jaurlaritzako bizikidetzarako mandatari ohia; eta Iñaki Hernando Egiari Zor fundazioko ordezkaria, Arrasaten.




Mikel Mantzizidor hitzaldia egiten, eguaztenean, Politeknikoan. | T.M.

# Mikel Mantzizidor (Unesco Etxea): "Hezkuntza giza helburua ere bada"

**TXOMIN MADINA** | ARRASATE

"Giza garapenak batzen ditu bizitza ona izateko ezinbestekoak diren ondo ulertutako hazkundea eta *per capita* errenta bezalako gakoak eta pertsonengan oinarritutako beste irizpide baloratiboagoak. Pertsonarengandik, pertsonarekin eta pertsonarendako egindako garapena da". Halaxe laburbildu du *giza garapen* kontzeptua Mikel Mantzizidorrek, Unesco Etxeko zuzendari eta Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen batzordeko kide denak, asteon, Arrasaten.

Mondragon Unibertsitatea 2020rako hezkuntza-ereduaren gogoeta estrategikoa egiten dabil, eta horren barruan antolatutako hitzaldi zikloan izan da Unesco Etxeko zuzendaria gai hori lantzen.

# Bitarteko propioen aldeko martxa

Gune Plataformak deituta, *Duintasunaren aldeko martxa* izenarekin, Bergarako Udaletxe parean agerraldia eta bailaran auto karabana egin zuten martitzenean. Labur esanda, Euskal Herriarendako bitarteko ekonomiko propioak aldarrikatu dituzte.




JON MOÑUX

## ZABALIK



**ARITZ ARRIETA**
goiena.net/komunitatea/

# Ogia ogi, bi eta bi lau...

Gauzak edo gertakariak nola kontatzen diren, hala interpretatzen edo ulertzen dira. Betidanik Nafarroa Euskadi dela esan izan da; bueno, batzuek edo interesatu batzuek esan izan dute.

Edozelan ere, galdera hauxe da: nafarrak, izatez, ez al dira benetako orduko *vaskoiak?*

Izan ere, gertakari historikoak kontatzeko orduan, gardentasun osoa izan behar da premiazko aurrekarietako bat, dudarik gabe, eta, horrenbestez, galdera hori alderantzizkoa izan beharko litzateke.

Hau da: Euskadi Nafarroako parte izan beharko litzateke?

**"Gertakariak nola kontatzen diren, hala interpretatzen edo ulertzen dira"**

Horren harira, datu garrantzitsu bat gogora ekartzea komeni dela uste dut: gipuzkoarrek eta bizkaitarrek Gaztelako erregeei utzi genizkien tropak, azken horiek Nafarroa konkistatu ahal izateko...

Datua datu, horra gakoa, Euskadi Nafarroa edota Euskadi bere baitan...

Kontua da, hasieran esandakoaren arabera, gertakariak nola kontatzen direnaren arabera, historikoak batez ere, ba halaxe ulertzen direla, eta, horrez gain, gertakari horiek eremu politikora pasatzerakoan egia gezur bilaka daitekeela, manipulazioa erraza delako.

Politikari askok uste omen dute gezur bat askotan kontatuta egia bihurtzen dela eta, hain zuzen ere, kontua da kasu askotan horrela izaten dela.

Eskerrak benetako gertakari historikoak behar diren moduan jasota dauden, nahiz eta gertakari historikoen aldaketa eta manipulazioa gaur egun pil-pilean dagoen zerbait dela ere ez izan notizia berria.

Eta, hortaz, historian gertatukoaren fiskalizazioa ere egin beharra daukagu?

Ez da, ba, egia egia izan behar bere baitan?

Beraz, egia egia, ogia ogi, ardoa ardo, bi eta bi lau.

## USTEAK USTE

**TXOMIN MADINA** | tmadina@goiena.com

# Etorri dena eta datorrena

Gogoratzen informazio bila hiztegi, entziklopedia edo atlasen orrietan murgiltzen ginenean? Kantu konkretu bat entzuteko aukerak diskoa erosi edo irratiaren ondoan zain egotea zirenean? Gugandik urrun zeudenekin komunikatzeko telefonoa (garestia) eta posta (ez oso azkarra) soilik genituenean? Aste honetan bete dira 25 urte Tim Berners-Leek World Wide Web garatzeko lehen urratsa egin eta dena aldatzen hasi zela. Nora eroango gaitu honek guztiak? Kristalezko bolaren lana egiten du sarri pantaila handiak, eta une hauetan bada pelikula bat etor daitekeenari begiratzen diona: *Her*; asmatu edo ez, hausnartzeko, eta hunkitzeko, balioko dizuena.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.net/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Viet Cong euskalgintza

**Eneko Barberena**
blogak.goiena.net/barberenea/

Jakina denez, FNL edo Viet Cong gerrila ezaguna egin zen bereziki 60. hamarkada amaiera eta 70. hamarkada amaieran Vietnam hegoaldean estatubatuarren eta beraien kolaboratzaileen aurkako gerran. Beraien jarduera frantses armadaren aurkako gerra ostean hasi zen, Viet Minh erakundeko kideek diktaduraren aurkako borrokaz jarraitu eta askapen borrokarako frontea osatu zutenean. Estatubatuarrek *charlie* deitu zieten eta herrialde horrek gugan duen eragin kulturala medio, hori da akaso FNL-az dugun erreferentzia ezagunena. Hori eta beraien gerrila borroka estua, lurpeko tunelekin, oihanaren ezagutza sakon batekin eta herriaren zati on baten babesarekin.

Beraien armak zeintzuk ziren jakitun ziren eta berauek ondo baliatzen asmatu zuten. Ez ziren hasi estatubatuarrekin urpekuntzi deman edota fragata handiekin eginiko gerran. Jakitun ziren gerra "konbentzional" modu horretan beraien irabazteko aukerak oso-oso txikiak zirela. Bestelako kartak jokatu zituzten eta irabazi egin zuten, sakrifizio ugari medio.

Batzutan irudipena dut euskalgintzak, inguruko hizkuntza handiekin duen lehian, ez dituela oso argi zeintzuk diren bere armak. Bere arma eraginkorrak, esan nahi nuen. Hizkuntzaren ezagutza eta erabilera areagotzeko armak esan nahi nuen. Eta ahalegintzen dela bere langintzan, biziki ahalegindu ere, baina baliabideak kontzentratzen aritu ordez berauek dispertsatzen, batzuetan gainera emaitzek ez dutenean morala igotzeko balio ere. [...]

Ni neu izan naiz "dena egon dadila" euskaraz leloaren defendatzaile handienetako bat, baina batzuetan ezin ditut zalantzak uxatu ikusirik eginiko esfortzuen eskerga eta auzo hizkuntzen indarra. Halakoetan burura etortzen zait azpititulekin hobeto gabiltzala bikoizketan baino, sarean hobeto gabiltzala paperean baino... Eta maite dut papera, uste dut paperean oso produktu onak ditugula, maite ditut gure bikoiztaileak baina... zalantzak ezin uxatu nabil.

# Udaberria etorri delakoan...

**Leire Narbaiza Arizmendi**
eibar.org/blogak/leire/

Udaberria etorri delakoan, pozik kendu dugu txamarra, jertsea erantzi, eguzki betaurrekoak buru gainean diadema jarri. Soinekoa probatu eta botak gorde. Ibilgona atera, eta tinko eta artez, kalera irten.

Udaberria etorri delakoan, barruko neguari agur esan nahi izan diogu, eguzkiak hezurrak epeltzen dizkigun bitartea, bihotzeko izotza urtuko zaigulakoan, biziberrituko gaituelako ustetan, biziberrituta.Udaberria etorri delakoan, kaleak gure egin ditugu irribarrez, pausu irmoz. Eguzkiak arimako hotza uxatuko digulakoa aurpegia jarri dugu, eta oreztak irten, gure (x)umetasuna agerian lagata. Udaberria etorri delakoan, ahalik eta ederren sentitu gara, gogo bekaizti iluna desagertuko zaigulakoa, errainu epelen artean. Eta udaberria etorri zaigulakoan, esperantzaren bila abiatu gara, neguaren bakardade ankerra atzean laga asmoz, lortuko dugulakoan...

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:**
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:**
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Kezkaturik nago

**Garikoitz Iturbe Etxebarria**
Aretxabaleta

Azken boladan zaborrak hartu duen dimentsioak kezka eta pena sorrarazten dit. Hainbeste ika-mika eta borrokak inora eramaten ez gaituela uste dut. Lasaitasun pixka batek falta egiten duelakoan nago. Hala ere, pozik nago gaia errotik hartu eta lantzen ari garelako. Modu batera edo bestera, sistema baten edo bestearen alde egon, birziklatzeko kontzientzia areagotzen ari delako.

Baina hasieran esan dudan bezala, kezkatuta nago.

Nork bere etxean ohitura aldaketa eta konpromiso txiki batzuk hartuz lortu ditzakegun onurak ikusita ere, honelako zalaparta eta erresistentziak sortzeak tristatzen nau.

Gaika ahalik eta material gehien bereizita batuz, zabortegien eta errauskailuaren auzia konponduko litzateke.

Horrez gain, ingurugiroaren eta hauek kokatuta dauden inguruko herritarren osasunaren alde zerbait egingo genuke.

Horregatik, horrelako zalapartak tristatzen nau.

6 urte egin ditugu Aretxabaletan 5. edukiontziarekin eta orain arte lortu ditugun emaitzak ez dira batere onak izan.

Orain gutxi arte, 300 familia inguruk bakarrik erabili dugu ontzi marroia eta edukiontzi berdeak tripa betea izaten du egunero.

Ikusirik beste herri batzuetan ohitura aldaketa batzuk hartzeak sortu dituen onurak edo luzera sortu ditzakeen onurak, ez al duzu uste ahalegin bat egitea merezi duela? Niri ere aldaketek beldurra eta ezinegona sorrarazten didate, baina ingurugiroaren onerako bada, ahalegin guztiak zilegi direla uste dut.

Eman diezaiogun aukera bat atez ateko sistemari.

## Zapatu goizean kontzentrazioa Bergarako AHTaren biaduktu azpian

**Ander Lizarralde Lizarralde eta Judith Arriolabengoa Unzueta**
(Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlanaren izenean)
Debagoiena

Azken urteotan ikusten ari gara AHTaren obrak nola ari diren Euskal Herriko hainbat bazter apurtzen. AHTarekiko aurkakotasuna agertu izan dugunok behin eta berriz errepikatu izan ditugu proiektu antisozial honen kontra egoteko arrazoiak zeintzuk diren.

Aspalditxo hasi ziren Debagoieneko bailaran AHTaren obrak: Eskoriatza, Aramaio, Antzuola... Tunelak, tuneletatik ateratako materialentzat zabortegiak, biaduktu erraldoiak... suntsipena nonahi! Aramaioko biaduktu erraldoiarekin nahikoa ez eta orain antzerako beste bat eraikitzen ari dira Bergaran.

Horrez gain, berriki, PNVk eta PPk Madrilen, Espainiako Gorteetako eztabaidan akordio bat lortu dute eta bertan Bergarako loturaren eraikuntzan aurrera egitea adostu dute.

Horren aurrean, Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlanak gure erabateko desadostasuna erakutsi nahi diogu bai Abiadura Handiko Trenari, bai Madrilgo Gorteetan lortu duten akordio justifikaezinari eta baita Bergarako biaduktu erraldoiaren eraikuntza inposatuari ere.

Horretarako, gure desadostasuna adierazteko eta protesta egiteko, martxoaren 15erako, zapaturako, 11:30etik 13:30era kontzentrazio bat antolatu dugu Bergarako biaduktuaren azpian, errepidearen ondoan. 12:30ean izango da ekitaldi nagusia.

AHTaren eta berak dakarren guztiaren aurka dauden herritar guztiei dei egin nahi diegu bat egin dezatela deialdi honekin eta agertu daitezela. Animatu eta parte hartu.

## Angula-jana, errraustegia eta herriari hitza

**Ana Bolinaga Uribarren**
(Aretxabaletako Bilduren izenean)
Aretxabaleta

Aretxabaletako EAJko Joxe Miel Uribarreni eta Aitor Gabilondori erantzuna.

Bakoitza nondik datorren gogoratzea baino hoberik ez dago non gauden eta nora goazen jakiteko.

Alderdi batzuetan ohikoa den praktikarekin jarraituz, Zubietako erraustegiaren negozio borobilari mahai baten bueltan eman zitzaion amaiera, eta faktura hainbeste maite gaituzten herritarren kontura ordaindu zen, guztira 2.860,65 euro; hiru mileuristaren batez besteko soldata. Zuek txin-txin egin eta faktura herriak ordaintzen du, egunetik egunera pobretuagoa den eta zalantzazko etorkizuna duen herritarrak, bankuok eta enpresa handiak inolako enpatxurik gabe aberasten zareten bitartean.

Orduko diputatu nagusia zen Markel Olanok (EAJ), Ingurumen diputatu eta GHKko presidente Carlos Ormazabalek (EAJ) eta bankuetako ordezkariek bapo egin zuten angula-jana herritarren kontura.

EHBilduren irudia okertzeko ez duzue enpatxurik, kontsulta herrikoiak erreklamatzeko edota kontsultaren galdera baino manipulatuagoak dauden etxeetara panfletoak bidaltzeko.

5. edukiontziaren edo atez atekoaren aldeko galdera gaizki formulatutako galdera da eta ondorioz eztabaida faltsu batera garamatza.

Galdera ondorengoa litzateke: birziklatu bai ala ez? Eta hortxe dago gakoa. Guk oso garbi esan dugu beti birziklatzea ez dela aukera bat, betebehar bat baizik. Zuek ere oso argi hitz egin duzue, ikusi besterik ez dago zein instalazio defendatzen zenuten eta duzuen: erraustegia Zubietan eta hondakinen zabortegiekin jarraitzea.

Zaborra, erre eta bota.

Zuentzat birziklatzea ez da apustu erreala, pose politikoa baizik.

Noiz pentsatzen zenuten Zubietako errauskailuari buruzko kontsulta egitea herriari edota AHTari buruzkoa?

Eusko Jaurlaritzak ba al du Hezkuntzan eta Osasunean egindako murrizketen inguruko kontsulta egiteko asmorik?

Bururatu zitzaizuen herritar asko ez zeudela kiroldegi handiki horren alde?

Agian, galdera sorta honen ondoren lur hartzeak urdaila nahastu dizue.

Horretarako erremediorik onena zintzotasuna izenez ezaguna den urdail-babeslea hartzea da.

Badira hilabete batzuk proposatu genizuela demokrazia errealeko kultur politika berri bat egiten hastea eta horretan murgiltzea, zeinetan herritarren parte hartzea lau urtez behin boto ematera joatea baino haratago joango den.

Gaur oraindik zain gaituzue.

Nork ukatzen dio hitza herriari?

Zero zabor, zero langabezia, zero etxegabetze, zero pribilegio, eskubide gehiago, demokrazia erreala, berdintasun gehiago eta justizia sozial gehiago, horiexek dira premiazko lan ildoak eta lan ildo horretan bidelagun izango duzue EHBildu.

Politika egiteko aire berriak Euskal Herriarentzako.

Eta ea San Valentin egunerako gutxiago maite duzuen herria, baina hobeto.

## Ezker abertzalearen (in)koherentziak

**Aitor Urrutia**
Eskoriatza

Nire bizi guztian joan naizela gogoratzen dudan lehenengo manifestazioa Donostian izan zen. Garai hartan, Tejeroren kolpea, polimiliak garaiko Barne ministro zen Juan Jose Rosónekin bukaera negoziatzen, eta Estatutua eta Kontzertua hasi berri zeuden.

Elkarretaratzearen arrazoiarekin oroitzen ez banaiz ere, nintzen haurraren gomutan, ordea, argi gelditu zen irudi bat: Polizia Nazionalagatik banatuta, inguruan, hatz erakuslearekin seinalatzen gintuen jende pila bat, "Ahí están, esos son los amigos de Rosón" oihukatzen zuen beste manifestaldi bat.

Gure amak esan zigun: "Gu isilik, eta aurrera". Isilik eta aurrera, EAJko jendearen patua.

Horrekin gogoratu nintzen bandera espainiarra Eskoriatzako Udaletxeko balkoian txintxilikatua ikusi nuenean, eta pentsatu nuen gaur geuk esan geniezaiokeela ezker abertzaleari: "Ahí están, esos son los que ponen la española en el balcón".

Ezker abertzalearenak marka guztiak hausten baititu. Hara ze aldrebesak izango diren, hamaika izen izan ondoren, 45 urte, 800-900 hildako, 600-700 preso, hainbat bahiketa, eta zerga iraultzailearen bitartez makina bat diru xahutu ostean, asmatu dutela Sortu.

Edonork esan ahal izango luke, normal batean, lehendabizi Sortu egin behar dela eta gero dagokion bidea egin.

Eta hara non, orain finantzaketa behar zutela eta, berriro legeztatzen dira, eta konbertso handienaren erara, lege sinesgarritasuna irabazi nahian edo, mantso-mantso udaletxeetako balkoiak bandera espainiarrez betetzen dizkigute.

Non gelditu ote dira "ikurrina bai, bai; espainola ez, ez" bezalako oihuak?

Non beste batzuk ipintzera derrigortuak ikusten zirenean sortzen ziren bandera gerrak?

Non gure Elgoibarko Mandelak iragartzen zuen fase politiko berrirako desobedientzia zibila?

Non ote Telesforo Monzón "zuek utopikook zarete herriaren etorkizuna" esaten?

Hemen eta orain ez dago ez utopiarik, are gutxiago, sozialismorik, ezta independentzia, amnistia edo negoziaziorik ere.

Gorenean dagoena, ordea, ezker abertzaleak ipinitako bandera espainiarra da.

Azken 50 urteotako historiak demostratzen digu borrokak euskal kausa nazionalari kalte besterik ez diola egin.

Horregatik, EAJkook, eurak bezalakoak bagina, erabat zilegiztatuak geundeke "¡Bildu español!" esateko.

Baina eurak modukoak ez garenez, beti bezala jarraituko dugu: isilik, eta aurrera.

## Eskerrik asko, Komalingua

**Aitor Biain Umerez**
Oñati

Eskertu egin nahi dut Komalinguan ematen den laguntza eta arreta edozein integratua senti dadin, eta berak nahi dituen helburuak lortzeko ipintzen diren bitartekoak onak direla adierazi.

Nik beraien laguntzaz atera dut alemaneko titulua eta orain beste bat ateratzen ari naiz.

Irakasle onak dituzte behar den arreta eskaintzeko. Hemengo irakasleak hezten diren eskoletan ere horrela irakats dezaten lan egin behar da.

Ez dago ondo gutxituak baztertuta uztea.

Ezin duenari laguntza gehiago ipini behar zaio eta besteei bezala irakatsi.

Bereizi gabe, Alemanian egiten den antzera, denei berdin irakatsi; ahal dutenei, behintzat, bai.

Nik hizkuntzak ikasteko ahalmena izan arren Ikastolan ez zidaten aukerarik eman, eta hori ez da zuzena.

**Debora Nunes** | MSTko Nazio Koordinakundeko kidea

# "Egungo elikadura ereduak munduko kultura eta herri askoren desagertzea ekarri du"

- Datorren astean egingo den Jalgi Hadi Ortura jardunaldietan parte hartuko du
- "Pertsonok, herriok, zer eta nola jan behar dugun erabaki behar dugu", dio

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduko (MST) Nazio Koordinakundeko kide da Debora Nunes. Mundukide eta Lanki erakundeek gobidatuta, Debagoieneko zenbait kooperatibaren jarduna ezagutuko duen ordezkaritza baten parte da hura. Horrez gain, Bergaran, Oñatin, Arrasaten eta Aretxabaletan egin behar diren Jalgi Hadi Ortura jardunaldietan hizlari izango da datorren astean zehar. Gurera egingo duen bisitaren eta MSTk azken hamarkadetan aurrera eraman dituen ekimenen inguruan hitz egin dugu harekin.

**Ze helburu ditu datozen egunotan Debagoienera egin behar duzun bisitak?**

Helburu bikoitza izango du bisitak: alde batetik, bailarako kooperatiben esperientzia ezagutzeko aukera izango dugu, UFFS unibertsitateko lagunekin batera; eta bestetik, Mundukide eta Lanki erakundearekin batera nekazaritza ereduari buruzko hausnarketan parte hartuko dugu. Jalgi Hadi Ortura jardunaldietan, indarrean den nazioarteko nekazaritza produkzio ereduaren inguruan eztabaidatuko dugu.

Nekazaritza eredu kapitalista honek min handia egin die munduko kontinente guztiei, eta guk esperientzia hauek Euskal Herriko eragile eta herritarrekin partekatu nahi ditugu orain. Brasilen, esaterako, latifundioen kontra borroka egitetik teknologia ardatz moduan daukan eredu produktibo baten kontra borroka egitera pasa gara. Guk nahi dugu gizarteak gatazka honetara begira dezala, eta, horretarako, eredu produktiboen inguruko eztabaida zabaldu behar dugu. Elikagaiak ekoizten eta jaten dituztenen arteko harremana aztertu behar dugula uste dut.

**Hau ez da Euskal Herrira zatozen lehen aldia, baina...**

Ez. Mundukiderekin eta Lankirekin elkarlanean gabiltza aspaldidanik MSTko kideak, eta hau ez da haiekin hemen egiten dugun lehenengo topaketa. Euskal Herriak asko dauka Brasili erakusteko, eta alderantziz gauza bera gertatzen dela uste dut.

**Duela hilabete MSTk seigarren kongresu nazionala egin zuen Brasilian. Zer eztabaidatu zenuten bertan?**

Nekazaritza Herri Erreformaren alde datozen urteetan egingo dugun lanaren oinarriak finkatu genituen otsaileko kongresuan. Denbora luzez nekazaritza erreforma klasikoaren alde borrokatu zuen MSTk. Lurren zelanbaiteko demokratizazioa lortu genuen arren, kapital handiak baliabide naturalak ustiatzen jarraitu zuen. Horregatik, benetako nekazaritza erreforma bultzatu nahi dugu orain. Nekazari komunitateek beren lurretan bizi izaten segitzeko baldintzak sortu nahi ditugu; lurren banaketaz gain, nekazarientzat osasun eta hezkuntza sistema egokia aldarrikatzen dugu. Hori lortzeko tresna baliagarri bakarra herri borroka izango dela erabaki genuen kongresuan.

**Erabaki eta egin. Kongresua amaituta, Brasilgo presidentearen etxera joan zineten manifestazioan, eta han harekin biltzea lortu zenuten. Zer esan zizuen Dilma Rousseff presidenteak?**

Kongresuaren aitzakian MSTren 15.000 militante bildu ginen Brasilian. Agendatik kanpo zegoen arren, gure militanteek presidentearekin bildu nahi zuten; eta, horren harira, Gobernuaren erabakiak kritikatzen zituen gutun publikoa igorri genion. Ondoren, manifestazioa egin genuen, eta Rouseffek gurekin biltzea onartu zuen azkenean.

Bileran, MSTren proposamenak azaldu genizkion presidenteari; nekazaritza-guneetan bizi diren familien ingurukoak. Hau da, Nekazaritza Herri Erreformari buruzkoak. Hauez gain, nekazaritza asentamentuen egituratzeari berehala ekiteko eskatu genion. Asentamentu hauek oinarrizko gizarte eta ekoizpen baliabideak behar dituzte, eta, zalantza barik, Gobernuak egiten duena baino askoz gehiago egin dezake euren ongizatearen alde.

Rouseffi mezu argia eman nahi genion honen harira: ez diogu borrokatzeari sekula utziko. Ez, behintzat, gure helburu guztiak betetzea lortzen dugun momentura arte.

**MSTk 30 urte egin ditu borrokan. Zeintzuk izan dira bere lorpen garrantzitsuenak?**

Beharbada, gure garaipen handiena 30 urte betetzea izan da [Barre]. Denbora honen guztiaren ostean borrokan jarraitzen dugu, eta ez da gutxi. Nekazaritza-guneetako pobreak antolatzea lortu dugu, gainera, eta poliki-poliki etorkizun bat marraztu dugu haiekin batera. 30 urteotako borrokaren ostean, lur asko publiko egin dira berriz Brasilen, eta hori gure eguneroko jardunaren ondorio da, zalantza barik.

Hau esanda, ezin dugu ahaztu aurretik lan asko daukagula oraindik. Asentamentuetatik kanpo bizi den familia ugari dago oraindik, eta haien alde borrokan jarraitu behar du gure erakundeak. Etorkizunean azalduko diren erronka berriei erantzunak emateko gai izan behar du MSTk. Emakumeen parte hartzea sustatu behar dugu, nazioarteko eragileekin elkarlana bultzatu... Ezin gara geldi egon.

**Euskal Herrira bueltatuta, esan behar da Jalgi Hadi Ortura jardunaldietan parte hartuko duzula. Zertaz hitz egingo duzu datorren astean egingo den hitzaldi sorta horretan?**

Ekofeminismoa eta elikadura burujabetza izango dira jardunaldi horien ardatz nagusiak. Kapitalak guztia eraldatu du, baita elikatzeko orain arte izan dugun eredua ere. Horrek arazo ugari ekarri dizkigu guztioi. Milaka urteetan zehar eraikitako elikadura ohiturak suntsitu ditu, eta, horren ondorioz, baita gizakiok lurrarekin daukagun harremana ere. Pertsonok, herriok, zer eta nola jan nahi dugun erabaki behar dugu etorkizunean.

Egungo elikadura ereduak kultura eta herri askoren suntsipena ekarri du, eta orain, horren aurreko alternatibak eraiki behar ditugu guztion artean. Lan horretan, emakumeak nekazaritza komunitateetan historikoki izan duen garrantzia berreskuratu behar du. Emakumeak elikadura burujabetzaren aldeko aldarriari heldu behar dio eta lurrarekin harreman berriak eraiki behar ditu, gainera. Ideia horien gainean jardungo dugu jardunaldietan.




Debora Nunes, Arrasaten, Kulturaten. | MIKEL ARREGI

> **"Elikagaiak ekoizten eta jaten ditugunon arteko harremana aztertu behar dugu"**

> **"Rouseffi mezua eman genion: ez diogu borrokatzeari sekula utziko"**

> **"MSTren garaipen garrantzitsuena, beharbada, 30 urte betezea izan da"**

> **"Kapitalak guztia eraldatu du, baita elikatzeko izan dugun eredua ere"**

# HERRIAK

ARRASATE

# Herriko ondarearen defentsan, ekintzak areagotzen dabil AZE

- Azken aste honetan, Aprendizen Eskolan zeuden brontzezko letrak batu dituzte
- Arrasateko ondare historikoarenganako utzikeria dagoela salatu dute elkarteko kideek

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Herriko ondareagatik kezkatuta dabiltza azkenaldian Arrasate Zientzia Elkarteko kideak. Joan den astean, Garagartzan dagoen Barrenatxo errota zaharra berritzeko eskatu zioten, beste behin, Udalari; eta honetan, aldiz, Aprendizen Eskola zaharrean izan diren lapurretak salatu dituzte. "Arrasaten, ondare historikoarenganako utzikeria handia dago oraindik", dio AZEko kide Xabier Bengoak. Ildo berari eusten dio Jose Angel Barrutiabengoak: "Inguruko herriek guk baino askoz kontzientzia handiagoa daukate, eta hori Bergaran eta Oñatin, besteak beste, erraz ikus dezakegu".

Urte askotako geldialdiaren ostean, 2012ko urtarrilean ekin zion berriz bere ibilbideari AZEk. Ordutik hona, Arrasateko kultura eta natura ondarearen alde lanean dabil elkartea; ikerketak eginez, artxibo lanetan, erakusketak antolatzen eta liburuak argitaratzen. "23 bazkide ditu egun elkarteak", dio Bengoak, nahiz eta "etorkizunean herritar gehiagoren laguntza" izan gurako luketela onartzen duen.



Barrutiabengoa, Bengoa eta Garai Ferrerias kaleko eraikin zaharrean. | MIKEL ARREGI



AZEko kideak Aprendizen Eskolako letrak batzen. | AZE

### Aprendizen Eskola

Elkarteak joan den zapatuan egin zuen azkeneko ekintza. "Urriaren 27an Aprendizen Eskolako brontzezko hiru letra ostu zituzten, eta joan den egubakoitzean letra horiek lapurtzen saiatu ziren berriz", diote, kezkatuta. Hori ikusita, Udaltzaingoan salaketa jarri eta gero, eraikin zaharraren aurrealdean gelditzen ziren letrak berreskuratu zituzten AZEko zenbait kidek.

"Arrasatearrok ez dakigu zer daukagun Aprendizen Eskolan", dio Barrutiabengoak. Hasiera baten biltegi izan zen eraikina 1939an zabaldu zuen eskola moduan Union Cerrajerak. Aprendizen Eskola, lantegiak behar zituen profesionalen eskola izateaz aparte, kooperatibagintzaren sustatzaile garrantzitsu ere izan zen bere garaian.

Gainera, AZEko kideek uste dute Arrasateko industriaren hazi izandako Olazar olaren hondakinak bertan daudela. "Olazar ola izan zen Union Cerrajera eta ondoren etorri zen industria guztiaren hazia", diote. Aprendizen Eskolak Arrasateren ibilbide historikoa erakusten du, haien ustez. "Erdi Aroan jauntxo asko zeuden inguruko herrietan, Bergaran eta Oñatin, batez ere; Arrasaten, berriz, meatzariak ginen, eta mendeetan zehar langile izaera hori garatzen joan gara", dio Barrutiabengoak.

Hark aipatzen duen langile izaera horren erakusgarri da Aprendizen Eskola. "Olazartik Cerrajerara eta Cerrajeratik kooperatibarako jauzia islatzen du erakinak; XIX. mendea XX.arekin eta XXI.arekin lotzen ditu", dio. Bada, herriak duen langile iragana ikusita, Aprendizen Eskola eta halako eraikinak turismo industriala sustatzeko aprobetxa daitezkeela uste dute.

### Proiektu berriak

Baina momentuan sortzen zaizkien ekintzetatik aparte, epe luzeko proiektuetan ere lanean dabiltza Arrasate Zientzia Elkarteko lagunak. Azken asteetan, esaterako, hainbat herritarrek eman dizkieten argazkiekin lanean dabiltza elkarteak Ferrerias kalean duen lokalean. AZEk argazki zaharrez osatutako fondoa osatu nahi du argazki horiekin: "Herriko hainbat leku eta garaitako argazkiak dauzkagu; gehienak hainbat jai eta ospakizunetakoak dira eta balio historiko handia daukate", dio Bengoak. Behin fondoa osatuta, argazkiak Interneten jartzea da haien asmoa.

Hori ez da, baina, AZEk esku artean daukan proiektu bakarra. Joan den urtean, *Zezen festak Arrasaten* erakusketa antolatu zuen elkarteak San Juanen bueltan. 2.500 herritarrek bisitatu zuten erakusketa. Arrakasta ikusita, aurten esperientzia errepikatzeko asmotan dira AZEkoak, eta, horretarako, hainbat elementu historiko batzen ari dira. Elkarteko kideek oraindik ez dute erakusketaren gaia aditzera eman nahi izan, nahiz eta iazko erakusketaren antzekoa izango dela aurreratu duten.

Horrez gain, Esteban Garibai historialari arrasatearrari omenaldia egin nahi dio AZEk datozen hilabeteetan.

ESANAK

**"Mendeetan zehar langile izaera garatu du Arrasatek"**

JOSE ANGEL BARRUTIABENGOA
AZE-KO KIDEA

**"Herritar gehiagoren laguntza izan nahiko genuke"**

XABIER BENGOA
AZE-KO KIDEA

## Indusketak batzokian

Aranzadi Elkarteko arkeologoak Erdi Aroko aztarnen bila dabiltza Arrasateko batzokiko terrazan. Duela astebete egin zuten lurren lehen ikuskapena eta atzo ekin zioten indusketa lanari.

Aranzadiko arkeologo Alfredo Morazak dio lur horietan "XVI edo XVII. mendeko errementari baten" aztarnak egon daitezkeela. Lehenengo zundaketetan buztina aurkitu du arkeologo taldeak, eta lur horiek dauden lekuan burdina landu zela adierazten duela diote. Datorren astera arte iraungo duten lanetan hipotesi horiek baieztatu egingo dituztela uste du Morazak.

Batzokiaren eta abade etxearen artean dagoen lur eremua interes handikoa dela dio arkeologo taldeak. Arrasateko harresiaren aztarnen bila, 1991n egin zituen Aranzadik lehenengo indusketak Arrasateko lur horietan.


Otsaileko baserritarren azokan zuhaitz feria berezia egin zuten. | IMANOL SORIANO

# Babarrun lehiaketa bihar baserritarren azokan

Hamar elkarte gastronomikok hartuko dute parte; gero, dastatzea egongo da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Martxoko baserritarren azokan, ohiko postuez gain, babarrun lehiaketa izango da protagonista. SUDCeko hamar elkarte gastronomikok hartuko dute parte lehiaketan: "Babarrunak Ikutixo baserrikoak izango dira, 25 bat kilo banatuko dira. Gero, dastatzea egingo da; euro eta erdiren truke, babarrunak jan eta ardoa edan ahalko da", adierazi du Deba Garaia Landa Garapenerako elkarteko lehendakari Agurtzane Diazek. Dastatzea gidatzen AEK-ko langileak arituko dira.

Lehiaketak "oso erantzun positiboa" izan duela dio Diazek: "Elkarte gastronomikoen jarrera txalotzekoa da, beti daude gertu laguntzeko". Babarrunak 11:00 aldera ekarriko dituzte, prestatuta. Epaimahaian, Jardunaldi Gastronomikoetan parte hartzen duten bi sukaldari eta bi baserritar egongo dira. Sari banaketa 11:30 inguruan hasiko da eta Inazio Azkarragaurizar alkateak banatuko ditu. Horren ostean hasiko da dastatzea. Beraz, hileroko pintxo dastatzearen ordez babarrunak izango dira protagonista bihar.

**14 postu biharko azokan**

Sasoian sasoiko produktuen kontsumoaren aldeko kanpainaren barruan kokatzen du Udalak babarrunen dastatzea: "Neguko azken azoka denez, udazkenean zein neguan asko erabiltzen den eta oso ezaguna den produktua erabili gura izan dugu. Bide batez, hainbat eragileren parte hartzearekin azoka indartu gura dugu: AEK, elkarte gastronomikoak, Udala, Debagoieneko Turismo Bulegoa eta Landa Garapena...".

Biharko azokan 14 postu elkartuko dira Seber Altube plazan (09:00-14:00), Arrasatekoak, Debagoienekoak zein Euskal Herrikoak. Aipatzekoa da Ane Gorosabel arrasatearrak lehen aldiz hartuko duela parte azoka horretan. Joan den zapatuan emakume artisau eta baserritarren azokan egon zen lehenengoz eta oso pozik dago herritarrek zein beste baserritarrek izandako erantzunarekin. Gainera, Gorosabelen asmoa da astero Azoka Plazan egotea.

ESANAK

**"Hainbat eragileren parte hartzearekin azoka indartu gura dugu"**
MARGA GARMENDIA | UDALA

**"Elkarteen jarrera txalotzekoa da, beti laguntzeko gertu"**
AGURTZANE DIAZ | LANDA GARAPENA ELKARTEA

## Bizkaia etorbidearen gaineko pasabidearen babesak aldatuko dira

Udaleko Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordeak proposatuta, Bizkaia etorbidearen gainetik doan oinezkoendako pasabidean obrak egingo dira. Pasabide horretan dauden alboetako babesak aldatu egingo dira, segurtasuna handitzeko helburuarekin.

Tokiko Gobernu Batzarrak asteon onartu du obra Caldereria Markulete S.L. enpresari esleitzea eta lanak hilabete bateko epean amaitu beharko ditu aipatu enpresak. Asteleheneko batzarrean onartu zenez, obra osoaren aurrekontua izango da 20.759 eurokoa –BEZa barne.

## Fitness festa egingo dute bihar Musakolako kiroldegian, doan

Aukeak fitness festa antolatu du biharko, doan, gura duen edonorendako. Hala, body balance (10:00), body pump (11:00) eta zhumba (12:00) jarduerak probatzeko aukera egongo da bihar goizean Musakolako kiroldegian: "Aurrez komeni da izena ematea, plazak betetzen ari zaizkigu-eta", adierazi du Kirol teknikari Iratxe Aranburuk.

Bestalde, pilatesa ezagutzeko hastapen ikastaroa martxan jarri zuten atzo; azken ikastaro horretan izena eman ez dutenek 943 77 16 77 telefono zenbakian horretarako aukera dute, aurrerantzean egingo diren ikastaroetarako zerrendak osatzen joateko.


Kurtzetxikiko gainetik paraje ederrak ikusten dira. | JOKIN BEREZIARTUA

# Auzolanak egingo dira Kurtzetxikin hilaren 29an

Azaroan bertan behera geratu zen euria zela–eta; izena emateko, deitu 943 79 68 48 telefonora

J.B. | ARRASATE

Udalak aspaldi abiatu zuen Kurtzetxiki balioan jartzeko proiektua. Proiektu horren helburuetako bat da herriko abeltzaintzari "bultzadatxoa" ematea, Kurtzetxikiko larreak herriko baserritarrei utziz ganaduak bertan bazka dezan. Prozesu horretarako auzolana bitarteko egokia dela uste du Bagarak eta, Udalarekin elkarlanean, auzolanerako dei egin dute hilaren 29rako; Bedoñako aparkalekuan elkartuko dira (09:00).

**Hainbat lan egingo dira**

Udaleko Ingurumen teknikari Pello Garaik dioenez, hainbat lan egingo dira hilaren 29an. Batetik, mendiaren goialdeko hamar hektareetan dauden zuhaitzak babestuko dituzte, "itxitura txiki" batzuk jarriz: "Ganaduak zuhaitz adar batzuk jan ditu eta zuhaitzok babestea da asmoa". Era berean, goiko larrean jarri diren itxituretan animaliendako pasabide batzuk ere irekiko dituzte eta baita artadiko bide bat –edo bide zati bat behintzat– berreskuratu ere. Azkenik, Sustraibarri elkartearekin batera, naturako elementuak erabiliz "artelan txiki bat" ere egingo dute.

Bagarako lehen sektorea biziberritzeko lantaldeak bat egiten du Kurtzetxikiko proiektuarekin: "Gure ekarpena auzolanaren bitartez egitea erabaki dugu, bide batez herritarren konpromiso eta babesa ere bilatuz", diote. Auzolanaren antolaketa egokirako, beharrezkoa da antolatzaileendako parte hartzaile kopuru zehatza izatea. Hala, aldez aurretik izena emateko 943 79 68 48 telefono zenbakira deitu behar da.

# Udalekuetarako begirale bila hasi da Txatxilipurdi

J.B. | ARRASATE

Udalekuetarako begiraleen "zerrenda luzea" osatu gura du Txatxilipurdik, eta, horregatik beragatik, deialdia egin dute: "Urtero egin izan dugun bezala, aurten ere, haur eta gaztetxoekin lan egiteko gogoa baduzu, anima eta hurbil zaitez izena ematera", diote.

**Prestakuntza saioa**

Maiatzaren 9a baino lehen bidali behar da curriculuma eta izen-emate fitxa beteta. Era berean, ekainaren 7rako egun osoko formazio saioa antolatu dute eta derrigorrezkoa izango da saio horretara joatea.

Bestalde, izena emateko bete beharreko baldintzak honakoak dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea eta prestakuntza saiora joatea. Era berean, honako irizpideak ere hartuko dira kontuan: begirale titulua izatea, ikasketak, esperientzia, lanerako prestutasuna eta bizilekua. Entregatu beharreko agiriak dira curriculuma, argazki bat, NAren fotokopia, begirale edo zuzendari tituluen kopiak eta izen-emate fitxa zuzen beteta.

Argibide gehiagorako, deitu Txatxilipurdira, 943 79 54 46 telefonora –Maialen eta Arantza dira arduradunak.


Azken udalekuetako apar festa. | J.B.



Otamendi izango da kanpainako harategietako bat. | JOKIN BEREZIARTUA

# Kaleko erosketak etxeko ontziarekin, zaborra murrizteko

Udala, Kutxa Ekogunea, Hondakinen Mahaia eta herriko komertzioak dira kanpainaren eragileak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Dendetan ematen dituzten plastikozko poltsatxoak edo paperplastiko bilgarriak erabili beharrean, kaleko erosketak etxeko tuper edo ontziarekin egitea. Hori da *Ontziratu zaitez, erosketak ganoraz! Erabilizu tuperra!* lelo duen sentsibilizazio kanpaina berriaren oinarria. Udala, Kutxa Ekogunea, Hondakinen Mahaia eta herriko komertzioak izan dira kanpainaren sustatzaileak. Helburua argia da: arrandegi, urdaitegi eta harategietan erosketak egiterakoan sortzen diren hondakinak murriztea.

Hala, beste hainbat herritan martxan dagoen ekimena Arrasatera ere helduko da.

DATUA

**3.000**

ONTZI JARRIKO DIRA SALGAI

Dendetan 3.000 tuper 0,5 eurotan jarriko dira salgai, aleak amaitu arte.

**Sariak, ontziak erabiltzearren**

Kanpainaren eragileek proposatzen dute tuperrak edo ontziak herritarren artean saltzea, 0,5 eurotan, hain zuzen ere. 3.000 ale banatuko dira. Banaketa bi egunean egingo da –ez da zehaztu ze egunetan–, kanpainari lehen bultzada emateko. Ontziak dendetan jarriko dituzte salgai, aleak amaitu arte.

Kontsumitzeko orduan ohitura aldaketa eragitea du helburu ekimenak. Horregatik, erosketak dendetan erositako ontziekin egiteaz aparte, herritarrek etxetik eraman ditzakete. Gero, tuperrarekin egindako erosketa bakoitzeko txartel bat emango zaio bezeroari. Kanpaina martxan jarri eta sei hilabetez sariak banatzea aurreikusten du Udalak. Gero, komertzio bakoitzak erabakiko du kanpainarekin jarraitzen duen edo ez.

Bada, Ingurumen batzordearen proposamena asteon onartu du tokiko gobernu batzarrak; kanpaina osoaren aurrekontua 4.507 euro da.



JOKIN BEREZIARTUA / JOSU ARRIETA

## Kanpai zatia, Kanpatorpe kalera

Susto ederra hartu zuen bikote batek martitzenean, 18:45 aldera, Kanpatorpe kalean. Parrokiako kanpaietako baten mihia ondora erori zitzaien, hiru bat kiloko pieza: "Jende askotxo zebilen, eskerrak ez zuen inor harrapatu...", dio Josu Arrieta lekukoak. Bestalde, Horazio Argarate parrokoak argitu du sustoa eragin zuen kanpaia mezak iragartzeko erabiltzen dela; ordua markatzen dutenak mailu batekin dabiltza: "Palentziako enpresa bat arduratzen da mantentze-lanez; urtean birritan etortzen dira. Oraingoa, baina, urgentzia kasu bat da".





Zuzeneko biziak eman ditu Bitter Honeyk urte hauetan. | PMADRID

# Bitter Honey taldearen agur kontzertua zapatuan

Sei urteko ibilbidea ixteko kontzertu berezia emango du bihar gaztetxean

**MIKEL ARREGI** | ARRASATE

Agur esateko ordua iritsi zaie Bitter Honey talde arrasatearreko lagunei. Sei urteko gorabeheren ostean, betiko izan daitekeen geldialdia egingo du taldeak; eta horren aitzakian kontzertu berezia antolatu du zapaturako.

22:30ean hasita, Bitter Honeyk bere ibilbidean sortu dituen abestien bilduma eskainiko du. Sorpresaz betetako gaua izango da, Bitter Honeykoek inguruan izan dituzten talde eta musikarien laguntza izango baitute gaztetxeko oholtza gainean. Haiekin batera, azken hamarkadetako bertsio ezagunak entzuteko aukera ere izango da gaztetxean Fat Lizzy, Bacon Maiden eta Bitter Sabbath talde arrasatearren eskutik.

### Bi disko eta kontzertu ugari

Bitter Honey 2008an jaio zen Radio Wings taldearen errautsetatik. 70eko hamarkadako rock doinu klasikoak jorratuz, bi disko grabatu ditu taldeak denbora tarte honetan: *Songs of Love and Destruction* 2010ean eta *Synbolized* 2012an. Estudioko lanak egiteaz gain, kontzertu ugari eskaini ditu taldeak. Besteak beste, Madrilgo, Londresko, Bartzelonako eta Vigoko agertokietan izan da, eta zale ugari egin ditu gure mugetatik kanpo.

Orain, taldeko zenbait kide kanpora doazela-eta betiko izan daitekeen geldialdia egingo du Bitter Honeyk.

# Arrasate Literatur Leihaketako lan guztiak batu dituzte

**M.A** | ARRASATE

Gaur bukatu da AEDk duela 27 urtetik antolatzen duen Arrasate Literatur Lehiaketara lanak aurkezteko epea. Aurreko urteetan bezalaxe, aurten ere ipuin, poesia eta bertso paperen lanik onenak sarituko ditu AEDk.

Euskara elkarteko Iñaki Telleriak esandakoaren arabera, aurten beste batzuetan baino lan gutxiago aukeztu dira lehiaketara, 60 inguru. Arrasate Literatur Leihaketak "gaztetxoen artean literatur zaletasuna eta euskarazko sormena bultzatzeko helburua" izaten segitzen duela dio Telleriak, eta herriko ikastetxeekin batera AEDk egindako lana ere azpimarratzen du.

27 urteko ibilbidean aldaketa ugari izan ditu lehiaketak. Hasiera baten Arrasateko herrira mugatzen zen arren, orain Debagoien osora zabaldu da lehiaketa hori. Horrez gain, komikiak aurkezteko aukera ere bazegoen bere garaian, eta, behin sariak banatuta, idazlan irabazleak batzen zituen aldizkaria ere kaleratzen zen.

Denbora honetan, baina, parte hartzaileen profila mantendu egin dela gogorarazten du Telleriak: "Parte hartzaile gehienek ikasleak izaten jarraitzen dute, arrasatearrak eta zati handi baten lehen hezkuntzan dabiltzanak".

### Sari banaketa maiatzean

Behin lan guztiak batuta, maiatzaren 9an emango dute aditzera finalisten zerrenda; eta hilaren 15ean, berriz, sari banaketa egingo dute Kulturateko areto nagusian.



Iazko lehiaketako sari banaketa. | AED



Dragoi taldeko gimnasta gazteenak. | DRAGOI GIMNASIA TALDEA

## Oiartzunen egingo den txapelketan izango dira asteburuan Dragoi taldeko gimnastak

**M.A** | ARRASATE

Oiartzun aldera joango dira asteburu honetan Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeko lagunak. Domekan goizeko hamarretan hasiko den Udaberri torneoko lehen fasean, Arrasatetik joandako alebin, infantil eta kadete mailetako 50 gimnastak hartuko dute parte. Gimnasta arrasatearrak taldeka zein bakarka arituko dira.

Alebin mailan aurkeztuko ditu talde zuri-moreak parte hartzaile gehien. Baloi eta esku librez, Dragoi taldeko 29 kide arituko dira maila horretan. Infantiletan, berriz, uztaiarekin jardungo dute Arrasatetik joango diren 13 gimnastek; eta kadeteetako zortzi lagunek aldiz, sokarekin.

Udaberriko lehiaketa joan den otsailaren 15ean Arrasaten egin zen lehiaketaren ostean dator. Etxeko gimnastek emaitza onak lortu zituzten orduan Uarkape frontoian egindako saioan.

## Bolada onari jarraipena eman nahi dio Mondrak

**M.A** | ARRASATE

Joan den astean Elgoibarri 0-1 irabazi eta gero, garaipenaren bidetik jarraitu nahi du Mondrak asteburu honetan. Helburu hori betetzeko, sailkapenean aurkari zuzen duen Ikasberri talde azpeitiarra mendean hartu beharko du domekan arratsaldeko lau eta erdietan Mojategin jokatuko den partiduan.

Azken jardunaldi gorabeheratsuen ostean, sailkapenaren erdialdean da talde zuri-morea. Gotzon Urzelairen mutilak sailkapeneko zazpigarren postuan dira 37 punturekin. Joan den asteko garaipenaren ostean, zazpi puntura du Mondrak Amaikak Bat liderra, sei puntura Urola bigarren sailkatua eta bost puntura Ordizia hirugarren sailkatua.

## Lehen fasea bukatuta, Kopa itzuliko da Zaldibarrera

**M.A** | ARRASATE

Zaldibarko areto futbol txapelketako lehen fasea amaituta, Kopako final-zortzirenak eta final-laurdenak jokatuko dira asteburu honetan. Zapatuan lehenengo kaporaketen txanda izango da eta domeka goizean, berriz, final-laurdenak jokatuko dira. Bada, berdinketa kasuan ez da luzapenik izango eta Kopa kanporaketak penalti jaurtiketa bidez erabakiko dira.

Joan den astean bukatu zen liga erregularreko lehen fasea, eta, espero bezala, Cantauri eta Birigarruak izan ziren lehiaketatik kanpo geratu ziren taldeak. Dribling izan da sailkapena lehen postuan amaitu duena eta haren atzetik Aldatz eta Sonografos taldeak sailkatu dira.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Iluntz - Ostantz | 5-3 |
| Aldatz - Abokajarro | 3-0 |
| Birigarruak- Cantauri | 2-4 |
| Sport in tus bragas- Sonografos | 4-7 |
| Dribling- Haizea´s Weah. | 2-5 |
| Lasagabaster - Jibaros | 12-5 |
| Aldatz - Betrayer | 6-5 |
| Abokajarro - Fidel & Discipulos | 2-5 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | J | P |
|---|---|---|---|
| 1 | Dribling | 13 | 30 |
| 2 | Aldatz | 13 | 29 |
| 3 | Sonografos | 13 | 28 |
| 4 | Haizea´s Weah | 13 | 27 |
| 5 | Iluntz | 13 | 26 |
| 6 | Lasagabaster | 13 | 26 |
| 7 | Betrayer | 13 | 23 |
| 8 | Fidel & discipulos | 13 | 17 |
| 9 | Sport in tus bragas | 13 | 16 |
| 10 | Ostantz | 13 | 13 |
| 11 | Abokajarro | 13 | 12 |
| 12 | Jibaros F.C. | 13 | 9 |
| 13 | Cantauri | 13 | 8 |
| 14 | Birigarruak | 13 | 0 |

**PARTIDUAK**

MARTXOAK 15, ZAPATUA

| | |
|---|---|
| 10:00 | Aldatz-Ostantz / **Abokajarro** |
| 11:00 | Abokajarro-Dribling / **1.eko galtz.** |
| 12:00 | Jibaros-Iluntz / **Dribling** |
| 13:00 | Haizea´s -Fidel & / **Birigarruak.** |
| 16:00 | Birigarruak-Lasagabaster / **Sono.** |
| 17:00 | Sport in-Sonografos / **Birigarruak** |

# Labegaraietako kirolgunearen izaerari eutsiz, aisialdi-gune bat egingo dute

Proiektua diseinu fasean dago eta lanak hasi aurretik auzotarrei erakutsiko diete emaitza; udarako prest izatea nahi dute

IMANOL GALLEGO | ARRASATE



Labegaraietako kiroldegiaren eta Deba ibaiaren artean dagoen jolasparkea. | OIHANA ELORTZA

Labegaraieta herriko kirolaren sinonimo da. Bertan hazi dira egun Bergaran dauden kirol talde esanguratsuenak, eta, izaera horri uko egin gabe, Udalak inguruak berrantolatu eta erabilpen zabalagoa eman nahi dio. "Aisialdia garatzeko ekin honetan, kirol jarduerak oso presente egongo dira", dio Leire Iruin zinegotziak. Iruin, Kirol zinegotzi Lauri Askargortarekin batera, proiektua hasieratik kudeatu duten bi ordezkarietako bat da.

"Udala da proiektu honen sustatzailea, baina auzotarrekin eta erabiltzaileekin batera sortutako ideiez jantzi dugu", dio Leire Iruinek. Helburu horren erakusle da duela aste batzuk martxan jarritako txiki txokoa; hori "auzotarrek bultzatutako ideia izan da". Hala ere, Labegaraietako kirolgunean garatu nahi duten proiektua zabalagoa da.

### Bi asmo, gune bakarra

Orain arte, Labegaraietako jolasgunea eta kirolgunea bata bestearen alboan egon arren, ez zuten konexiorik, eta diseinu fasean dagoen proiektu horrekin bi arlo horiek uztartu nahi ditu Udalak. "Aisialdi-gune bat izan arren, bertan jarri nahi diren ziburuak kirol jarduerekin zerikusia izango dute", aurreratu du zinegotziak. Horretarako, Udalak 35.000 euro baino gehiago bideratuko ditu.

Aisialdia eta kirola batuko dituen Labegaraietako gune berri hori, auzotarrek ez ezik, herritar guztiek erabili ahal izango dute: "Bidegorria ondotik pasatzen da eta beste auzo batzuetako herritarrak erraz iristiko dira bertara", azaldu du Iruinek.

### Udarako prest

Bada, data zehaztea zail samarra izango dela aurreratu duten arren, Udaletik azaldu dute lanak uda aurretik bukatu nahi dituztela: "Eguraldi ona hasten denerako martxan eduki nahi dugu gune hori". Hori horrela izan dadin, eta dirua aurrezteko, obra eta zerbitzuetako langileek egingo dituzte Labegaraietako guneko lanak. Edozelan ere, horren aurretik, udal teknikariek garatutako proiektua auzotarrei erakutsiko diete.

## Bizilagunen proposamenak

2013a bukatu baino lehen, aurrekontuak zehazten zebiltzala, Lauri Askargorta eta Leire Iruin auzokoekin batu ziren, haien eskaera eta ekarpenak jasotzeko. Haiek gaztetxoendako jolasguneaz aritu ziren, eta, ziburu berriak eskatzeaz gain, tirolina bat jartzea ere proposatu zuten. Bizilagun batek hauxe aipatu zuen: "Oso garestia izango dela jakin arren, Guggenheim ondoko jolasparkea izan genuen buruan ekarpenak egiteko orduan".

Parte hartze prozesu horri esker, bizilagunen proposamenak jasotzeaz gain, gune berean Beti-Busti taldekoak ere aritzen direnez, haiekin ere batu ziren udal ordezkariak.

## Pol-Poleko beteranoek eta eski sailekoek irteera erakargarriak antolatu dituzte martxorako

Bergarako Pol-Pol mendizale taldeko beteranoek Berrobitik Berastegira egingo dute irteera martxoan. Bestalde, mendiko eski sailekok Val d'Aranera egingo dute irteera. Beteranoena hilaren 23an izango da eta txartelak bulegoan eskura daitezke 20 euroren truke. Eski irteera, berriz, 22an eta 23an izango da eta joan nahi duenak martxoaren 18a baino lehen eman beharko du izena (martitzena).

## Gaur irekiko dute merkatuko eta merkatu txikiko tasen lehen hiruhileko ordainagiriak pagatzeko epea

Merkatuko eta merkatu txikiko tasen lehen hiruhileko ordainagiriak gaurtik maiatzaren 14ra bitartean pagatu beharko dira. Helbideratutako ordainagiriak zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira maiatzaren 14an. Helbideratu gabeko ordainagiriak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko dira.

## Goienerko kide Alberto Bezunarteak pobrezia energetikoari buruzko hitzaldia egingo du

Erkidegoan 18.500 familiak ezin diote eutsi etxebizitzan tenperatura egokiari, eta, krisiaren ondorioz, txirotasun energetikoak gora egin du. Bada, Goienerko bazkide-promotore Alberto Bezunarteak hitzaldia egingo du martxoaren 20an, 19:30ean, kultura etxean. Bertan, bere enpresak bultzatzen duen eredu energetiko berriaz mintzatuko da.

## Screamers and Sinners taldeak kontzertua eginda aurkeztuko du azken lana Laino skate parkean

Screamers and Sinners boskoteak orain dela hilabete kaleratu zuen *Demon Tales* lana aurkezten segitzen du eta gaur 22:30ean Lainon eskainiko dute kontzertua. Talde gaztea da Screamers and Sinners, baina kideak eskarmentu handiko musikariak dira. Bada, gaur gauean, horren ezagun egin dituzten kasta eta energia erakutsiko dute taula gainean.

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! 2014
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Martxoak 26 eta 27an;
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak




www.facebook.com/goiazdebagoiena
www.twitter.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa ekintzailea

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

## "Ikasleen eta enpresen arteko harremanari esker, lan mundua gertuago dugu"

Belen Gonzalez ondarrutarrak Gizarte Integrazioa ikasten dihardu Bergarako Mariaren Lagundia ikastolan. Aurretik, Erizain Laguntzaile ikasketak egin zituen Ondarroan. Oposizioa atera eta lan egin eta gero, ikasten jarraitu nahi du; haren helburua unibertsitatera heltzea da.



**Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?**

DBHko titulua ateratzean ezagutu nuen. Erizaintzak betidanik erakarri izan nau, eta, titulua eskuratu ostean, praktikei esker, lana lortu nuen. Oposizioak ere egin nituen, baina langabezian geratu eta ikasten jarraitzea erabaki dut.

**Zure inguruan ongi hartu zuten Lanbide Heziketa ikasteko erabakia?**

Gazte hasi nintzen lanean, eta beti nahi izan dut ikasteko gogoa. Lagunen batek erotuta ote nengoen galdetu zidan, baina, oro har, ikastera animatu nininduten. Gustura nabil, eta, Erizain Laguntzaile zikloaren ondoren, Erizaintza ikastea da nire helburua.

**Erdi mailako zikloaren eta goi mailako zikloaren arteko ezberdintasunik badago? Zer aldatuko zenuke?**

Ez dago alde handirik, antzekoak dira biak, baina goi maila teorikoagoa da. Nire kasuan, informatika eskolak falta zaizkit eta derrigorrezko asistentziak asko mugatzen nau. Bi seme-alaba ditut, eta, ezbeharren bat gertatuz gero, ez da erraza izaten. Ulertzen dut gazteekiko horrelako neurriak hartzea, baina niretzat oztopo bat besterik ez da.

**Zein izan dira Lanbide Heziketaren onurak eta alde txarrak?**

Aspektu positiboak baino ez zaizkit burutzen. Ikasleen eta enpresen arteko harremanari esker, lan mundua gertuago dugu; horrek praktiketako exijentzia maila ere jasotzen du. Praktiketan Mendaroko Ospitalean egindako lanari esker lortu nuen lana. Gizarte Integrazioan kasu praktikoen falta sumatzen dut, baina sormenari esker egiten ditugu ariketa asko, eta horrela ere asko ikasten da.

**Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?**

Unibertsitaterako sarbide-proba prestatu eta erizaina izatea da nire helburua. Hurrengo bi urteetan gizarte integratzaile izateko ikasiko dut, arlo honetan ere gaixoei laguntzeko. Epe laburrean, baina, unibertsitatera saltoa eman nahi dut. Nire ametsa, bai profesionalki baita pertsonalki ere, erizaina izatea da.

# Oxirondo azokako ludoteka definitzen hasteko lehen saioa

Zapatu goizeko saioan, han landuko den hezkuntza ereduaz hitz egingo da

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Oxirondo azokako bigarren solairuan 0-12 urte bitarteko haurrentzat aisialdigune edo ludoteka handi bat egokitzeko prozesua martxan da. Udaletik esan dutenez, gaztetxoen aisialdigune berri hori 2015eko urtarrilean erabilgarri egongo dela aurreikusten da. *Azoka Bergaratzen* prozesuaren baitan herritarrekin batera gune horren izaeraz eta antolaketaz hausnartu nahi da. Hala, Bagarak kudeatu eta gidatutako azpiprozesu bat diseinatu ostean, hura praktikan jartzeko unea iritsi da.

**Lehen saioa zapatuan**

Goizeko hamarretan Zabalotegin egingo den saioan, espazio fisikoaz haratago aisialdian haur eta gaztetxoekin landu nahi den hezkuntza ereduaren gainean hausnartuko da.

Horretarako, bi elementu konbinatuko dituzte: alde batetik, gaia landu dutenen azalpenak entzuteko aukera izango da; eta bestetik, horretan aritzen direnen esperientziak ezagutzeko aukera egongo da. Adituak eta arituak, teoria zein praktikatik eratorritako hausnarketak konpartituko dira.

Azkenik, talde dinamiken bidez, parte-hartzaileen ekarpen eta iritziak jaso eta landuko dira. Ondoren, eztabaidarako tartea zabalduko da. Saioak irauten duen bitartean zaintza zerbitzua egongo da Zabalotegiko txiki txokoan. Dena den, haur txiki-txikiak dituzten gurasoek saiora ekar ditzakete. Saioa euskaraz izango da, baina itzulpen zerbitzua ere egongo da. Parte hartu gura duzuenok *gazteria@bergara.net* helbidean eman dezakezue izena.



Azokako eraikinaren bigarren soilairuan jarriko dute aisialdigune berria. | GOIENA

**ARIANNE KAREAGA** | BERGARATZEN PROZESUKO UDAL ARDURADUNA

## "Udala da sustatzailea, baina herritarren ideiekin garatuko dugu Oxirondo azoka"

Azoka biziberritzeko prozesua martxan da. Horretarako, Udalak, Bagararen laguntzarekin, prozesu parte hartzaile bat baino gehiago, prozesu ekintzaile bat abiarazi du. Bihar, azokan jarriko den aisialdigunean zeresana duten aditu eta arituekin batuko dira guraso eta aisialdiko hezitzaileak.

**Nolako jardunaldia izango da?**

Goizeko hamarretan ekingo diogu, lehen zatian aditu ezberdinek herri hezitzaileaz eta aisialdi ereduez jardungo dute; ondoren, guraso eta bertaratzen direnen txanda izango da. Denon artean aisialdi ereduaz eta hezkuntzaz orokorrean hausnartzea dugu helburu.

**Zein izango da lehen bilera honetako gai nagusia?**

Hemen, azokako espazioan edo gunean fokua jarri beharrean, edukiaz hitz egingo dugu. Aisialdiguneko espazioa antolatu aurretik bertan herritarrek nahi duten hezkuntza eredua definitu beharra dagoela uste dugu, birpentsatu, eztabaidatu eta adostu.

**Oxirondo azoka biziberritzeko proiektua, baina, askoz zabalagoa da. Hiru azpisail ditu, ezta?**

Batetik, azokari berari, eraikinari eta merkataritza–guneari ematen zaion erabilera aztertu eta indartu nahi dugu; bestetik, lehen sektoreari bultzada eman; eta azkenik, aisialdigune berritzailea sortu.

**Parte hartzea bileretara mugatuko da?**



GOIENA

Bileren bidez zehaztuko dira aurrera eroan beharreko dinamikak, baina hauek ez dira txosten batean geratuko; ahal den neurrian, ideiak martxan jarri nahi ditugu paraleloan. Hori da prozesuaren berezitasun nagusia, parte hartzen dutenek Udalaren laguntzarekin euren ideiak garatzeko aukera izango dute. Udalak sustatzaile lana egingo du, baina herritarren ideiekin garatuko dugu azoka berria.

**Atzo herriko merkatariekin batu zineten.**

Saio irekiko ordutegia eurentzat ez zen egokia, eta horregatik sortu genuen bilera hau. Azoka indartzeak Bergarako merkatariek dituzten helburuekin bat egiten duela uste dugu. Tokiko ekonomiaren eragileak izanik, eurak eta euren iritziak kontuan hartzea garrantzitsua da..

# Udalak positibotzat jo du gaikako hondakin bilketak egindako ibilbidea

Aurrerantzean, era desegokian ateratako hondakin poltsak ez dira jasoko

**I.G.** | BERGARA

Hilabete pasatu da Bergaran hondakin bilketarako sistema mistoa martxan jarri zenetik eta lehen 30 egun hauetako irakurketa positiboa egin du Udalak. Horrela, bada, bergararrei eskertu nahi die sistema berrira egokitzeko egin duten ahalegina. "Gure ingurumenak eta etorkizuneko belaunaldiek ere eskertuko dutelakoan gaude", azaldu dute Udaletik.

Gai bakoitzeko bilketa datu zehatzak eskuratu bitartean, Udalak adierazi du, oro har, herritarrek bete dituztela hondakinak uzteko irizpideak. Horri esker, gaika bildutako hondakinen kalitatea bermatu da eta Bergaran bereizita batu diren hondakinek beren ibilbidea egin dute inongo oztoporik gabe.

Ean bezala, datu bilketa zehatzak izan bezain pronto jakinaraziko dituzte, baina dagoeneko aurreratu dituzte bi: errefusari dagokionez, 45.940 kilo jaso dira otsailean, iazko hilabete berean baino 250.615 kilo gutxiago. Iaz 296.555 kilo batu ziren; beraz, %84,5 jaitsi da errefus kopurua, Udalak emandako datuen arabera. Organikoari dagokionez, 88.710 kilo batu dira otsailean.

**Hobetzeko arloak**

Edonola ere, badira hobetzekoak Udalaren esanetan: horien artean dago "bizilagun batzuek lekuz kanpo, orduz kanpo eta poltsetan utzi izana euren hondakinak, batez ere hondakinak gaika biltzeko edukiontzien inguruan, lurrean". Horrek, batetik, hondakin biltzaileen lana zaildu du Udaletik aurreratu dutenez, horiek ere jaso behar izan dituztelako, eta, barruan zer zegoen jakitea ezinezkoa zenez, guztiak errefus legez tratatu behar izan dira. Gainera, lekuz kanpo utzitako poltsa horiek animaliekin arazoak sortu dituzte.

Jokabide ezegoki horiek bukatzeko, bi neurri hartuko dituzte Udalak eta Mankomunitateak: batetik, aurrerantzean, ez dira jasoko desegoki ateratako hondakin poltsak, eta, hain zuzen, jarrera desegokia salatuz pegatina bat jarriko zaie; bestetik, hondakinak era desegokian ateratzen dituzten bizilagunei txostena ireki eta jarraipen pertsonala egingo zaie.

**Lehenengo informazioa**

Behin baino gehiagotan ordezkariek azaldu duten moduan, isunetara iritsi aurretik, informazio gehiago eta pertsonalagoa ematen saiatuko dira. Ohitura desegoki horiek hartu dituzten herritarrei ere dei egingo zaie hondakinak dagokion ordutegi, egutegi eta formatuan ateratzeko eskatuz. Horretarako laguntza behar badute Hondakin Bilketa Selektiboko Informazio Bulegoarekin kontaktuan jartzera gonbidatzen ditu Udalak, bertako informatzaileak herritarrei laguntzeko baitaude.

Udaletik hauxe zehaztu dute: "Denon inplikazioarekin eta elkarren eskubideak errespetatuta lortuko dugu Bergara guztiok nahi dugun bizileku atsegina izatea".

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

## OHARRAK

**KATALUNIARA TXANGOA**

San Joxepe elkarteak irailaren 17tik 23ra Kataluniara egingo duen bidaian izena emateko epea zabalik dago.

**62KOEN KINTADA**

Martxoaren 29an, 12:00etan, azokan elkartu eta sagardotegi batera joango dira. Izena ematean 10 euro aurreratu beharko dira Ariznoa edo Deportibo tabernetan martxoaren 22a baino lehen.

# "Gezurrez baliatzea" egotzi diote alkateari

Bergara Garbiaren, EAJren eta PSE-EEren ustez, Bilduk hasieratik jarri nahi izan ditu zintzilikarioak

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Hondakinen bilketarako sistema mistoa martxan jarri osteko biharamunean, Leire Iruin zinegotziak "pozik" zegoela adierazi zuen bilketari buruzko daturik eman gabe. Bergara Garbia plataformak, EAJk eta PSE-EEk igorritako prentsa oharrean diote atez ateko sistema jarri duten beste udalerrietan tokian tokiko gobernuek Bergarako gobernuak baino balorazio baikorragoak egin dituztela. Datu eskasia horren aurrean zalantzan jartzen dituzte gobernu taldeko kideek egindako balorazioak.

Horretaz gain, Jaione Isazelaia alkateak Goiena telebistako *Harira* saioan eta *Goiena* paperean jasotako baieztapen bat gezurtzat jo dute.

**"Alkateak gezurra esan du"**

Hain zuzen, Isazelaia alkateak *Harira* saioan egindako elkarrizketan esan zuen Arrasaten jarriko den edukiontzi bidezko bilketa jartzeko aukera helarazi zietela oposizioko taldeei, baina ez zirela akordiora iristeko gai izan.

Bergara Garbiak, EAJk eta PSE-EEk hauxe ere badiote: "Hasieratik jarri nahi izan dituzte txintxilikarioak. Negoziaketak hasterako jada erosiak eta prestatuak zituzten materialak Bergarako lokal batean". Horregatik, alkatearen adierazpenek sostengurik ez dutela diote: "Alkateak adierazi moduan, nonbait Udal Gobernua prest bazegoen 5. edukiontzia jartzeko, Arrasaten bezala, nola uler daiteke orduan ez jarri izana?".

Oharraren hiru sinatzaileek gaineratu dute horixe bera eskatu dutela behin eta berriz, bai hondakinen mahaian, baita publikoki ere, eta orain alkateak informazioa manipulatu besterik ez duela nahi. Adierazi dute gauza bera eskatu dutela bergararrek sinaduren bitartez, balkoietan poltsak ipiniz eta manifestazio, kontzentrazio eta herri kontsultaren bidez. "Alkate andreak herritarren gehiengoa aurka duela jakinda ere, beste aldera begiratu du bere erabaki politikoa inposatu ahal izateko", diote.

**"Inposatutako sistema"**

Adierazi dute Bilduk atez ateko sistema inposatzea erabaki zuela, eta orain erabaki horrek ekar ditzakeen ondorio guztiekin kontsekuenteak izan beharko dutela.

Bukatzeko, Jaione Isazelaia alkateari eskatu diote "gezurrik ez esateko, atez ateko sistema alde batera uzteko eta Arrasaten ezarriko duten sistema bera martxan jartzeko hondakin bilketa osoa edukiontzi bidez egiteko".

## LABEGARAIETA

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Diego Valor - Brunet | 3-0 |
| Brunet - Beti Jai | 0-3 |
| Beti Jai - Birgerias | 2-4 |
| Komando Piperrak - Irama Elgeta | Bertan behera |
| Minimou Taldie - Poteo Izarrak | 6-5 |

**SAILKAPENA**

| TALDEA | P | J |
|---|---|---|
| 1 Diego Valor | 44 | 17 |
| 2 Minimou Taldie | 42 | 17 |
| 3 Poteo Izarrak | 41 | 17 |
| 4 T.C.C. | 24 | 16 |
| 5 Komando Piperrak | 21 | 17 |
| 6 Red Piranhas | 18 | 14 |
| 7 Brunet | 17 | 17 |
| 8 Irama Elgeta | 17 | 17 |
| 9 Beti Jai | 15 | 17 |
| 10 Birgerias | 9 | 17 |

**PARTIDUAK**

MARTXOAK 15, ZAPATUA

| | | |
|---|---|---|
| 16:00 | Irama Elgeta - T.C.C. / | Beti Jai |
| 17:00 | Komando Piperrak - Beti Jai / | T.C.C. |
| 18:00 | Brunet - Biregerias / | Minimou Taldie |
| 19:00 | Minimou Taldie - Dieo Valor / | Brunet |



Txantxiku Ikastolako autobusa, ikasleak jasotzen. | JULEN IRIONDO

# 'Eskola-bus'-a probatzen hasiko dira maiatzean

Ikastolako eta Elkar Heziko ikasleek autobusa partekatuko dute, "ibilbideak arrazionalizatzeko"

**JULEN IRIONDO** | OÑATI

Herriko hiru ikastetxeak eta Udala partaide dituen Hezkuntza Mahaiak bultzatutako ekimena da. Zentro bakoitzak eskola garraio propioa duela eta ordu bertsuetan, herri-gunean, oso antzerako ibilbideak egiten dituztela ikusita –eta sarri autobusak beteta ez direla joaten–, erabaki zuten "zerbitzua arrazionalizatzeko azterketa" egitea; Udaletik diotenez, orain arteko jarduteko modua "jasangarria ez dela" iruditu zitzaien, ez maila ekonomikoan, ez ingurumenari dagokionez eta ezta mugikortasunaren ikuspegitik ere.

Ordutegiak, ibilbideak, kostuak, erabiltzaile kopuruak, geldialdiak eta abar aztertu ostean, maiatzaren 5etik ikasturte bukaerara egongo da martxan *Eskola bus*-a. Emaitzen arabera, hurrengo kurtsoa modu berri honetan abiatzeko aukera aztertuko dute. Proiektuaren aurreko faseetan hiru ikastetxeek hartu dute parte, baina proba pilotuan ez da jardungo Urgain: "Eskola publikoek ez dute eskumenik garraioari buruz erabakirik hartzeko, beraien garraioa –eguerdikoa kenduta– Hezkuntza Sailak kudeatzen duelako". Hortik, kanpoan geratzea. "Hala eta guztiz ere, interesa agertuz gero, Udala prest legoke, aurrera begira, bide honetan hiru ikastetxeek parte hartzeko moduak bilatzeko", dio Nerea Zubiak, Euskara eta Hezkuntza batzorde buruak.

Zubiaren arabera, proiektuarekin hauek lortu nahi dira zehazki: "Ibilbideak arrazionalizatzea, Txantxiku Ikastolaren autobusaren tamaina txikitzea –erabiltzaile kopuruagatik oso handia da, eta herriguneko hainbat puntutan mugikortasun arazoak sortzen ditu–, ibilgailuen zirkulazioa hobetzea herrian eta, batez ere, ingurumenarekiko ahalik eta errespetu handiena edukitzea".

Honela, neska-mutiko gehien jasotzen dituzten lekuetara bi ikastetxeetako autobusek jarraituko dute joaten, baina beste zenbait lekutara bakarra joango da bakarra joanda –bateko zein bestekoak jasoko ditu–.

Nerea Zubiak dioenez, *Eskola bus* ekimenak lehen urratsa izan nahi du: asmoa da beste proposamen batzuk bultzatzea aurrerago, neska-mutikoak oinez edo bizikletaz joan daitezen, adibidez, ikastetxera.

# Bihar, zapatua, aurkeztuko dute 'Oñati 3zirik' diskoa

**J.I.** | OÑATI

Aurkezpena Antixenako gaztetxean izango da, eta diskoan parte hartu duten bederatzi taldeek joko dute. 18:00etan hasiko da eta sarrerak 4 eurotan salduko dituzte. Kontzertuko sarrerarekin diskoa eskuratu ahal izango da.

*Oñati 3izirik* diskoan parte hartu duten talde guztiak herrikoak dira, eta hasi berri samarrak –edo, behintzat, emanaldi askorik egin gabekoak eta diskorik argitaratu gabeak–. Antixenakoen esanetan, haiei "bozgorailu bat eskaintzea" nahi izan dute ekimen honekin.

Hauek dira parte-hartzaileak: Gela Berezia, Zuen Azkena, Beneh, Obstruccion Nasal, Ander Etxaniz, Buru Hilketa, Gomiztegiko Artzainak, Ixilik eta Aran & Laket.

## Bideoklipa grabatzera joateko gonbidapena Potx eta Motxek

Domekan grabatuko dute Potx eta Motxek euren abestiaren bideoklipa, eta pailazoek gonbidapena egin diete ume eta guraso guztiei grabaketa horretan parte har dezaten. Arratsaldeko bostetan plazan elkartuko dira. Kantuan eta dantzan jardungo dute bertaratzen direnek; lagun piloa batu nahi dituzte.

## Nerea Diaz, Euskal Herriko onena bizkar erako 200 metrokoan

Asteburuan Tolosan jokatutako infantil mailako igeriketa txapelketan, garaipen horretaz gain, zilarra ere lortu zuen 100 metro libreetan eta bizkar erako 100 metrokoan. Eric Ugartek eta Enaitz Ibabek ere lan ona egin zuten, dominarik ez lortu arren. Ibabek bere marka hobetu zuen 400, 200 eta 100 libreetan.

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

**Mikel Biain** | Alkatea

# "Ekainean jarriko dugu martxan moneta soziala herriko dendariekin"

## 60.000 euroko poltsa sortuko da hasiera batean herriko komertzioetan gastatzeko eta dendariek ekintza sozial bat egingo dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Goiena telebistako *Harira* saioan izan da Mikel Biain alkatea. Mugikortasun Foroari, adierazpen libreko guneei eta beste hainbat gairi buruz berba egin zuen. Han esandakoak jaso ditugu elkarrizketa honetan.

**Urtez urte hazten doan herria da Oñati. Zerk bultzatu du biztanleriaren hazkunde hori?**

Biztanleriaren hazkundearen arrazoietako bat da azken urteetan gehiago izan direla jaio direnak (120 ume pasa, gutxi gorabehara urtero) hil direnak baino (100 lagun inguarua urtean). Horrez gain, kanpotik datozen erdiak atzerriko herrialdeetatik etorritakoak dira eta beste erdiak, berriz, Estatutik.

**Turistak ere etortzen dira. Zein puntutan dago Arrikrutz eta Turismo Bulegoa enpresa bakarrak kudeatzeko egitasmoa?**

Orain arte bi esleipen ezberdin egon dira, enpresa banak kudeatu du zerbitzu bakoitza. Guk ikusten dugu ahal den neurrian zerbitzu biek enpresa bakar baten esku egon behar dutela, elkarlana, sinergia eta komunikazioa hobeak direlako horrela.

Lehengo esleipenak ziren 140.000 euro Arrikrutzeko zerbitzuagatik eta beste 70.000 euro inguru Turismo Bulegoagatik. Orain, arrazionalizazioagatik, erabaki da kopuru hori 97.000 eurora jaistea. Biendako. Eta plegu berrietan planteatzen den aldaketa da zerbitzu biak kopuru horretan esleitzea eta diru sarrerak zerbitzua kudeatuko duen enpresarendako izatea, eta ez Udalarendako, lehen bezala.

Plegu berria ahalik eta epe laburrenean egingo dugu. Apirilerako esleituta egotea gurako genuke.

**Urtarrilean eta otsailean itxita egongo dira kobak?**

Bai. Duela bost urte zabaldu ziren kobak eta aurreikuspena zen urtean 45.000 bisitari inguru jasotzea, baina laurdena etortzen da, 12.000 lagun urtean. Taula bat egin genuen ikusteko noiz etortzen den jende gehien eta noiz gutxien, eta erabaki da urteko lehen bi hilabeteetan ixtea. Helburua da Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziari egiten zaion kapital ekarpena txikitzea urterik urte. 360.000 euroko zuloa sortzen du urtean, eta hori txikitzea da asmoa.

**Noizko eta non egingo da autokarabanentzako gunea?**

San Martin gunean jarriko dugu gune hori, baina bi arrazoirengatik atzeratu da: batetik, auzoaren plan partziala aldatu egin delako; eta bestetik, auzo horretako bizilagunek uraren presioarekin arazoak izan dituztelako beti eta hori konpontzen aritu garelako. Umeretzeko depositutik ekarriko da ura, eta lan horiek egiteko horko lursailen jabeekin hitzarmen bat sinatu dugu. Orain plan partziala aldatzeko moduan dago eta hor txertatuko dugu autokarabanen gunea.

Ez da egongo putzu septiko bat, ur zikinak zuzenean joango dira kolektorera eta handik, Epelera. Urte bukaerarako egongo da martxan.

**Langabezia tasa 9,53koa izan da Oñatin otsailean.**

500 pertsona inguru daude lanik gabe Oñatin. Egia da beste herri batzuekin alderatuta egoera hobean gaudela Oñatin, baina langabezia datu onik ez dago. Udalaren eskumenak nahiko mugatuak dira gai honetan, baina ahal duen guztia ari da egiten orain ere.

**Langabeendako programa berezirik badu Udalak? Eta enpresariendako laguntzarik?**

Bai. Aurten hiru enplegu programa egongo dira. Bat martxan dago eta bigarrena oraintxe hasiko da. Baina hau neurri, laguntza, koiuntural bat da.

Guretako garrantzitsua da arazo estrukturalari heltzea. Horregatik, hasieran hartu genuen konpromisoa herriko enpresekin komunikazio bideak zabaltzeko. Joan den urtean, Sozioekonomiako zinegotzi Josu Lizarraldek eta biok herriko hainbat enpresa bisitatu genituen euren arazoak eta kezkak ezagutzeko. Diagnosi bat egin zen eta orain, horren emaitza moduan, herriko hiru enpresatan hiru ikasle hasiko dira euren proiektuak gauzatzen: nazioartekotze prozesuetan aditua bata, planta produktibo berriak diseinatzen beste bat eta ekoizpenen efizientzian aditua dena beste bat. Udalak emandako beka batekin hasiko dira lanean, zazpi hilabetekoa, eta asmoa da negozio bide berriak sortzea.

Enpresek oso ondo baloratu dute ekimena eta Udalak berretsi egiten du euren alde hartutako konpromiso hori.

**Noiz jarriko da martxan moneta soziala? Ze helburu izango du?**

Udalak akordioa egin du Udaleko langileekin euren soldataren zati bat, ehuneko bat, moneta sozialean jasotzeko. Moneta bat,



Mikel Biain alkatea, Goiena telebistako platoan.

### HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

**Olakua auzotik San Martinera doan bidexka txukundu egingo dute?**

"2014ko aurrekontuan 50.000 euro daude gordeta naturguneko bideak konpontzeko. Eta bide hori egiteko izango da diru horren zati bat. Gainera, San Martingo proiektuan bertan jasota dago bide hori egitea, eta egingo da.

Bestalde, San Martinetik bertatik Olapoto izeneko gunera doan baso bide bat ere badago, eta gure asmoa da hori ere konpontzea. Bide biak txukuntzea eta erabilgarri jartzea da gure asmoa".

**Erreka ingurua plastikoz beteta dago; garbitu egingo du Udalak?**

"Ugarkalde eta Olakua auzoetan ez ezik, Kalegoienan eta San Martineko zubi parean ere ikusten da zikina, bai. Landaretza handia da gune horietan eta plastikoak pilatu egin dira.

Egia esan, errekak garbitzeko eskumena bera Jaurlaritzarena da, baina ardura baita Udalarena ere. Hori horrela, lehen era informalean egin eta emaitza onak izan zituen moduan, auzolanean erreka garbitzeko konpromisoa hartu du Udalak".

**Fardel berrerabilgarrien aldeko kanpainarik egingo du Udalak?**

"Udararako kanpaina bat jarriko da martxan fardel berrerabilgarriak erabiltzeko. Mankomunitatea harremanetan dago horretan esperientzia duen enpresa batekin. Hilabete honen bukaeran hasiko gara dena prestatzen eta asmoa da udan jartzea martxan kanpaina. Informazioa emateko eta sistema erabilgarria dela erakusteko kanpaina izango da. Mankomunitateak bultzatuko du eta Oñatira ere helduko da".

**Ugarkaldetik Olabarrietarako bidea noiz egingo da?**

"Herria zeharkatzen duen bidegorri sarea bukatzeko zati hori egitea falta da, bai. Olabarrietako auzo batzarrarekin adostu dugu proiektua aurten bertan enkargatzeko. Hirigintza batzordean onartu da esleipena egitea. Horrez gain, Olabarrieta auzoko Aiastui baserritik auzorako lotura errepide nagusiak oztopatzen du eta jaso dugu aurrekontu bat azpi-paso bat egiteko gune horretan. Eraztun berdea osatuta gelditukoda horrela".

**Zer egin zamalanen ordutegia horretarako soilik izan dadin?**

"Mugikortasun Foroan lantzen ari garen gaia da, egindako bileretan atera da–eta. Kale Zaharrean eta Kale Barrian sortzen da arazo hori, jakitun gara, eta mugatu beharra dago, isunak jartzen diren arren. Gainera, oinezkoen eta bizikletan doazenen arteko elkarbizitza ere arautu beharra dago. Eta horretantxe ari gara orain, tabernari, bizilagun eta dendariekin elkartu eta denon artean guztion elkarbizitza bermatzeko arautegia egiten".



| JAGOBA DOMINGO

euro bat. Parekoak izango dira eta soldataren zati bat eurotan jaso ordez tokiko moneta sozialean jasoko dute.

**Txanpon fisikorik egongo da?**
Bai. Oraindik ez dakigu nolakoa izango den, ezta zein izen izango duen ere, baina egongo da, bai. Bi proposamen ditugu, baina aztertzen ari gara oraindik, ez dugu erabakirik hartu.

**Non erabili ahal izango da moneta soziala? Zertarako?**
Moneta hori Oñatiko komertzioetan gastatu ahal izango da. Herriko dendak programa horretara batu ahal izango dira. Horren abantaila izango da bermatzen dela urtero 60.000 euro inguruko poltsa bat herrian bertan gastatuko dela. Lehen bailarako beste herri batzuetan, Gasteizen, Donostian edo bestelako tokietan gastatzen zena orain herrian gastatuko da. Hori oso garrantzitsua da guretako. Ekainean jarriko dugu martxan eta iraungitze data izango dute.

**Zer egingo dute dendariek jasotzen dituzten moneta sozialekin?**
Moneta soziala da, horren zati bat joango delako merkatariek erabakitzen duten ekintza bat egiteko. Dendari batek 100 euro jasotzen baditu moneta horietan eta udaletxera joaten denean euroengatik trukatzera, 95 euro jasoko ditu. Hortaz, bost euro geldituko dira Udalean gizarte ekintza bat antolatzeko.

**Udaleko langileek ondo hartu dute ideia?**
Bai, oso ondo.

**Beste enpresetara ere zabalduko da egitasmo hori?**
Bai, baina bigarren fase batean landuko da hori. Lehen hartu-emanak egin ditugu enpresa batzuekin, baina bigarren fasean garatuko dugu ildo hori.

Herritarrek ere izango dute aukera proiektu honetan parte hartzeko.

**Korrika egiteko pistarik ez dagoela irakurri diogu duela aste batzuk herriko atleta bati. Egingo da atletismoko pistarik? Noiz?**
Korrika egiteko pista falta dela diote batzuek; beste batzuek, igerileku berriak behar direla, edo kanpoko igerilekua jarri behar dela ere bai beste batzuek. Era guztietako eskariak entzuten dira, baina, zer egin erabaki aurretik, egungo kirol instalazio eta ekipamenduaren azterketa egingo dugu. Zer dagoen ikusita, zeren beharra dagoen ere ikusiko da. Azterketa horrek erakutsiko digu zein eskaerari erantzun.

Ditugun kirol baliabideak ikusi eta ze erabilera maila duten aztertu eta hobetzeko ze aukera dauden neurtu. Lehentasunak finkatu behar dira inbertsioak egin aurretik.

Oraintxe erabaki da ekipamenduaren inguruko azterketa egitea, zer behar dauden ikusteko. Hori izango da gure argazkia, zer egin erabakitzeko.

**"Autokarabanendako gunea urte bukaerarako egongo da prest"**

**"Olabarrietan, Aiastui baserri parean, lur azpiko pasoa egingo da"**

**"San Martinetik Olakuara eta Olapotorako bideak konponduko dira"**

**Zerk du lehentasuna?**
Hasiera baten, ez gara ausartzen esatera zerk duen lehentasuna. Egia da, baina, kiroldegiak urte asko dituela eta batez ere gune hezeak mantentze-lan handiak behar dituela eta epe ertainean erabakiak hartu beharko direla gai horren inguruan.

**Urrutxuku proiektua zertan da?**
Geldi dago proiektu hori. Aurreko legealdiko Gobernuak bazuen proiektu bat Urrutxun, hango unibertsitatearen ingurunean kokatzeko kirol ekipamendua. Proiektu osoak 12 milioi inguruko aurrekontua zuen eta kirol instalazioen guneak bakarrik, sei milioi inguru.

Zigilatze lanak egin dira, baina momentu honetan geldi dago proiektu hori.

**Kale Zaharreko bizilagunak kexatu izan dira tabernetan zarata egoten dela ordutegiz kanpo. Konpondu da arazoa?**
Araututa badago, ordenantza badago. Egia da duela hilabete batzuk normalean baino zarata handiagoak egon direla. Bizilagunak kexatu egin ziren, eta neurriak hartu ziren. Antolatutako bizilagun talde hori nahiko konforme dago hartu diren neurriekin. Orduko momentu tentsuen ostean Udalak erabaki zuen soinu ekipoak eguneratzea, eta gaur-gaurkoz arazo hori konponbidean dago.

**Zortzi hilabete dira atez atekoa jarri zela. Zein da balorazioa?**
Positiboa. Oso gai mediatikoa izan da eta alde horretatik gai kaotikoa izan da. Baina hasieratik saiatu gara herritarrei ahalik eta informazio osatuena ematen eta herritarren jarrera txalotzeko modukoa izan da. Hondakinen %25 sailkatzetik %81 sailkatzera pasa gara. Gure eskumena hondakinen bilketan dago. Garestiagoa da, bai, baina hortik sailkatutako material gehiago lortzeko modua dago, eta horiek salduz sarrerak lortzen dira. Gainera, tratamendu guztiak asko murrizten dira.

**Zertan da Lanbus proiektua?**
Zerbitzu hori bertan behera gelditu zen. Aldundiarekin harremanetan gaude orain lantzadera zerbitzuak aprobetxatzeko Lanbus moduan. Badakigu zerbitzu hori Olakuatik hasiko dela, ez Olabarrietatik. Guk gurako genuke zerbitzu hori egungo lantzaderekin baino autobus txikiago batzuekin eman. Hori da Aldundiari proposatu dioguna. Duela aste batzuk egon ginen eurekin, eta erantzunaren zain gaude.

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

**Lourdes Idoiaga** | EAJko bozeramailea

### "Planifikaziorik eza du Gobernuak"

"Guk ikusten duguna da planifikazio falta duela Gobernuak. Esan gauza bat egingo dela bai, baina garrantzia du hori egiten den eta nola egiten den. Kudeaketa eredua da oker dagoena, ikusten dugu askotan berandu eta gaizki planteatuta datozela hainbat proiektu garrantzitsu. Esan gura duguna da ondo neurtu barik egiten dituela gauzak, kostuak ondo aztertu barik, esaterako. Aurrekontuetara etorriz, 2013koan, esaterako, inbertsioetarako gordetako partidan, agindu zenetik hirutik bi ez ziren bete. Horrek adierazten du presaka eta berandu planifikatzen direla gauzak. Herritarrenganako hartu duten konpromisoa nola gelditzen den ere ikusten da hor".

**▶ ALKATEAREN ERANTZUNA**
"Uste dut oposizioaren estrategia bat dela hori leporatzea, Gipuzkoa mailan Bilduri egiten dioten moduan. Inbertsioen gainean, San Martingo urbanizazioaren aprobetxamenduagatik ezohiko diru sarrera bat egon zen, milioi bat eurokoa. Diru hori gizarte zerbitzuetako baliabide bat eraikitzeko da. Atzegikoekin egon gara, etxe tutelatuen proiektu ezberdinak ikusten egon gara, Aldundiarekin ere bai, herriko adinekoekin ere bai, eta ikusi dugu hausnarketa prozesu bat zabaldu behar dela beharrak ikusteko. Gure konpromisoa da diru hori gordetzea jakin arte ondo zertan inbertitu".

## OPOSIZIOA ALKATEARI GALDEZKA

### Zergatik ez ditu etxebizitza babestuak sartu San Martinen legea alde izanda eta Udalak eskumena edukita sustatzaileekin hori adosteko?

"Eraikuntza enpresekin harremanetan jarri ginenean, EAJren planteamendua izan zen 32 babestutakoak eta 100 libreak izatea. Eta gure planteamendua da denak prezio mugatukoak izatea, babes ofizialeko prezioa bider 1,7, gehienez. Babes ofizialekoak egingo dira Kurterian eta Kurtzekoan ere, esaterako. Gainera, Udalak begirale lanak egingo ditu adostutako hau horrela izan dadin".

### Lehengo adierazpen libreen guneez gain berriak agertu dira toki askotan; denak mantenduko dira? Zer egin behar du Gobernuak?

"Adierazpen moldeen inguruan hausnarketa egin beharra dagoela uste dut. Adieraztea garrantzitsua da eta herria bizirik dagoen seinale da hori, baina garrantzitsua da adierazpen horiek jasangarriak eta eraginkorrak izatea. Eta horren inguruan hausnarketa egin beharra dago. Udalak adierazpen libreko guneen aldeko apustua egin du eta herriko eragileei dei egiten diegu horien erabilera egiteko. Egia da gune horien kontrako jarrerak ere badaudela herrian eta uste dugu eztabaida luzatu behar dela zehazteko gune horiek nahikoak diren edo ez eta erabilera arautu behar den edo ez, esaterako".

# Basotxok 99.000 euroko aurrekontua onartu du

Jose Ignacio Isasmendik hartu du presidente ardura urtebeterako

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Batzar orokorra egin zuen joan den egubakoitzean Basotxo erretiratuen elkarteak, eta 14 bat lagun elkartu ziren. Bazkideak, ostera, 966 dira guztira; 64 urte artekoak 90; 65 eta 75 urte artekoak, 409; 76 eta 85 urte artekoak, 359; eta 85 urtetik gorakoak, 108 (horiek ez dute bazkidetzarik ordaintzen). Emakumeak dira 557 (%57,7) eta gizonezkoak, 409 (%42,3).

Iaz 60.000 euroko aurrekontua izan zuten; aurtengo, ostera, 99.000 eurokoa onartu dute. Horren arrazoia da hiru bidaia luze egingo dituztela, bakarra beharrean. Udaletik jasotzen duten laguntza, ostera, 3.000 eurokoa da, aurrekontuaren %3. Eta bazkide kuotak 8 euro izaten jarraituko du.

**Hiru bidaia luze**

Hainbat hitzaldi iragarri dituzte datozen hilabeteotarako. Atzo, esaterako, memoria lantzeko tailerra aurkeztu zuten, eta, taldea osatuz gero, hemendik eta udara bitartean astero egingo dute ordu eta erdiko saioa. Maiatzean, zahartzaro aktiboaren gaineko hitzaldia izango dute; ekainean, barre-terapia; eta uztailean, botika generikoen gainekoa. Irailean, ostera, kultura astea egingo dute, iaz legez: erakusketa, mendi-ibilaldia, abestaldeen topaketa... Abestaldea, hain zuzen, hainbat herritara joango da kantuan egitera, iaz legez: Bilbo, Gernika...

Bidaiei dagokienez, egun bakarreko bost egingo dituzte abuztura bitartean; tartean, Karrantzara, Errioxara eta Miarritzera. Eta hiru aste ingurukoak: Extremadurara, apirilean; Alemaniara, uztailean; eta Leon eta Zamora ingurura, urrian.

**Zuzendaritza aldaketa**

Batzarrarekin batera zuzendaritza batzordea utzi dute lau kidek eta orain hauek daude: Jose Ignacio Isasmendi, presidentea; Nieves Arana, presidente-ordea; Mariasun Isasmendi, idazkaria; Jose Manuel Garcia, diruzaina; Fortunato Lopez; Kontxi Romano; Jose Ramon Quintanilla; eta Antonio Serrato.



Basotxoko bazkideak joan den egubakoitzean egindako batzarrean. | M.A.

**JOSE IGNACIO ISASMENDI** | PRESIDENTEA

## "Bidaiek arrakasta handia dute; Tolosako Aratusteetara bi autobus joan ginen"



M.A.

Idazkari lanetan jardun du urtebetean eta orain, Agustin Aginagaldek utzitako presidente kargua hartu du.

**Presidente orain?**

Oraindik ez dut hartu kargua. Martxoaren 25ean daukagu batzarra batzordera sartu direnekin eta utzi dutenekin, eta orduan egingo ditugu izendapenak.

**Hiru emakume orain?**

Bai, iaz bakarra zegoen eta orain hiru, berdintasunaren alde gu ere. Gainera, emakumezkoak gehiago dira bazkideen artean.

**Ekintza asko antolatzen dituzue elkartean; zelako erantzuna izan ohi dute?**

Bidaiek arrakasta handia dute; Aratusteetan bi autobus joan ginen Tolosara eta iaz Andaluziara 56 lagun. Hitzaldiek, ostera, gorabehera handiak izaten dituzte. Mendekotasunaren gainean Hector Prietok eman zuenera 70 bat lagun etorri ziren, baina hurrengoan oso gutxi elkartzen gara.

**Hainbat zerbitzu dituzue; bazkideak pozik daude?**

Bai; ile-apaindegia daukagu eta iaz 900 bat zerbitzu eman zituen. Podologoa hilean behin etortzen da eta 15 bat lagun izaten ditu. Eta tabernan antzeko kopurua elkartzen da beti. Azken urtean, behintzat, ez dugu inolako kexarik jaso.

**Eta Udalarekin zelako harremana duzue?**

Gure batzordera Maider Aizkorbe zinegotzia etortzen da, eta pozik gaude. Beste kontu bat da Udaleko gestioa... iazko diru laguntzaren lehen zatia azaroan jaso genuen eta bigarrena oraindik ez dugu jaso.



Durana kalean dagoen informazio-gunea, argazkiaren ezkerraldean. | M.A.

# Atez atekoaren zalantzak argitzeko gunea dago

Eguaztenean, hilaren 19an, egingo dute batzarra industrialdeetakoekin eta merkatariekin

**M.A.** | ARETXABALETA

Durana kaleko 30. atartean dago atez ateko hondakin bilketa sistemaren gainean herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko informazio-gunea (943 54 00 21). Mankomunitateko teknikari bi daude bertan. Hona ordutegia: astelehen eta eguaztenetan 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara eta martitzen, eguen eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara.

**Ekarpenak egiteko tartea**

Astean bukatu dituzte herritarrak informatzeko bilerak, eta horiek, orain, galdera bi erantzun beharko dituzte: batetik, ea konforme dauden zintzilikarioa jartzeko proposatutako kokagunearekin; eta bestetik, paperak eta kartoiak zelan jasoko dituzten, bizilagun bakoitzak berea edo atarte osoak batera. Kokagunearekin konforme ez daudenek beste bat proposatzeko aukera izango dute martxoaren 27a arte.

**Merkatariekin eguaztenean**

Behin herritarrak informatuta, orain merkatariekin eta industria jarduera dutenekin egin gura dute bilera, atez atekoaren berri eman eta zalantzak argitzeko. Eguaztenean da hori, martxoak 19, Arkupen. 11:00etan industrialdeetakoekin elkartuko dira eta 15:00etan gainerakoekin: dendak, ikastetxeak, tabernak eta jatetxeak, elkarte gastronomikoak, bulegoak, industria ez diren negozioak (dentistak...), osasun etxea, adinekoen egoitza, botikak...

## 'Zero zabor'-ekin bat egin duen herritar talde bat atxikimenduak jasotzen dabil

**M.A.** | ARETXABALETA

*Zero zabor*-en alde dauden hainbat herritar Udalak abian jarritako hondakin bilketa sistemaren alde agertu dira eta horren aldeko adierazpena egin dute. Orain, adierazpenaren aldeko atxikimenduak jasotzen dabiltza, eta datorren eguenean, hilak 20, aurkeztuko dute Arkupen (bigarren solairua), 19:00etan.

Adierazpen horretan, hondakinak gutxitu, berrerabili eta birziklatzeko apustua egiten dute herritar horiek, eta orain, beste pauso bat eman eta gaikako bilketa tasak handitzeko asmoa agertu dute. Udalak proposatutako sistema berriarekin "arduraz" jokatu eta "ahalegin" bat egitera animatzen dituzte aretxabaletar guztiak.

## OHARRAK

**IPUIN KONTALARIA BIHAR LIBURUTEGIAN**

Maider Galarraga ipuin kontalariak *Printzesak kontu kontari* saioa eskainiko die neska-mutikoei bihar, liburutegian (11:30). Sarrera debalde da.

**'AGOSTO' FILMA HELDUEK ETA 'VAYA PAVOS' UMEEK**

Helduek *Agosto* (Ameriketako Estatu Batuak, 2013) filma izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). 16 urtetik gorakoei dago gomendatua eta 121 minutu ditu.

Umeek, ostera, *Vaya Pavos* (Ameriketako Estatu Batuak, 2013) marrazki bizidunak izango dituzte bihar eta etzi (17:00).

**PUZGARRIAK BIHAR IBARRA KIROLDEGIAN**

Ibarra kiroldegiko igerilekuan puzgarriak izango dituzte neska-mutikoek bihar arratsaldean. Gainera, igerilekuko begiraleek hainbat jolas proposatuko dizkiete eta askotariko material erabiliko dituzte jolas horiek egiteko.

**GARAIKO ELIKADURAREN GAINEKO BERBALDIA**

Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionista-dietista oñatiarrak garaiko elikaduraren gainean jardungo du martitzenean, hilak 18, Arkupen (19:00).

## Gorputz perkusio ikastaroaren lehen saioa egingo dute bihar Jaikiko kideek

**M.A.** | ARETXABALETA

*Body percussion* edo gorputz perkusio ikastaroari ekingo diote bihar arratsaldean (17:00 -20:00) kuartel zaharrean. Eta Sergio Lopez de Landatxe gasteiztarra izango dute gidari: "Gorputz perkusioa musika espresiobide bat da, instrumentu bakarra gorputza bera izanik", argitu du hark.

Hainbat estilotako eta jatorritako erritmoak landuko dituzte; tartean, sanba, rocka, merengea, funka... "Perkusio mota hori ezagutaraztea da asmoa eta geure gorputzaren ahalmen psikomotorrak ezagutzea saio dibertigarrien bitartez". Koreografia lantxo bat grabatuta bukatuko dute ikastaroa hilaren 29an.

# Ixadebalde azoka postu gehiagorekin eta sekulako merkealdiekin dator bihar

Eguraldi ona bada, Mitarte kalean jarriko dituzte postuak, 12 guztira, eta bestela, Iturrigorri pilotalekuan; taberna ere jarriko dute Aretxarteko kideek

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Zazpigarren merkealdien azoka egingo dute Aretxabaletako merkatariek bihar, martxoak 15. Eguraldi ona eginez gero, Mitarte kalean jarri gura dituzte postuak, eta bestela, Iturrigorri pilotalekuan. 10:00etan zabaldu eta 20:00ak bitartean egongo dira bezeroen zerbitzura.

Aretxarteko kide diren 12 merkatarik jarriko dituzte postuok; hona: Martin oinetakoak; Amaia ume-denda; Brasileña akeita etxea; Kilima ume-denda; Asensio jantzi-denda; Haurrak ume-denda; Gertu janari gertatuak; Belar Meta jantzi-denda; M-5 kirol denda; Titare lentzeria; Mari Merke; eta Zubia oinetakoak. Horiez gain, Aretxarteko kideek taberna ere jarriko dute, eta 18:00etatik 19:30era bitartean edariarekin pintxoa emango dute debalde. Eta umeak asper ez daitezen, tailerrak egingo dituzte 17:30ean. Hori guztia musikak girotuko du.

Gainera, eguna bukatu aurretik 280 euroko balioa duen otarrea zozketatuko dute bezeroen artean.



Iturrigorri pilotalekuan jarritako postuei begira herritarrak. | GOIENA

**Sekulako beherapenak**

Aurreko urteetan baino beranduago dator Ixadebalde eta Aretxarteko kideek badakite herritarrak "zain" dituztela: "Azken asteotan galdezka ditugu", diote. Jantzi-dendek eta oinetako-dendek udazken-negu parteko produktuak jarriko dituzte postuetan herritarren eskura: berokiak, txamarrak, botak... Eta iragarri dute sekulako beherapenak eskainiko dituztela, %40, %50 eta %60 artekoak, hain zuzen. Gainerakoek ere produkturik onenak prezio berezian eskainiko dituzte.

# Aldundiaren udalekuetarako izen-ematea zabalik dago

**M.A.** | ARETXABALETA

Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuetarako izen-emate epea zabalik dago martxoaren 20a bitartean. 7 eta 13 urte arteko neska-mutikoendako dira udalekuok, eta izena emandakoen artean zozketa egingo dute gero. Zozketa hori apirilaren 3an da.

Hau da aurtengo eskaintza: Araban: Barria, Valderejo eta Zuhatza; Bizkaian: Gorliz, La Arboleda, Lapurreketa, Lauaxeta, Lurraska eta Urduña; eta Gipuzkoan: Hondarribia, Orio, Segura eta Zarautz.

Izena emateko, Gazteria Zerbitzura jo (udaletxean, 10:00-15:00); telefonoz deitu (943 71 18 62) edo mezu bat bidali *(gazteria@aretxabaleta.net)*. Internet bidez ere eman daiteke izena: *www.gipuzkoa-gazteria.net/udalekuak*.

## Birziklatutako materiala erabilita hainbat instrumentu egin dituzte Kurtzebarri BHn

**M.A.** | ARETXABALETA

Birziklapenarekin bat egiten dute Kurtzebarriko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetako ikasleek. Hala, hainbat instrumentu egin dituzte birziklatutako materiala erabilita, hala nola gitarra elektrikoa, marakak, makila lasaigarriak... Agenda 21 proiektuan urteetan sartuta egon ondoren, eta behin jasangarritasun agiria lortu eta gero, landu dute ekintza berezi hori ikasleek. Horregatik, Kurtzebarriko kideek eskerrak eman gura dizkiete guztiei: "Proiektuan parte hartu duten lagunak zoriondu nahi genituzke: gurasoak, irakasleak eta proiektu zehatz horren buru izan den Iban Urizar musika irakaslea".

## Biodibertsitatea lantzen segitzen dute ikasleek Eskola Agenda 21en barruan

**M.A.** | ARETXABALETA

Biodibertsitatea lantzen dabiltza ikastetxeetako neska-mutikoak azken hilabeteotan Eskola Agenda 21en barruan. Dagoeneko egin dute herriko diagnosia lau taldek: Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko hiru taldek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailako batek.

**Materiaren zikloa**

Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoekin, ostera, materiaren zikloa eta ziklo horretan parte hartzen duten zomorroen gainean jardun dute lanean astean.

Eta DBHko lehenengo ziklokoekin gure inguruko ekosistemak landuko dituztela iragarri dute teknikariek.

## Ana Bolinaga elkarrizketatuko dute Goiena telebistan

Martitzenean, hilak 18, 'Harira' saioan egongo da eta herritarren galderak ere erantzungo ditu

**M.A.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako alkate Ana Bolinaga izango da Goiena telebistan datorren martitzenean, hilaren 18an, 22:00etan. Eneko Azkarate kazetariak elkarrizketatuko du *Harira* saioan, eta gori-gori dauden kontuen berri emango du Bolinagak, hala nola hiri hondakinen kudeaketa, kiroldegiaren martxa eta inbertsio nagusiak.

Alkateaz gain, oposizioko indar nagusiek ere ahotsa izango dute saioan: Aralar alderdiko Inaxio Garrok eta EAJko Mikel Uribetxebarriak, hain zuzen ere.

**Hartu parte**

Eta, horrez gain, herritarrek ere izango dute parte hartzeko aukera: posta elektronikoa erabilita *(harira@goiena.com)*, Twitter bidez *(#harira)*, Whatsapp eta Telegram aplikazioak erabilita (idatzizko zein ahozko mezuak) edota erantzungailuan ahozko mezua utzita. Azken hiru aukeretarako, telefono zenbaki bakarra erabiliko dute: 688 69 00 17.



Ana Bolinaga, alkatea. | GOIENA

## Gure Esku Dago ekimena aurkeztuko dute gurean

**M.A.** | ARETXABALETA

Datorren martitzenean, hilak 18, Gure Esku Dago ekimena aurkeztuko dute Aretxabaletan, Arkupen (18:30).

Dinamika herritarra da Gure Esku Dago, erabakitzeko eskubidearen alde Euskal Herrian lan egingo duena. Duela ia zortzi hilabete jarri zuten martxan, eta hainbat herri eta eskualdetan legez, Debagoienean ere taldeak osatzen dabiltza: Oñati, Antzuola, Bergara, Arrasate... Oraingoan, Aretxabaletako taldea aurkeztuko dute, eta hemendik aurrera emango dituen pausoen berri eman. Bada, lehenengo ekitaldia otsailean egin zuen taldeak, *Gureskuklip* lehiaketarako bideoa grabatuta.

PIENSOS UNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Kalera irtengo da bihar Axtroki merkatari elkartea

Azoka, umeendako ekintzak, parrillada eta zozketa gertatu dituzte, plazan

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA
Eskoriatzako merkataritza sustatzeko ahalegin berezia dabiltza egiten azkenaldian herrian, eta, horren bueltan, Axtroki merkatari elkartearen eguna gertatu dute biharko. Goizeko hamaiketan hasita, askotariko ekintzak izango dira egun osoan plazan. Elkarteko kide diren 24 komertzioek euren produktuak eta zerbitzuak aterako dituzte kalera, eskaintza bereziekin.

Azokarekin batera, umeendako hainbat ekintza ere antolatu dituzte. Puzgarriak jarriko dituzte, eta, Tortolis ludotekako hezitzaileen laguntzarekin, tailerrak ere egingo dituzte. Bazkalordura arte egongo dira plazan.

**Parrillada**
Arratsaldean, azoka eta umeendako ekintzaz gain, 18:30 aldera, herriko harakinek gertatutako parrillada ederra banatzen hasiko dira. Zozketa ere antolatu dute merkatariek, eta, egunari amaiera borobila emateko, zenbaki irabazlea jakinaraziko dute. Elkarteko kideen produktuekin osatutako otarrea zozketatuko dute. Horren harira, honakoa azaldu digu elkarteko kide Eider Kortazarrek: "Elkarteko komertzioetan daude txartelak salgai, eta esan beharra dago oso ondo ari direla saltzen. Ez da harritzekoa. Euro baten truke 500 eurotik gora balio duen saski ederra eraman dezakete etxera". Zozketan jasotako diruaren %20 gizarte ekintzetara bideratuko dute. Tabernariek ere lana izango dute bihar; tabernetan eta azokan bertan salgai egongo den bonu berezia atera dute, eta bost euroren truke sei edari hartzeko aukera izango da.

**"Eskertzeko modua"**
Biharko egunarekin eta asteon egiten dabiltzan kanpaina bereziarekin herriko merkatariitzari bultzada eman gura diote. Baina, horrez gain, eskoriatzarren jarrera eskertu gura dute. Horren bueltan, honakoa nabarmendu du Ixkur ile-apaindegiko ugazabak: "Esaterako, zozketak horrelako ongietorria izatea oso garrantzitsua da guretako; aurrera jarraitzeko animoa ematen digu eta horrelakoak antolatzea eskertzeko modua ere bada".

**Erdialdeko errepidea, itxita**
Bestalde, jakinarazi beharra dago merkatarien elkartearen eguna dela-eta, bihar, zapatua, itxita egongo dela erdiko errepidea; hain justu, 10:00etatik 21:00etara bitartean egongo da mugatuta Jose Arana gunetik Antsoategiko biribilgune berrirainoko zatia.


Merkatari elkarteko kideak, Axtroki Eguna iragartzen. | IBARRAUNDI MUSEOA

## 50 euroren truke, 55 axtroki eroan

Zapatukoa ez da elkarteak esku artean duen ekintza bakarra. Jakina denez, Udalak hobarien bidez banatuko ditu axtrokiak; baina Axtroki elkarteak horiek erabili gura dituzten guztiei zabaldu nahi die, eta, hortaz, gaur arte kanpaina berezia du martxan. 50 euroren truke 55 axtroki ematean datza hori. Kortazarrek aipatu du elkarteko denda guztietan egin daitekeela trukea eta ohartarazi du mugatua dela. Ondo ari direla saltzen gaineratu du.

# Mikel Goñik parte hartuko du biharko pilota jaialdian

**M.B.** | ESKORIATZA
Pilota jaialdia dago bihar, zapatua, 19:30ean, Joseba Iñurrategi udal pilotalekuan. Lehenengo, Oier Urrutiak eta Joseba Zubizarretak, pilota eskolako maisu eskoriatzarrek, lau t'erdiko partidua jokatuko dute. Eta jarraian, Mikel Goñi eta Eneko Zubizarreta Unai Iñurrategiren eta Mikel Zubizarreta eskoriatzarren kontra lehiatuko dira.

Jaialdi horretarako sarrerak salgai daude, zortzi euroren truke: Eskoriatzan, Aldatz eta Inkernu tabernetan; eta Aretxabaletan, Gurea eta Orly tabernetan. Egunean bertan ere erosteko aukera izango dira, baina 10 eurotan. 16 urtetik beherakoenak, ostera, bost eurotan salduko dira.


Mikel Goñi, zapatuan. | GOIENA





Eskoriatzarra eguaztenean Ibarraundin, azalpenak entzuten. | MIRIAN BITERI

# Boluntarioak behar dira atez atekorako materiala banatzeko

**M.B.** | ESKORIATZA
Atez atekoa jartzeko prozesuak aurrera segitzen du. Oraingo astean hasi dira udal brigadako langileak zintzilikarioak jartzen. Erdialdean dabiltza lan egiten; hain justu, Santa Ana auzoan.

Baina, zintzilikarioak jartzearekin batera, Ibarraundi museoan ere esekitoki horien behin betiko kokapena ikusteko aukera izan dute eskoriatzarrek martitzenetik eguenera. Hondakinen bulegotik azaldu digute ikusmina sortu duela erakusketak eta eskoriatzar asko pasa direla handik bere zintzilikarioa non egongo den ikusteko eta, bide batez, sistema berriari buruzko dituzten zalantzak argitzeko.

Bestalde, hilaren 19tik apirilaren 3ra, hondakin bilketa selektiboa egiteko beharrezko materiala banatuko dute eskoriatzarren artean, eta lan horretarako boluntarioak behar direla jakinarazi du asteon Udalak. Astelehenetik aurrera (martxoak 17) behar dituzte boluntarioak goizez eta arratsaldez txandak osatzeko; txanda bakoitzeko, gutxienez, hiru boluntario behar dituzte. Ordutegia hauxe da: 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Lagundu gura dutenek Ibarraundin eman behar dute izena, zuzenean hara joanda, 943 71 54 53 telefono zenbakira deituta edo *ibarraundi@eskoriatza.net* posta elektronikora mezua bidalita.

## Gaztetxef lehiaketaren lehen saioa egingo dute gaztelekuan

Ekintzaz beteta dator astebura gaztelekuan; besteak beste, Gaztetxef lehiaketaren lehen saioa dute bihar. Hezitzaileek osagaiak emango dizkiete lehiakideei eta haiek ordu eta erdi izango dute gura duten platera egiteko. Aurkezpena, originaltasuna, zaporea eta zailtasun maila baloratuko dituzte. Zortzi taldek eman dute izena eta bi saio izango dira; bakoitzean lau talde lehiatuko dira.

## Uretako parkearekin gozatzeko aukera dute etzi etxeko txikienek

Uretako parkea jarriko dute ostera etzi, domeka, Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekuan. Udaletik gogorarazi gura izan dute oraingoan ere ez dutela ordutegi banaketarik egingo eta jartzen den materiala ume guztien eskura egongo dela 16:00etatik 19:00etara bitartean. Kiroldegiko bazkideek bi euro ordaindu beharko dituzte sarrera bakoitzagatik eta gainerakoek, aldiz, hiru euro.

## Elikadurari buruzko tailerra eta berbaldia daude datorren astean

Udalak antolatuta, elikadurarekin lotutako ekimen bi daude datorren astean Eskoriatzan. Astelehenean, hilak 17, Thermomix erabiltzen ikasteko tailerra eskainiko dute Rosa Diazek eta Raquel Gomezek. Martitzenean, ostera, *Diabetesa, elikadura eta ariketa fisikoa* izeneko berbaldia izango da, Ana Sanchezek eta Amaia Sanchezek eginda. Herriko kultura etxean egingo dituzten ekintza biak debalde direla eta 18:00etan hasiko direla jakinarazi dute.

## OHARRAK

**ALDAYPE ELKARTEA**
Aldaype ehiza eta arrantza elkarteak zabalik du zuzendaritza berria osatzeko izen-ematea. Hautagaiek gaur, egubakoitza, arte eman dezakete izena, 17:00etatik 19:00etara, lokalean. Presidenteirako hautagaiaren eta beste sei lagunen izenak aurkeztu behar dira.

**SAGARDOTEGIRA**
Olazarrek irteera berria gertatu du apirilaren 12rako. Usurbilen dagoen Aginaga sagardotegira joango dira erretiratuak. Dagoeneko zabalik dago izen-ematea; interesatuek apirilaren 3a baino lehen joan behar dute elkartearen bulegora martitzenean edo eguenean, goizez.

ANTZUOLA

# Arrolak urteko batzarra egingo du hilaren 20an

**M.A.** | ANTZUOLA

Ohiko urteko batzarrean, Arrola Mendi taldeak, 2013ko balorazioa egingo du. Egindako ibilbideak ere izango dituzte berbagai eta iazko diru kontuak mahai gainean jarriko dituzte jendaurrean azaltzeko.

Nola ez, aurtengo egitasmoei ere lekua egingo zaie batzarrean. "2014ko ekintzen barruan, Iparraldera ibilaldi bat antolatu gura dugu. Udaberrian egin gurako genuke. Ea iaz baino zorte handiagoa dugun eta eguraldiak laguntzen duen", azaldu digu Jabier Etxanizek, Arrola taldeko kideak.

"Pirinioetako irteera ez dugu oraindik lotu; ea batzarrean ideiak ateratzen diren!", animatu nahi ditu.

Martxoaren 20an, eguenean, egingo den bileran batzordea berritzea tokatzen da. Hala, lau lagun berri izendatuko dituzte. Horretarako, mendi federatuen zerrendatik zozketa egingo dute.

Urteko batzarra arratsaldeko zazpietan Olaran etxean egingo dute.



Jose Mari Iturbe, Hondakinen Jarraipeneko Batzordeko kidea, plazan jarritako informazio-gunean. | MAIDER ARREGI

# Hondakinen %87a gaika batzea lortu dute hiru urtean herritarrek

## 2014rako beste erronka bat dute antzuolarrek: errefus konpurua jaistea

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Hiru urte bete berri dira Antzuolan atez ateko sistema jarri zela. Jose Mari Iturbek, Hondakinen Jarraipeneko Batzordeko kideak, balorazioa egin du: "Hiru urteren ostean, Antzuolan hondakinen kudeaketan aldaketa nabarmena egon da. Gure ikuspuntutik aurrerapauso handia gertatu da eta Antzuola erreferente da Gipuzkoan eta Debagoienean". Iturbek azpimarratu du errefusa zazpi bider gutxiago jasotzen dela: "Hasieran 400 tona inguru jasotzen zen eta orain, 60 tona. Ontzi arinen bilketa ere bikoiztu baino gehiago egin da". Organikoari dagokionez, bilketa %40koa dela ziurtatu dela esan du.

### Erronka berriak

Herritarren jarrera ona ikusita, 2014an errefusa gutxitzea dutela helburu dio: "Antzuolarrek hondakinak oso ondo sailkatzen ikasi dute. Honek aurrera egin behar du. Ezin dugu geroz eta hondakin gehiago sortu, ez du-eta etorkizunik. Neurri batzuk har daitezke horretarako: autokonposta egitea edo tuperra erabiltzeko kanpainak indartzea. Arrandegira, adibidez, dagoeneko herritar asko joaten da tuperrarekin. Ea orain harategietara ere zabaltzen den ohitura".

### Balorazio positiboa

Aurten hondakinen %87a gaika batzea lortu dutela kontatu digu Iturbek, esperotakoa baino gehiago: "Gure aurreikuspena baino datu hobeak lortu ditugu. Izan ere, %80 inguruan kokatzen genuen hondakinak gaika batzeko kopurua. Oso datu ona da eta balorazio ezin hobea egiten dugu Hondakinen Jarraipen Batzordetik. Esan behar da ontzi arinak pertsonako 31 kilo batzen direla; eta organikoari dagokionez, datua goraka doa: biztanleko 80 kilo".

### Herritarrei zabalik

Hasiera gogorra izan zela dio Iturbek, baina pixkanaka herrian ondo barneratu dela sistema: "Hasieran, tentsioa izan zen, erabaki gogorrak hartu behar ziren -eta. Baina ondoren ikusi da herritarrek geroz eta hobeto erantzun dutela eta hondakinak ondo sailkatzen dituztela. Parte-hartzea beti izan dugu zabalik eta oraindik ere guregana jo nahi dutenek badute aukera".

# Torturaren gaineko erakusketa ikusgai

## Martxoaren 19an Julen Artzuaga legebiltzarkideak hitzaldia egingo du Olaranen, 19:00etan

**M.A.** | ANTZUOLA

Asteburuan, torturaren gaineko erakusketa izango da Olaranen, 18:30etik 20:30era. Oñatiko Euskal Memoria Taldeak azken urteotan torturaren inguruan batu dituen datuak eta argazkiak jarriko dituzte. Hilaren 22an eta 23an ere bisitatu ahal izango da.

### Hitzaldia eguaztenean

*Oso latza izan da. Tortura Euskal Herrian* liburuaren egilea da Julen Artzuaga abokatua eta legebiltzarkidea. Martxoaren 19an egingo du hitzaldia. "Iragana ezagutu behar da gertatutako dramak ezagutzeko, aitortzeko eta erreparatzeko, baina, batez ere, ez errepikatzeko. Oraindik sistema bat dago tortura ahalbidetzen duena: inkomunikazioa. Alde horretatik, esan dezakegu tortura sistematikoa dela eta hura amaitzeko sistema hori bertan behera utzi behar dugula", azaldu digu Artzuagak. "Sentimendu asko azaleratu zaizkit. Ezagutzen dudan pertsonen testigantzengatik eta hartara ezagutzen ez nituenengatik", aitortu digu. Artzuagaren hitzaldia martxoaren 19an izango da, Olaranen, arratsaldeko zazpietan hasita. Horren ondoren, erakusketa ikusteko aukera egongo da.


Julen Artzuaga, Legebiltzarrean. | JULEN ARZUAGA

## OHARRAK

**MARRAZKI LEHIAKETA**

Xinkonak abian jarri du Aitaren Eguna dela-eta txikitxoendako marrazki lehiaketa. Nahi duen orok har dezake parte, gainera. Lanak martxoaren 19ra arte, arratsaldeko seiak bitartean, jasoko dira dendan bertan. Marrazki guztiak erakusgai izango dira, gainera, aste osoan. Irabazleak sorpresatxo bat jasoko du.

**GABONETAKO LOTERIA**

Gogoratu behar da Landatxopeko erretiratuen egoitzan Gabonetako Koteria erosi zutenek martxoaren 22ra arte, datorren barikura arte, dutela epea Laboral Kutxara joan eta bertan kobratzeko.

LEINTZ GATZAGA

# Zuhaitz Eguna egingo dute etzi Pagoederren

## Haritzak landatuko dituzte, eta, bitxikeria moduan, zuhaitzotan jartzeko egurrezko habiak izango dira

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak egin du Zuhaitz Egunerako deia, domekarako. Interesa duten ume eta herrikide guztiei zuzenduta dago: 10:30ean plazan. "Zuhaitzak, aitzurrak-eta eramateko autoz igoko dira Gatzagainera, eta gero, eguraldiak uzten badu, handik oinez joango dira Pagoederrera", jakinarazi dute. "Zazpi haritz landatuko dira, altuera ertainekoak eta Diputazioaren mintegitik ekarritakoak. Bestalde, egurrezko habia batzuk ere eramango dituzte, zuhaitzetan jartzeko. Biltegian gordeta daude habiok eta domekan eramango dituzte umeek. Izango dute, bai, eguna pasatzeko besteko zeregina", gaineratu du Imanol Saez de Biterik, Mendi zinegotziak.

"Umeek naturarekin izan dezaketen harremana sendotzeko eta arbolak landatu eta gero etorkizunean ikusteko gauza polita direlako antolatu du Gurelek Zuhaitz Eguna", azaldu dute gurasoo elkartetik. Eta haiek gogora ekarri dute iaz ez zutela Zuhaitz Egunik egin.

Aurtengo Zuhaitz Eguneko zazpi haritzak Pagoederren landatuko dituzte, aurrekoetan egin duten moduan. "Landatzea amaitu ostean, hamarretakoa egingo dugu Gatzagainen", iragarri dute antolatzaileek.

### Ibilgailuen zerga

Bestalde, Zuhaitz Egun kontuak aparte utzita, ibilgailuei dagozkien zerga ordaintzeko epea zabalik dagoela argitaratu du Gipuzkoako Buletin Ofizialak. Borondatez ordaintzeko epea apirilaren 30era artekoa da, hain justu ere. Ordainagiria helbideratuta bada, banketxearen bitartez kobratuko dute, eta, bestela, udal zerga-bilketa bulegoan ordaindu behar da. Borondatezko epean ordaindu ezean, gainkarguarekin kobratuko dute zerga hori.

Ibilgailuen zergari dagokionez, zaldi potentziak zehazten du zergaren zenbatekoa.

# Konponketa lanak eta aurreztea dira lehentasunak aurten

Udalak iaz baino 256.000 euro gutxiago ditu aurten, %11ko beherakada



Argiteria publiko berriarekin %60 inguru aurreztuko du Udalak. | JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Gerrikoa estutu beharrean dago Aramaioko Udala. FOFEL moduan ezaguna den Diputaziotik datorren laguntzak behera egin du –Udalarendako diru iturri nagusia da–; aurten Aldunditik 100.000 euro gutxiago jaso dira. 2014ko aurrekontu ofiziala 1.941.146 euro da, eta, beraz, iaz baino %11 gutxiago izango du Udalak herria kudeatzeko, 256.000 euro inguru gutxiago –iaz 2.191.528 euro izan zen aurrekontua; 2012an, berriz, 1.820.180 euro.

Martxoaren 5eko osoko bilkuran onartu zen 2014ko udal aurrekontua. Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin egin zuen aurrera proposamenak; Udal Gobernuan dagoen Aramaioko Alkartasuna alderdiko Jose Ramon Uribek eta Martin Ibabek ez zuten osoko bilkuran egoterik izan.

Proposamenarekin bat egin ez zuen zinegotzi bakarrak, EAJko Iñaki Nafarratek, aurrekontuak "osoko zuzenketa" behar zuela esan zuen osoko bilkuran. Gaineratu zuen Muruko eta Azkoagako lanek "oraindik" egin gabe jarraitzen dutela: "Udal kudeaketa txarraren ondorioz lan horiek egin gabe jarraitzen dute, 2010ean horretarako diru laguntzak jaso ziren arren".

**Zabola eta Untzilla, Adif-en esku**

Bestalde, aurrekontuan jasota ez badago ere, aurtengo obra garrantzitsuenen artean daude Zabolan eta Untzillan egin behar diren interbentzioak.

Alkatearen arabera, Adif erakundea "derrigortuta" dago A-2620 errepidea itxita egon izanak Zabola eta Untzilla inguruan eragindako kalteak konpontzeko: "Errepide tartea konpondu, seinaleak jarri eta sakangune batzuk egokituko dira, besteak beste. Hainbat bilera egin ditugu Adifekoekin eta lanok eurek ordaintzea lortu dugu".

**Lur-jausietarako, Jaurlaritza**

Aurrekontuan jaso ez den beste partida bat da azken orduan Jaurlaritzak bideratu duena, iaz euriak eragindako kalteak konpontzeko: "Gastu handiak izan genituen. Aldundiaren errepide zatiak zirenak Aldundiak konpondu zituen eta Udalarenak diren zatiak guk konpondu genituen. Udalarendako gastu handiak zirenez, fakturak Jaurlaritzara bidali genituen; orain dela gutxi onartu dute gastuaren %80 eurek kubritzea; hau da, 20.000 euro inguruko diru laguntza ematea", adierazi du alkateak.

Izpizteko pinudiaren diru sarreren gainean alkateak gogoratu gura izan du baso publikoak direnean Diputazioak zehazten dituela epeak pinudi horiek ateratzeko: "Aurten 112.000 euro jasoko direla aurreikusten da, baina, era berean, basoberritzerako, 25.000 euro bideratuko ditugu. Mendiak hori dauka, batzuetan diru sarrera bat direla eta gastua beste batzuetan".

**Eskaeretarako partidarik ez**

2013ko aurrekontuan 110.000 euro bideratu ziren herritarren eskaerendako: "Iaz opor fiskalak zirela-eta sarrera bat jaso genuen azken orduan eta erabaki genuen herritarrek egindako eskaerei erantzuteko bideratzea diru hori. Aurten, baina, ez dugu opor fiskalik, eta, gainera, murrizketa nabarmenak izan ditugu". Horren ordez premia larriena zuten eskaerak unean bertan bete dituzte, askotariko konponketak kasu gehienetan.

Amaitzeko, alkateak Udal Gobernuko zinegotzien lana txalotu gura izan du, baita herritarren jarrera ere.

---

RAMON AJURIA | ARAMAIOKO ALKATEA

## "Zilegitasun osoa dugu, aurrekontua herritarrekin batera adostu dugulako"

Iaz baino diru gutxiago izan arren, aurrekontua onartzeko parte hartze prozesuan herritarren "jarrera ona" eta "zentzuzko eskaerak" nabarmendu ditu Ramon Ajuriak.

**Aramaioarrek behar duten aurrekontua dela uste duzu?**

Behar guztiei ezingo diegu aurre egin, baina behartuta gaude aurrekontu hori onartzera. Aurten ditugun baliabideak kontuan hartuz gero, ez dago besterik.



J.B.

**Aurten bigarren urtez ekin diozue parte hartze prozesuari. Nolako balorazioa egiten duzue?**

Oso ona. Datu esanguratsu bat emango dizut: parte-hartze prozesuetan adituak direnen arabera, herri bateko biztanleria osoaren %10ek baino gehiagok prozesuarekin bat egiten badu, prozesu hori oso arrakastatsua ei da. Bada, Aramaion 1.500 biztanle inguru ditugu eta 160 herritarrek baino gehiagok hartu dute parte egin ditugun zazpi bileretan.

**Nolako eskaerak jaso dituzue?**

Herritarrek zentzuzko eskaerak egin dituzte, oso jarrera ona erakutsi dute. Udalaren baliabideak mugatuak direla ulertu dute eta ez dituzte sekulako inbertsioak eskatu. Beharrezkoak diren interbentzioak eskatu dituzte; hori oso garrantzitsua da guretako.

**EAJren babesik ez duzue eta diote Udalaren zorrak "erabat" baldintzatzen duela aurrekontua. Zer diozu horretaz?**

Herritarrekin batera adostutako aurrekontua dela, eta, beraz, zilegitasun osoa dugula aurrekontu hori onartzeko. EAJren balorazioa errespetagarria da, baina ez dira prozesu horretan egon eta ez dute inongo ekarpenik egin.

Bestalde, zorra eragin duen maileguari dagokionez, auzoetako obretarako eskatuta zegoen gu Udalera heldu aurretik. Guk ez dugu zerikusirik mailegu horrekin. Beraz, orain arte egin dugun bakarra izan da zorra ordaintzen jarraitzea, konpromisoak betetzen segitzea. Eta horretarako ezinbestekoa izan da gerrikoa estutzea; oraingoz, gai izan gara dena ordaintzeko.

---

## AURREKONTUA BATZORDEKA

| BATZORDEA | 2013 | 2014 | ALDEA |
|---|---|---|---|
| Ogasuna | 739.293 | **692.752** | –%6,30 |
| Zerbitzuak | 584.029 | **548.416** | –%6,10 |
| Hirigintza | 387.737 | **301.376** | –%22,28 |
| Kultura eta kirolak | 175.440 | **147.480** | –%15,94 |
| Ongizatea | 81.021 | **73.921** | –%8,77 |
| Euskara eta hezkuntza | 79.800 | **65.900** | –%17,42 |
| Mendiak | 65.322 | **53.269** | –%33,25 |
| Ingurumena eta nekazaritza | 44.685 | **36.130** | –%19,15 |
| Parte hartzea eta auzoak | 24.800 | **17.500** | –%29,44 |
| Gazteria, migrazioa eta emakumeen esk. | 11.400 | **4.400** | –%61,41 |

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA

---

## 2014rako inbertsio nagusiak

**MURUKO SANEAMENDUA**

Oinarrizko saneamendu eta zolatze lanak egingo dira Muru auzoan. 2013an lehen fasea eta aurten bigarrena egitea zen hasierako asmoa, baina aurten egingo dira bi faseak jarraian. Obraren aurrekontu osoa 384.493 euro da. Lanak ekainean hastea espero du Udalak, eta, dioenez, hiru hilabetean amaituta egon beharko lukete.

**ARGITERIA PUBLIKOA**

Ibarrako argiteria publikoa aldatzeko bigarren fasea ekainean amaitzea espero du Udalak. Ibargoia kalean jarriko dira led sistemarekin ibiliko diren farola berriak. Argiaren kontsumoa murriztuz ingurumenari mesede egin eta %60 eta %70 inguru aurreztuko da fakturetan. Lehen fasean 42.524 euro gastatu ziren eta bigarren fasearen aurrekontua 22.442 euro da.

**KIROLDEGIKO LANAK**

Aldagelak eta komunak berritzea eta gimnasio txiki bat egokitzea aurreikusten du Udalak. 35.000 euroko partida bat bideratuko da.

**ARTXIBOA DIGITALIZATZEA**

Hiltegi zaharrean joango den Udal Artxiboa digitalizatzeko 15.000 euro bideratuko dira. Altzariak dagoeneko erosi dira.

---

IÑAKI NAFARRATE | EAJ-KO ZINEGOTZIA



## "Udalak gasta dezakeena baino gehiago gastatzen du"

"Aurrekontua ez da aramaioarrek behar dutena. Gastu arrunta udalerriak duen ahalmena baino handiagoa da eta horrek hainbat udal zerbitzu ez eskaintzea dakar. 2014an Udalak 210.000 euroko aparteko diru-sarrera izango du, Izpiztiko pinudia eta argindar banatzailea dela-eta, baina sarrera horiek gastu arruntei aurre egiteko erabiliko dira. Ondorioz, ezin izango da egin udalerriarentzat aurrerapena eta onura ekarriko zukeen inbertsio berezirik azpiegitura edo ekipamenduei dagokienez.

Udalak gasta dezakeena baino gehiago gastatzen du. Zorrak gora egin du, urtero 108.000 euro ordaintzen ditugu amortizazio eta interesengatik, 9.000 euro hilero. Kopuru horiek aurrekontua erabat baldintzatzen dute. Irudimen eta lan falta dago konponbideak aurkitzeko; bi bide bakarrik erabiltzen dira: kreditua gehitzea –zorra etengabe handituta– eta zergak igotzea.

EAJk lehentasuneko irtenbideak proposatu ditu batzordeetan eta osoko bilkuretan: aparkalekuak Ibarran, araztegi bat –putzu septikoa zaharkitua dago– eta adinekoendako egoitza bat".

# Biomasa proiektua Laguntza Planaren emaitzen zain dago

## Jaurlaritzaren Energiaren Euskal Erakundeak plan horretako erabakien berri emango du martxoan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Biomasa proiektua errealitate izateko hurrengo data garrantzitsua oraingo hilabetea da, martxoan ezagutuko dira-eta Jaurlaritzako Energiaren Euskal Erakundeak Laguntza Programan sartuko dituen diru laguntzak.

Biomasarena aspaldiko proiektua da Udalarendako, eta aurtengo aurrekontuan 4.000 euroko partida bat bideratu dute sentsibilizazio kanpaina egiteko: "Teknikoki eta ingurumen aldetik proiektua zein garrantzitsua den azalduko diegu herritarrei; izan ere, onura guztiak eurendako izango dira. Ibarrako herritar guztiei ondo azaltzea komeni da. Biomasaren *tunela* erdi zabalik dago", adierazi du asteon Ramon Ajuria alkateak. Proiektuak aurrera egingo balu, biomasa herri oso batendako energia iturri moduan erabiltzen duen lehen herria litzateke Aramaio.

### Alegia eta Mañaritik asteon

Hala, ez da harritzekoa gaiak Aramaiotik kanpo interesa piztu izana: "Gipuzkoako Aldundia, Iruñeko Zazpiak Bat ekimena... Interesa erakutsi dutenen zerrenda luzea da. Poliki, baina aurrera goaz". Kanpokoen interes horren adibideetako bat da asteon Alegia (Gipuzkoa) eta Mañariko (Bizkaia) alkateak Aramaio bisitatu izana.

Eguaztenean izan ziren gurean Alegiako alkate Unai Iraola eta Mañariko alkate Endika Jaio biomasa proiektua gertutik ezagutzeko.

## NIRE USTEZ



XABI IGOA

# G(z)ure esku dago

Ez dut idazten inongo partidu politikoren izenean. Ez dut idazten inongo talderen izenean. Ez dut idazten bertsolari paperetik. Ez dut idazten saskibaloi jokalariaren larrutik. Ez dut idazten Goienako kolaboratzaile gisa. Ez dut idazten Ibargoiako kale disidenteak aspaldi sortu zuen nardeagatarren aurkako taldetik (I.K.D.A.S.Z.N.A.T). Niretik idazten dut. Pertsona eta gizabanako soil bezain oinarrizko den honetatik.

Eta behin aurkezpena eginda, Gure Esku Dago ekimena aurkeztu nahi dizuet: *Nazioa gara, erabakitze eskubidea dugu, herritarron garaia da* lelopean sortutako dinamika herritarra da. Erabakitzeko eskubidearen alde Euskal Herrian lan egingo duen dinamika. Herrietan dinamika honen inguruan garatu ahal diren ekimen ezberdinei erreferentzia eta aterkia eskaintzen diena.

*Gazta zati bat* filma ikusi duzuenok honezkero hartuko zenioten usaina nire artikuluari. Antzik ere ez duzuenok jo *www.gureeskudago.net* webgunera, eta bai lehenek eta bai bigarrenek ere, egin kasu hurrengoari: Aramaion, esparru askotako herritarren artean, Erabakitzeko Eskubidearen Aldeko Adierazpena adostu, sinatu eta publiko egin nahi da. Hartara, eta gurean ekimena ezagutarazteko asmotan ere, martxoaren 21ean argazki bat aterako dugu, 19:00etan, Bizente Goikoetxea plazan; bazatoz? Gure asko dago, zure esku dago!



Euskal dantzen emanaldia iaz Ferixa Nagusiko jaietan. | IMANOL SORIANO

# 43 neska-mutikok hasiko dute euskal dantzen ikastaroa eguaztenean

## Aurten ere bi talde osatuko dituzte: haurren taldean 27 izango dira eta gaztetxoenean, 16

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Martxoaren 19an, eguaztena, emango diote hasiera umeendako euskal dantzen ikastaroari. Hasiera honetan, 43 neska-mutikok eman dute izena, eta arduradunek bi talde osatzea erabaki dute. 2005 eta 2009. urte artean jaiotakoek osatuko dute talde bat, eta 27 lagun daude izena emanda. Adin tarte horretan, iaz jaietan 29 lagunek egin zuten dantza. Eguaztenetan egingo dute ikastaroa, 18:15etik 19:00etara.

Handitu dena nagusitxoen taldea da. Aurten, DBHko ikasle elgetarrei ere dantza ikastaroan parte hartzeko aukera eskaini zaie, eta adin tarte horretako bost lagunek eman dute izena. Talde horretan ariko dira 1999 eta 2004. urte artean jaiotakoak. Guztira, 16 lagunek eman dute izena. Iaz, 12 lagunek egin zuten dantza. Haiek ere eguaztenetan egingo dute ikastaroa, baina 19:00etatik 20:00etara.

### Emanaldia jaietan

Irati Kortabitartek eta Xabat Leanizbarrutiak gidatuko dute, aurten ere, euskal dantzen ikastaroa. Iaz, agurra, Olagueko esku -dantza, zapatagin-dantza, txulalai... erakutsi zituzten. Gero, neska-mutikoek jendaurreko emanaldia egin zuten Ferixa Nagusiko jaietan. Asmoa aurten ere jaietarako emanalditxoa prestatzea da. Iazko dantzak gogoratu eta berriak ikasten saiatuko direla esan dute arduradunek.

# Nestor Maidagan, atzera ere, osasun etxean

L.Z. | ELGETA

Aspaldiko ezaguna da Elgetan Nestor Maidagan arrasatearra. Hamazazpi urte egin zituen osasun etxeko praktikante lanpostuan, eta, bost urte pasatxoko etenaldiaren ostean, bueltan dugu atzera ere. Hiru aste dira Elgetako osasun etxean dihardudela. Maite Odriozola oñatiarrak 2008ko abendua ezkero bete duen lanpostua betetzera dator Maidagan, gutxienez urtebeterako. Odriozolak Bergarako osasun etxean dihardu orain, Garbiñe Etxebarria elgetarrak erretiroa hartu eta hark libre lagatako koordinatzaile postuan.

Maidagan etxez etxeko zerbitzuan ibili da azken urteotan eta lan polita dela esan du. "Baina Elgetako postua libre zegoela ikusi nuenean ez nuen zalantzarik izan", esan du irribarre batekin.



Nestor Maidagan, Elgetan. | L.Z.

# 41 familia onuradun hondakinen tasaren hobariarekin

L.Z. | ELGETA

Elgetako Udalak egunotan aplikatu du 2013. urteari dagokion hondakinen tasaren hobaria, bonifikazioa. Onuradunak autokonposta egiten duten herritarrak izan dira; guztira 41 familia. Diru itzulketa egin du Udalak. Lehenengo aldia da konposta egiten duten elgetarrei agindutako hobariak aplikatzen zaizkiela. "2014ko hobariari begira, ekainean eta uztailean errebisatu egingo ditugu konpostatzen diharduten lagunen konpostagailuak. Auzokonpost-guneak ere errebisatuko ditugu", adierazi dute Udaletik.

### Ikastaroa eguaztenean

"Zalantzan dauden elgetarrak konpostatzaile izateko pausoa ematera animatu gura ditugu", adierazi dute. Hala, eguaztenean, hilak 19, egingo dute hurrengo ikastaroa, 19:00etan. Parte hartu gura dutenek astelehena aurretik eman behar dute izena udaletxean. Udal arduradunek gogoratzen dute etxean sortzen duten hondakin organikoa kudeatzen duten elgetarrek %25eko hobaria izango dutela hondakinen tasan.

### Buztingintza museora joateko izen-ematea, martxoaren 21era arte

Zuiako Koadrilak Elosuko (Araba) Euskal Buztingintza Museora irteera antolatu du hilaren 29rako. Prezioa da lau euro 12 urtetik gorakoendako eta bi euro 0 eta 11 urte artekoendako. Izena emateko, 2095 3224 211091573864 kontu korronte zenbakian sartu behar da dirua, eta agiria udaletxean aurkeztu.

### Urdaburu mendira eta Egi Luze sagardotegira bihar, Orixolen eskutik

Urteroko ohiturari eutsiz, Orixol elkarteak mendira eta sagardotegira irteera antolatu du biharko; aurten, 21 lagunek eman dute izena. Urdaburu mendira igoko dira lehendabizi eta gero Errenteriako Egi Luze sagardotegian bazkalduko dute, 14:30 aldera. 21:30erako bueltan izango direla adierazi dute.

### Erretiratuendako podologo zerbitzua eguenean, hilak 20

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, hilaren 20an, eguena, egingo du martxoko kontsulta podologoak. Kultura etxeko bigarren solairuan hartuko ditu elgetarrak, 15:00etan hasita. Ezinbestekoa da aurrez txanda hartzea. Interesatuek Begoña Ardantzari deitu behar diote; 943 76 81 47 telefono zenbakira.

### Guraso eskolaren aurkezpen batzarra hilaren 20an, 18:30ean

Unai Serrano psikologoak guraso eskola bat sortzeko aurkezpen batzarra egingo du eguenean, hilaren 20an, Herri Eskolako gurasoei zuzenduta. Ekimenaren zergatia, nondik norakoak, helburuak eta funtzionamendua azalduko ditu Serranok lehenengo batzar horretan. Batzar irekia da eta eskolan izango da. Ordubete inguru iraungo du.

### 150 lagunetik gora espero dituzte etzi Finalisten Jaian

Elgetako lau tontorretatik pasatuko den mendi ibilbidea (08:00), diploma banaketa (14:00) eta bazkaria (14:30) egingo dituzte domekan 150 -200 mendizale inguruk. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Jaia ospatuko dute. Euskal Mendizale Federazioak eta Elgetako Udalak elkarlanean antolatu dute.

FUTBOLA

# Andoni Iraola: "Zubieta ezin da haurrendako frustrazio fabrika izan"

## Leintz Eskola Kirolak antolatuta, Erreala Fundazioko presidentea izan zen Eskoriatzan

**XABIER URZELAI** | ESKORIATZA

Mikel Gonzalezen eta Realeko harrobiaz lan egiten duen Bixen Calzonen babesarekin Andoni Iraolak berbaldia egin zuen martitzenean Eskoriatzan. *Erreala formazioaren balioak* leloak erakarrita jende asko izan zen Huheziko kaperan, eta, ordu eta erdiz, bertaratutakoak gustura izan ziren talde txuri-urdinak harrobiaz zelan lan egiten duen entzuten. Askorako eman zuen gaiak.

Andoni Iraola ez da teknikaria –horretarako zuen Bixen Calzon aretxabaletarra ondoan–, baina berba jario ona du, eta esaldi borobilak bota zituen berbaldian: "Zubieta ezin da frustrazio fabrika bat izan", horietako bat; garai batean izan den seinale. Esandakoa zehaztu zuen gero: "Gipuzkoan urtero 3.000 mutiko jaiotzen dira, eta noski, denek ez dute futbolean jokatuko. Hala, urtero lortuko bagenu 3.000 horietatik bat lehenengo taldera iristea, sekulako emaitza izango litzateke guretako. Horrek erakusten du oso-oso zaila dela futbol jokalari profesional bilakatzea, eta frustraziorik ez sortzeko, lehenengo egunetik garbi uzten diegu hori gaztetxoei eta gurasoei".



Mikel Gonzalez, LEKeko presidente Iñaki Arana eta Andoni Iraola, berbaldia hasi aurretik. | XABIER URZELAI



Ibarburu, Calzon eta *Gontxa*. | X.U.



*Gontxa*, kamisetan sinatzen. | X.U.

### Heziketa balioak sustatu

Iraolak garbi utzi zuen euren lehentasuna lehenengo taldera jokalariak helaraztea dela: "Baina oso gutxi iritsiko dira, eta bidean geratuko diren gazte horiekiko ardura handia dugu. Horrenbestez, ezin gara futbol jokalariak formatzera mugatu; pertsonak formatu behar ditugu, formazio balioak sustatu eta Zubietan egiten duten egonaldia baliagarria izan dadila eurendako".

Alde horretatik, egun ikastetxeetan kirol jarduerari ematen zaion garrantzi txikia kritikatu zuen, jarduera hori neurri handian eskolaz kanpo egiten dutelako. Eta euren jarduna Eskola Kirolarekin bateragarria dela defendatu zuen; hau da, gaztetxoek hainbat kirol jarduera egitea oso ona dela, ez dela inongo traba: "Eskola Kirolak ez digu inongo kalterik egiten ondoren guk gazte horiek futbolera bideratzeko; 7-8 urterekin ez ditugu futbolean espezializatu behar, ez dira emaitza hobeak jasotzen".

Hori bai, gazteekin lan egiteko orduan monitoreen heziketari garrantzi handia eman zion: "Eta hor oraindik badugu zer hobetu, horretan ari gara".

> ESANAK
>
> **"Helburu nagusia lehen taldera gazteak helaraztea da"**
>
> **"Garbi uzten diegu ze zaila den profesional izatera iristea"**
>
> **ANDONI IRAOLA** | ERREALA FUNDAZIOA

### Zubietako egonaldiaz gozatu

Realean dagoen bitartean gazteak egiten duen horretaz gozatzeak duen garrantziaz jardun zuen segidan: "Kirola bada, ezinbestekoa da ondo pasatzea. Eta ondo pasatzeko, gazteak protagonista dela sentitu behar du; guk horretarako oso arau zorrotzak ditugu. Esaterako, Realak gaztetxo bat fitxatzen badu, gutxienez, bi urte egingo ditu gurekin. Hala, lasai egoteko esaten diogu, ez duela entrenamendu saio batean daukan guztia erakutsi behar. Gainera, infantil eta kadete mailetan jokalari batek derrigor partiduen %50 jokatu behar ditu eta gazte mailan partiduen %35. Horrela sentitzen dira protagonista, eta gazte mailakoek Europan erakutsi berri dute horrela ere lehiakorrak izan gaitezkeela. Esaterako, Shakthar Donetsk taldeko ordezkariak harrituta zeuden gazte mailako taldean, hasierako hamaikakoan, egiten genituen aldaketa kopuruaz; gure metodologiaz harrituta geratu ziren".

> ESANAK
>
> **"Gure esperientzia kontatzen diegu gazteei"**
>
> **"Egun, lehen lantzen ez ziren arlo asko lantzen dituzte"**
>
> **MIKEL GONZALEZ** | JOKALARIA

### Lehen taldekoen inplikazioa

Harrobikoen garapen prozesu horretan lehen taldeko jokalariek ere badute zer esana; esaterako, Mikel Gonzalezek eta halako jokalariek: "Guri ere gustatzen zitzaigun lehen taldekoak guregana berba egitera etortzea, eta orain ere lehen taldekook gure esperientzia kontatzen diegu gazteei. Niri metodologia berri honek lehen taldean harrapatu nau, eta harrobian egindako urteez oso oroitzapen ona badut ere, egia da orain lehen lantzen ez genituen arlo asko lantzen direla, oso garrantzitsuak, gainera".

---

PILOTA

### Beñat Rezustak herritarren aurrean jokatuko du gaur

Pilotari profesionalen jaialdia izango da gaur, egubakoitza, Bergaran (22:00). Hala, Apezetxeaz bikotea osatuta Beñat Rezustak herritarren aurrean jokatuko du, eta Tainta eta Iza izango dituzte aurrean. Bigarren partiduan, Saralegik eta Zabalak Ezkurdiaren eta Zabaletaren kontra jokatuko dute. Sarreratik lortzen duten %15 klubari laguntzeko izango da.

FUTBOLA

### Eibar futbol taldeak Agorrosinen egingo du entrenamendua bihar

Bihar, zapatua, Bigarren Mailan denboraldi ederra egiten dabilen Eibar Bergarako Agorrosin futbol zelaian entrenatuko da –urtean zehar hainbatetan etorri dira–. Hala, Garitanoren mutilek 10:30ean hasiko dute entrenamendu saioa eta Agorrosingo ateak zabalik egongo dira lan-saioa ikusi gura dutenendako.

PILOTA

### Mikel Goñi Eskoriatzan izango da bihar, herriko pilotarien kontra

Konakryn (Ginea) garatzen dabiltzan proiektu baterako dirua batzeko jaialdia antolatu dute biharko (19:30). Hasteko, Oier Urrutia eta Joseba Zubizarreta pilota eskolakoek lau t'erdikoa jokatuko dute. Ondoren, Mikel Goñik eta Eneko Zubizarretak Unai Iñurrategi eta Mikel Zubizarreta izango dituzte aurrean (10 euro).

MENDI LASTERKETAK

### Aloñako Igoerako ibilbide berria ezagutzeko irteera etzi

Aurtengo Aloñako Igoera berritasun askorekin dator, eta garrantzitsuenetako bat da ibilbide berria izango duela. Hala, lasterketa egunean ezustekorik ez izateko, antolatzaileek mendi irteera egingo dute domeka honetan, hilak 16 (09:00etan, Oñatiko plazan). Hainbat erritmotan joateko taldeak osatuko dituzte.

ZIKLISMOA

### Dorletako Amak talde guztiak aurkeztuko ditu zapatuan Santutegian

Aurten Dorletako Amak amateur mailan ordezkaririk izango ez badu ere –Kanpanzar Harrobiak desagertu egin delako– taldeak berdin-berdin jarraituko du ziklismoko harrobiaz lanean. Eta zapatuan Dorletako Santutegian aurkeztuko ditu talde horiek guztiak, 11:00etan hasiko duten ekitaldian.




Atleta kuadrilla, duela bi urte, lasterketa hasi eta metro gutxira. | J.A

DUATLOIA

# Zailtasun guztien gainetik, Oñatik atleta mordoa batuko ditu bihar

X.U. | ARRASATE

Oñatiko duatloi taldekoek urteroko denboraldia prestatzen baino lan handiagoa izan dute herriko lasterketa antolatzen –Euskal Herriko zirkuituko zaharrenetakoa–. Eta ez dira bakarrak izan. Galdetu, bestela, egutegitik desagertu diren lasterketei, ekonomikoki bideragarri izateari utzi diotelako, edo zirkulazio arautegia izugarri zorroztu dutelako ezinean dabiltzan antolatzaileei.

Zailtasun horien gainetik, baina, Oñatin lasterketa izango da bihar, zapatua (15:30, plazatik abiatuta). Aurten, berritasuna da lasterketaren noranzkoan errepidea itxita egongo dela. Noski, tarteka joango dira mozten bidea, eta beti egongo dira alternatibak. Gidari, pazientzia, horrenbestez.

**Iazko irabazlea, erretiratuta**

Oñatiko duatloia erreferente da bailarako atleta gehienendako, baita Euskal Herritik datozenendako ere. Iaz, baina, atleta kantabriarrak izan ziren protagonista, taldekako saria irabazteaz batera Felix Javier Martinez nagusitu zelako. Espainiako txapeldun seitan izan dena, baina, ez da txapela defendatzen egongo, erretiroa hartu du-eta. Faborito argirik ez egoteak emozioa emango dio probari.

XAKEA

# Arrasate-Arlutz taldea laugarren Ohorezko Mailan

X.U. | ARRASATE

Denboraldi ederra egin dute bailarako ordezkariek, Ohorezko Liga kategoria zorrotzean debagoiendarrak laugarren sailkatu dira-eta (talde batzuk profesionalak dira). Bailarako taldearen helburua argia zen: iaz lortutako kategoriari eustea. Hala, ezustekorik handiena Sestaoren kontra lortu zuten. Talde bizkaitarra guztiz profesionalizatuta dago, baina ibarreko laukotearen kontra 2,5-1,5 galdu zuten.

Fran Miguel, Asier Etxagibel, Aitor Alcaide, Andoni Miguel eta Juan Manual Ruiz izan dira jokatzen.



Euskal Ligako partida bat. | GOIENA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKU. BIGARREN MAILA**
Mondra-Barakaldo
Zapatua. 18:15. Mojategi.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**
Aretxabaleta-Zaramaga
Domeka. 12:00. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Real Union-Antzuola
Domeka. 15:30. Gal.
Aretxabaleta-Getariako
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Mondra-Ikasberri
Domeka. 16:30. Mojategi.

**LEHEN ERREG. IGOERA**
Aretxabaleta UDA B-Intxurre
Zapatua. 16:00. Ibarra.

**LEHEN ERREG. KOPA**
Bergara-Ikasberri
Zapatua. 17:30. Ipintza.
Eibartarrak-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Unbe.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Tolosa-Mondra
Zapatua. 16:30. Berazubi.
Aloña Mendi-Beasain
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Zumaiako
Zapatua. 15:30. Ipintza.

**GAZTEAK, IGOERA**
Pasaia-Bergara
Zapatua. 17:15. Errenteria.

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**
Arizmendi-Intxaurdi
Zapatua. 18:00. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza (atsedena).

**LEHENENGO MAILA**
Aretxabaleta (atsedena).

**HIRUGARREN MAILA**
Mondrate-Iurre taberna
Zapatua. 20:30. Iturripe.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONALA**
Ford Mugarri-Somos Eibar
Domeka. 12:00. Iturripe.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEZKO SENIORRA**
El Pilar-Soraluce BKE
Zapatua. 19:00. Gasteiz.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA**
Aloña Mendi-Urduliz
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Irungo gaztiak-Izarraitz Aloña
Domeka. 12:00. Irun.

**SENIORRAK, FEDERAZIO T.**
Arrasate-Corazonistas
Zapatua. 17:30. Iturripe.
Talleres Ondo-Bergara
Zapatua. 17:45. Legazpi.

**SASKIBAOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Construcciones Arana-MU
Zapatua. 19:30. Gasteiz.

**MAILA AUTONOMIKOA**
Natra Oñati-Mungia
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**SENIOR BIGARREN MAILA**
Soraluce Bergara-Alustiza
Gaur. 20:30. Labegaraieta.
MU A-Viento Sur
Gaur. 20:00. Musakola.

**EMAKUMEZKOAK**
Atletico San S.-Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Aiete.

**GAZTEAK, ERRENDIMENDU**
MU-A-Atletico
Zapatua. 12:30. Iturripe.

**ZIKLISMOA**

**DORLETAKO AMAREN AURKEZPENA**
Zapatuan, 11:00. Santutegian.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK**
UPN Iru.-Kanpanzar Arrasate
Zapatua. 16:00. Iruñea.

**KADETE FEDERATUA**
ORE/ART-Zarautz
Zapatua. 16:30. Mojategi...

**DUATLOIA**

**OÑATIKO XXIII. DUATLOIA**
Zapatuan, 15:30: Oñati.

**PILOTA**

**PROFESIONALEN JAIALDIA BERGARAN**
Egubakoitza. 22:00. Udal Pilotal.

**MIKEL GOÑI ETA ESKORIATZAKO PILOTARIEN ARTEKO LEHIA**
Zapatua. 19:30. Eskoriatza..

**PILOTARI FEDERATUEN PARTIDUAK**
Gaur, Bergaran, 20:00etan
Bergara-Arrasate (gazteak)

**DORLETAKO AMA SARIA**
Domekan, 10:00etan hasita bost partidu Leintz Gatzagan.

Debagoieneko
GREMIOAK

AROZTEGIAK
AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK
ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
ARRASATE
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINTZA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK
APAIN MARGO ETA APAINKETA
ARRASATE
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

# KULTURA

# 'Madama Butterfly', Pucciniren opera lirikoa, Amaia antzokira dator

▸ Irungo Luis Mariano elkarteak taularatuko du Luis Mariano musikariaren omenez

▸ Kantuak eta esanak italiaeraz diren arren, euskarazko eta gaztelerazko azpitituluak ditu

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Giacomo Puccini, (Lucca, 1858-Brusela, 1924) italiarrak konposatutako *Madama Butterfly* opera taularatuko du martxoaren 18an, martitzena, Irungo Luis Mariano elkarte lirikoak. Italiarrez kantatu eta antzeztuko duten arren, euskarazko eta gaztelerazko azpitituluak izango ditu.

Arrasateko Ozenki elkarteak Amaia antzokira ekarriko duen bosgarren opera emanaldirako sarrera ia guztiak salgai jarri orduko agortu baziren ere, bakan batzuk gelditzen dira oraindik: "Goiko ilaretako batzuk ditugu oraindik ere; horiek eskuratzeko, idatzi *ozenkielkartea@hotmail.es* helbidera", azaldu du Manu Gallardok, Ozenki elkarteko kideak.

## Amodiozko istorio gordina

Operaren kontakizunak David Belasco idazle amerikarraren ipuin bat du oinarri eta Nagasakin (Japonia) XX. mende hasieran kokatzen da: "*Madama Butterfly* gaitzizena duen Cio-Cio-San emakume japoniar ausartaren eta Pinkerton teniente amerikarraren arteko amodiozko istorioa da. Kultura japoniarrak inposatutako estatusak eta pobreziak harrapatutako emakumearen istorioa da. Operaren hasieratik ikusten da bikotekide bakoitzaren asmoak ez doazela bide beretik; neskak biziki maite du eta amerikarrarentzako, berriz, abentura bat besterik ez da; laster etxera, Amerikara, joango da, han beste emakume batekin ezkontzera. Halako baten, *Madama Butterfly*-k egia jakingo du, eta, ondorioz, bere buruaz beste egingo du" azaldu du Gallardok.

Besteak beste, *Tosca* eta *La Boheme* konposatu eta gero idatzi zuen Puccinik honakoa. "Estreinaldia frakaso handia izan zen; hori horrela, berridatzi egin zuen. Kritikei erantzunez, lehenengo ekinaldia (aktoa) moztu eta bigarrena bitan banatu zituen eta tenoreari protagonismo handiagoa eman zion *Addio fiorito asil* aria (kantua) gehituta, besteak beste. Hiru hilabete geroago berriz estreinatu zuten; orduan, sekulako arrakastarekin", azaldu du Ibon Robles musika adituak.









Irungo elkarteak 2004an estreinakoz egin zuen obra bera erakutsi dute egunotan Italian. | LUIS MARIANO ELKARTEA

## Erlaxatzeko musika egokia

Hiru ekinaldi ditu eta bi ordu irauten du. Garaiko modernismoa eta italiar musika tradizionala batzen ditu: "Koru asko ez dituen obra da. Opera intimista da, lirismo eta melodia handia duena. Erlaxatu nahi dugunean aukeratzen dugun musika horietako bat da", dio Gallardok.

> **ESANAK**
>
> **"Musikalki oso goxoa da obra; istorioa, berriz, gordina da "**
>
> MANU GALLARDO | OZENKI

Korua eta orkestrako musikariak Irungo Luis Mariano elkartekoak badira ere, tenorea izan ezik, italiarrak dira ia protagonista guztiak: "Angel Pazos tenore gipuzkoarra ibilbide handikoa da eta honako obra ere sarritan egin duena. 30 lagunek osatzen duten orkestrako musikari gehienak ere bertakoak dira, Musikene goi mailako musika eskolakoak dira gehienak, baina atzerritik etorritakoak ere badaude. Hiroko Morita (Cio-Cio-San) sarritan ikusi eta entzun dugun eskarmentu handiko oso soprano ona da; oso agudo onak ditu. Obra horretarako Moritaren ahotsa eta duen kantatzeko modua ezin hobeto datoz", dio Ozenkikoak, eta zera gaineratu du Roblesek: *Madama Butterfly*-k du pisu handiena; horren erakusle, ia obra osoan taularen gainean dagoela".

## Luis Mariano elkartearekin bat

Orain arteko emanaldiak Opera 2001 konpainiarekin lotu badituzte ere, aurten Luis Mariano musikariaren jaiotzaren mendeurrena dela-eta haren izena daraman elkarteak egin gura izan dion omenaldiarekin bat egin dute oraingoan Ozenkikoek: "2004an egin zuten lehenengo opera berriz ere taularatuko zutela jakinda, Arrasatera ekartzeko proposamena egin genien. Azken 15 egunetan arrakastaz erakutsi dute Italiako lau antzoki handitan. Martitzenean gurean izango dira eta Donostian eta Gasteizen erakutsiko dute gero", gaineratu du Arrasatekoak.

### FITXA ARTISTIKOA

**PERTSONAIAK**

**Cio-Cio-San:** (Sopranoa) Hiroko Morita

**Suzuki:** (Mezzosopranoa) Mariella Guarnera

**Pinkerton:** (Tenorea) Angel Pazos

**Sharpless:** (Baritonoa) Alberto Bianchi

**Goro:** (Tenorea) Luca Narcisi

**Zio Bonzo:** (Baxua) Carlo Tallone

**Kate:** (Sopranoa) Junkal Biurrarena

**Yamadori:** (Baritonoa) Ruben Ramada

**Commissario:** (Baritonoa) Dario Maya

**BESTELAKOAK**

**Orkestra eta korua:** Luis Mariano

**Kork zuzendaria:** François Ithurbide

**Eszena zuzendaria:** Giovani Dispenza

**Musika zuzendaria:** Aldo Salvagno

## Operaren gosegarria astean Kulturaten

Operetan ohikoa da, obra asko ulertzeko konplikatuak izaten direlako, emanaldiaren aurretik publikoaren aurrean oinarrizko azalpenak emateko aurkezpena egitea; eta horrela egin zuten astelehenean Kulturaten.

Arrasateko Ozenki elkarteko Manu Gallardok eta Ibon Robles musika adituak Pucciniren bizitzaz, Amaia antzokian erakutsiko duten obraz eta garaiko testuinguruaz jardun zuten. Ondoren, Teresa Albero sopranoak Pucciniren hainbat operatako pasarteak abestu zituen.



Teresa Albero soprano valentziarrak operako zatiak abesti zituen. | J.D.

# Debagoiena zuzenean

**Gertuko kontuak, bertatik bertara**

Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

▶ Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50




DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena“

# Willis Drummond , Bagauda eta EH Sukarra taldeek rock doinuz jantziko dute Oñatiko gaztelekua

## Antolatzaileek aditzera eman dutenez, 22:00etan hasiko da kontzertua, zehaztutakoa baino lehenago

**Z.V.D.M.** | OÑATI

Oñatiko gaztelekuan hiru taldek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, 22:00etan; hain zuzen, Willis Drummond, Bagauda eta EH Sukarra izango dira egubakoitz gaua musikaz janzteko arduradunak. Emanaldiaz gozatu gura dutenek 12 euro ordaindu beharko dituzte.

**Ordu erdi lehenago**

Aurrez zehaztutakoa baino ordu erdi lehenago hasiko da kontzertua, gaztelekutik aditzera eman dutenez. Hain zuzen ere, Willis Drummond taldeko mutilek kontzertu bikoitza jo behar dute gaur eta Oñatitik Bilbora, Deustura, joan behar dute emanaldia amaitutakoan. Hala, lapurtarrak izango dira oholtzara igotzen lehenengoak. *A ala B* azken diskoko kantuak joko ditu laukoteak; baina *Instanteak*, *Willis Drummond* eta *Anthology* lanetan jasotako abesti zaharragoak ere tartekatuko dituzte.

**Oñatiko eta Eibarko rocka**

Ez dira, baina, gaztelekuko protagonista bakarrak izango; esan bezala, hiru dira gaur gaztelekuko oholtza gainean arituko diren taldeak.

Hori horrela, Bagauda talde oñatiarrak ere rock musika egiteko aprobetxatuko du gaurko gaua eta Willlis Drummond taldekoen ostean entzun ahal izango dira haien doinuak. 2010a ezkero jotzen dute elkarrekin Jonanek, Mikelek, Anderrek eta Julenek, eta hasiera batean bertsioak egiten baldin bazituzten, kantu propioak sortzen hasi ziren poliki-poliki. Hala, gaur, 2013ko udan Amorotoko Musikorta estudioan grabatutako maketan jasotako kantuak interpretatuko dituzte.

Azkenik, EH Sukarra talde beteranoaren doinuekin agurtuko da egubakoitz gaua gaztelekuan. *Norton*-ek eta haren lagunek *Uhinak* zortzigarren diskoa kaleratu zuten iaz, eta nahiz eta urteekin EH Sukarra eraldatzen joan den, haien melodiek eta doinuek apenas izan dute bilakaerarik; horrek aurreneko unetik egiten ditu ezagun eibartarren kantuak.

Oraingo eta betiko jarraitzaileentzako aukera paregabea da gaurko kontzertua, beraz.



Willis Drummond taldea. | NAHIA GARAT

# Hitzezko tratu txarren gainean antzezlana etzi Santa Ana aretoan

## 'Hitzak' antzezlana ikusteko aukera egongo da, 19:30ean hasita; sarrerek 10 euro balio dute

**Z.V.D.M.** | OÑATI

Hika taldearen *Hitzak* antzezlana ikusteko aukera egongo da Oñatiko Santa Ana aretoan etzi, domeka, 19:30ean hasita.

**Tratu txar emozionalak**

Ez da antzerki soila Hika taldeak proposatzen duena, gogoetara eramaten duten horietakoa baizik. Familia batean zentratuta, obrak tratu txarrak ditu oinarrian; ez dira fisikoak, askotan oharkabean igarotzen diren tratu txar emozionalen gaineko antzezlana baita.

Eta publikoaren aurrera irtengo dira lau aktore: Ane Pikaza, Itziar Ituño, Klara Badiola eta Jabi Barandiaran. Gizonezko bat, hiru emakumezko eta bi pertsonaia nagusi. Hain zuzen ere, Pikazak, Ituñok eta Badiolak Mariren pertsonaia interpretatzen dute, bizitzako hainbat unetan kokatutako pasarteak kontatuta. Eta Mari, kontakizunean, menpean bizi izatetik aske izatera, iluntasunetik argitasunera igaroko da Santa Anako emanaldian.

Barandiaranen papera, ostera, Mariren senarrarena izango da da, baina ez da hitzezko tratu txarrak ematen dituen gizonezkoan zentratzen, autorearen iritziz bera ere gizarte matxistaren biktima da eta.

Sarrerak aurrez eros daitezke *http://www.barrabarra.eu* helbidean eta egunean bertan, leihatilan, 10 eurotan.

# Txapajaia egingo dute gaur Bergarako gaztetxean

**Z.V.D.M.** | BERGARA

Gaur, 22:30ean hasita, Txapajaia egingo dute Txapa Irratiaren eskutik Bergarako gaztetxean; sarrerak 4 euro balio du.

Antolatzaileek bi talde gonbidatu dituzte kartzela zaharreko oholtza gainera igo daitezen. Batetik, Koldo Soretek eta Ursula Strogek osatutako Niña Coyote eta Chica Tornado taldea igoko da gaztetxeko oholtzara, eta Surfing Kaos eta Zuloak taldeetan aritu diren artistek euren rock musika helaraziko diete ikus-entzuleei.

Eta bestetik, Sexty Sexers taldean ezagutu genuen Joseba B. Lenoir izango da gaurko bigarren gonbidatua; hain zuzen ere, *Tenpesta* diskoa aurkeztuko du Berako musikariak.



*Kameleoia* ikuskizuna. DANTZAZ

# 'Kameleoia' dantza ikuskizuna bihar Arrasaten

## Dantzaz konpainiaren azken lana Amaia antzokian ikusi ahal izango da bihar 12 euroren truke

**ZURIÑE V.D.M.** | ARRASATE

Dantzaz konpainiak *Kameleoia* ikuskizuna ekarriko du zapatuan Arrasatera eta Amaia antzokia dantza garaikidearen gune bilakatuko da, 19:30ean hasita.

**Gertukoa eta energiaz betea**

Dantzaz konpainiako zuzendari nagusia Fernando Sainz de Ugarte da eta *Kameleoia* lanari buruz egin du berba: "Donostiatik kanpo estreinatzen dugun lehen tokia izango da Arrasate. Iaz maiatzean izan zen estreinaldi handia, eta nahiz eta talde baten ekoizpen berria ezagun izateko urtebete inguru igarotzen den, ongi doala esango nuke".

*Kameleoia* ikuskizunaren berezitasunengatik galdetuta, energia eta publikoarekiko hurbiltasuna aipatzen ditu Sainz de Ugartek: "Oso garrantzitsuak dira biak. Dantza garaikidea egin gura dugun arren, edozein publikorentzako oso hurrekoa izatea da asmoa eta lortzen dugula iruditzen zait".

Musikari dagokionez, barrokotik garaikidera igarotzen direla gaineratu du. *"Few Brief Sequences* piezako musika, esaterako, oso seduktorea da eta dantzariek ere seduzitzeko dituzten tresna guztiak erabiltzen dituztela esango nuke". Bestetik, aspalditik konpainian dagoen Itzik Galili koreografoaren bi pieza ere dantzatuko dituzte bihar Amaian: "Batak gure produkzioari ematen dio izena: *Chameleon*. Aulkiekin egiten da, eta emakumearen keinuetan oinarrituta dago; umore pixka bat du, baina gai sakonetan sartzen da; emakumearen nortasunean, adibidez. Bestalde, badago dantzari guztiek parte hartzen duten pieza bat: *Things I told nobody*; kasu horretan, Mozarten eta Vivaldiren musikaz lagunduta dantzatzen dute".

**Dantza zaletasuna sustatzen**

Aurreko ikuskizuna ere ekarri zuen konpainiak Arrasatera: "Kontuan hartuta dantza emanaldietara jende gutxi bertaratu ohi dela, kasu hartan publiko kopuru polita elkartu zen. Oraingoan ere errepikatu egin gura dugu, horrela dantza komunitatea, sarea, handitzen joango ginateke-eta. Hori ere gure helburua baita, dantza-kultura sustatzea; ikastetxeekin ere aritzen gara hori lortzeko. Gaur, 10:30ean, Amaia antzokian izango gara Arrasateko LHko 4. mailako ikasleekin tailer bat garatzen".

**ESANAK**

**"Donostiatik kanpo 'Kameleoia' estreinatzen dugun lehenengo tokia izango da Arrasate"**

FERNANDO SAINZ DE UGARTE | DANTZAZ

# Alberdi: "Ohorea izan da EOSn lan egitea"

▸ Iñigo Alberdik 8 urte egin ditu zuzendari moduan

▸ Denboraldi amaierara arte jarraituko du karguan



Iñigo Alberdi, 2011n, Arrasaten. | GOIENA

**ZURIÑE V.D.M.** | BERGARA

Bergaran bizi den Iñigo Alberdi soraluzetarra 2006ko martxoa ezkero izan da Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusia, eta eguaztenean iragarri zuen kargua utziko zuela. Dena dela, denboraldi amaierara bitartean lan horretan jarraitzeko akordiora iritsi dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Iñigo Alberdi bera, "erreleboa modu planifikatuan egin dadin".

**Orkestra ezagunagoa**

"Zortzi urte egin ditut EOSko zuzendari nagusi moduan eta etapa horretan zehaztutako helburuak bete ditudala uste dut. Beste pertsona bati erreleboa emateko oso garai ona da". Hala eman du aditzera Alberdik.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoan aritu ahal izatea ohorea izan dela dio: "Eta ohorea izateaz gain, niri horrenbeste gustatzen zaidan musika munduhonetan eta, gainera, Euskal Herriko musika erakunde garrantzitsuenean lan egiteko aukera ere izan da. Pozik eta harro nago egindakoarekin eta alboan izandako talde bikainarekin".

Duela zortzi urte baino orkestra hobea eta ezagunagoa uzten duela gaineratu du: "Euskal Herri mailan oso errotuta dagoen erakundea da, eta orkestrak berak duen aktibitateagatik jende askok ezagutzen du. Etorkizuneko bidea ere hor dago. Kalitate aldetik ere EOS asko hobetu dela iruditzen zait".

Pertsonalki ere asko ikasi duela dio, eta etorkizunean kargua beteko duen pertsonak oso egoera onean dagoen orkestra aurkituko duela gaineratu. "Seguru nago bere lanarekin eta orain arte bezala taldearen elkarlanarekin EOSk hobetzen jarraituko duela".

Argi du aurrerantzean musika munduarekin harremanetan jarraituko duela, bere pasioa baita. Profesionalki, aurretik bankuan zuen lanera itzuliko da.



Clara Lago protagonista, Al-Andalus elkartean. | GOIENA

# Gaur estreinatuko dute 'Ocho apellidos vascos' filma

**Z.V.D.M.** | ARRASATE

Gaur estreinatuko da *Ocho apellidos vascos* filma. Arrasateko Al-Andalus elkartean grabatu ziren filmean agertzen diren uneetariko asko eta hainbat debagoiendarrek hartu zuten parte filmaren grabaketan, gainera. Datorren astean –martxoak 22, 23 eta 24– Arrasateko Amaia antzokian ikusteko aukera egongo da.

**Grabazioa, harrotasuna**

Filma grabatzea Al-Andalus elkartearentzat harrotasun arrazoia izan dela dio Rafa Gomez elkarteko orduko presidenteak: "Donostia aldean hasi ziren toki bat bilatzen, baina azkenean gurea aukeratu zuten. Errodajearekin zerikusia zuten lagun batzuk etorri ziren aurrena; Emilio Martínez -Lazaro zuzendaria gero, eta tokiaren egokitasuna berretsi zuen". Tokiak Andaluzia gogora ekarri arren, berriz dekoratu behar izan zuten Sevillako taberna baten itxura emateko. "Oholtza ere dekoratu zuten. Trianako zubia agertzen da. Errodajea amaituta utz zezatela eskatu eta bertan daukagu".

**Zumaian, manifestazioan**

Maiatzean egin zen casting-a elkartean, eta uztailean egin zituzten grabaketak. Baina castingean parte hartu zutenetariko hainbatek, gainera, beste toki batzuetan ere grabatu zuten.

Ibai Zangitu aretxabaletarra eta Arrasaten bizi den Ibai Trebiño gasteiztarra dira horren adibide. Biek Zumaian, manifestazio batetan grabatu zuten. "Luze joan zen baina gustura egon nintzen; filmak nola grabatzen diren jakiteko joan nintzen", dio Zangituk. Trebiñok ez zuen parte hartzeko ideiarik eta azken unean animatu zela dio, eta esperientzia errepikatzeko aukera izango balu animatuko litzatekeela gaineratu du.

Aurreztu.com
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

ETXE-AUNDI JATETXEA
Goza ezazu menu paregabe honekin Etxe-Aundi jatetxean
32€
LEHEN: 50€
DESKONTUA: % 36



YAEL ILE APAINDEGIA
Azazkal akrilikoak eta pedikura saioa, biak batean!
34€
LEHEN: 53€
DESKONTUA: %36



BERRIA GARAJEA
Olio eta filtro aldaketa egin behar duzu?
60€
LEHEN: 80€
DESKONTUA: % 25



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?
Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05
goiena

Gaizka Morales | Dantzaria

# "Pertsona bakoitzak pozik egoteko bere modua dauka, eta nirea dantza egitea da"

**JON MOÑUX** | ELGETA

Gaizka Morales elgetarrak (17 urte) batxilergoko lehenengo maila egiten dihardu Bergarako Ipintza institutuan. Eskoletatik kanpo, berriz, Eibarrera ere joan ohi da dantza garaikidea egiten duen talde batekin entrenatzera. Sei urte daramatza taldean.

**Zerk animatu zintuen Eibarko dantza taldean izena ematera?**

Niri txikitatik gustatu zait dantza egitea, baina esan beharra daukat telebistako *Fama* programa hasi zenean interesatu nintzela gehienbat dantzaren munduarekin.

**Hasiera batetik nahi zenuen dantza garaikidea egin?**

Estilo desberdinak dantzatzea zen nire helburua, eta Eibarko taldea gehienbat dantza garaikidean oinarritzen den arren, beste dantza estilo batzuk ere egiten ditugu: funka eta hip-hopa, esaterako.

**Esfortzu handia da zuretzat dantza taldean egotea?**

Ez, oraingoz ez. Azken finean, gustatzen zaidan zerbait denez, ahalik eta dantza gehien egiteko denbora bila nabil beti. Egia esanda, gehiagotan egitea gustatuko litzaidake.

**Nola sentitzen zara dantzan zaudenean?**

Dantzan nagoenean bakea sentitzen dut, lasaitasun osoa. Dantza egiten hasten naizenean pauso bat bestearen atzetik irteten zait, eta benetan gustura nagoen momentua da. Pertsona bakoitzak pozik egoteko bere modua dauka, eta nirea dantza egitea da.

**Dantza egiteko fisikoki sasoi onean egon beharra dago. Nola entrenatzen zara zure egunerokoan?**

Egia da ezin diogula gorputza zaintzeari utzi, baina nik oraindik ez dut dantza modu hain profesionalean hartzen. Horrenbestez, ez dut entrenamendu edota dieta berezirik eraman behar. Hala ere, nire gorputza eta elikadura zaintzen saiatzen naiz, noski.

***Con los pies en las nubes* musikalean hartu zenuen parte Durangoko talde batekin.**

Bai, hala da. Musikalean, dantzari izan nahi zuen neskatila baten istorioa kontatzen zen eta nik dantzari baten papera egin nuen. Oso esperientzia ona izan zen eta arrakasta handia izan zuen; lehenengo ekitaldietan sarrera guztiak saldu genituen.

**Sariren bat ere jaso duzu...**

Bai. Orain dela hiruzpalau urte, Bilboko Bilbofit lehiaketara aurkeztu nintzen Eibarko taldearekin, eta talde bezala ezer irabazi ez genuen arren, indibidualki dantzari mutil onenaren saria eman zidaten.

**Berdin baloratzen dira dantza garaikidea eta bestelako kirolak?**

Ez dut uste. Azken finean, dantza ez da futbola bezain hedatua dagoen kirol bat, adibidez, eta ez du horrenbeste jende mugitzen. Horrenbestez, ez zaio horrenbesteko garrantzirik ematen eta ez da horrenbeste diru mugitzen bertan.

**Nahiko lan egiten dute bailarako instituzioek kirol mota hau bultzatzen laguntzeko?**

Dantzarekin harremana duten ekitaldi gehiago egon beharko lirateke, eta, horretaz gain, publizitate handiagoa egin beharko lukete honi buruz; bestela, jendea ez da-eta hurbilduko.

**Normalean ere neska gehiago animatzen dira dantza taldeetan izena ematera. Zergatik izan daiteke hori?**

Txikitatik beti esan digute abestea, dantzatzea edota panpinekin jolastea nesken kontua dela, eta futbola edo saskibaloia mutilei dagokiela. Hain barneratua daukagu hori, askotan zaila egiten zaigu aldatzea. Horretaz gain, nik uste dut mutil asko ez direla ausartzen dantza egitera lotsagatik, besteek zer esango duten beldur direlako.

**Badakizu zer egingo duzun batxilergoa bukatzerakoan?**

Zer ikasiko dudan ez dakit, baina Biologia, Medikuntza, Fisioterapia edo horrelako karreraren batekin zerikusia daukan zerbait izango da, ziurrenik. Edozelan ere, nik argi daukat bizitza osoan dantza egin nahi dudala. Ahal bada, modu profesionalean, eta bestela, denbora-pasa bada ere, dantzan jarraituko dut.



Gaizka Morales dantza garaikideko pauso bat egiten San Roke osteko parkean, Elgetan.

ION MOÑUX

### MARRA AZKARREZ

**Zure herriko txokorik maiteena:** San Roke osteko parkea.

**Zaletasun bat:** Patinetean ibiltzea.

**Irakurritako azken liburua:** *Divergente.*

**Gustuko pelikula bat:** *Los juegos del hambre.*

**Kantu bat:** James Arthur-en *Impossible.*

**Erreferentziazko dantzaria:** Fernando Lazaro.

**Bizi izateko leku bat:** AEBak.

**Esperientzia gogoangarri bat:** Egindako lehen musikala.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** Urgentea da. Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai. Lau logela, bi bainugela, egongela-jangela handia eta sukaldea. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpokaldera begira. Igogailu eta berokuntzarekin. 110.000 euro. Presazkoa da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 65 99 94

**Donostia.** Hiru logela eta bi komuneko etxebizitza salgai. 8. solairua, dena kanpokaldera begira eta eguzkitsua. 300.000 euro. Garajea aukeran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 08 24 17

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Bergara erdialdean 80 metro koadro inguruko pisua ematen da errentan. Hiru logela ditu eta sukalde eta egongela handiak. Guztiz hornitua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 667 74 31 40

**Gasteiz.** Erdigunean, Domingo Beltran kalean, etxebizitza ematen da errentan. Bi logela eta bi bainugelakoa. Atikoa da eta terraza dauka. 10 urteko eraikina da, igogailu eta berokuntza indibidualarekin. 943 78 04 01 edo 696 75 76 19

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Antzuolako bikote bat gara, eta Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren bitartez etxea hartuko genuke errentan Antzuolan bertan. Etxe huts bat duen oro animatzen dut programa ezagutu eta bertan izena eman dezan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676 61 15 47

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Deitu telefono zenbaki honetara: 620 23 58 15

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 691 16 96 43

**Bergara.** Bergara erdialdean etxebizitza hartuko genuke errentan. Bikotea gara. 550 euro ordain dezakegu gehienez ere. Garajea baldin badu, 600 euro baino gutxiagotan ere hartzeko prest gaude. 675 70 06 96

**Bergara.** Logela bakarreko etxebizitza errentan hartuko lukeen mutil bergarar gazte bat naiz. Gehienez ere 300 euro ordainduko nituzke. Deitu 606 83 82 15 telefonora.

**Bergara.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 654 24 13 27

**Bergara.** Emakume bat eta bi alaba txiki gara eta etxebizitza behar dugu errentan, prezio onean. Urgentea da. Ana. 673 70 79 15

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Arrasate erdialdean, logela bat alokatzen da. 693 80 64 18

**Arrasate.** Erdialdean logela bat ematen da errentan. Prezio ekonomikoa. 678 82 69 77

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Arrasate.** Pisukide bat behar dugu Arrasaten etxea osatzeko. Lau logela eta bi komun ditu, eta oso argitsua da. Berokuntza eta leiho bikoitzak. 230 euro hilean, gastuak barne. Animatu eta etorri ikustera!. 665 71 69 10 edo 608 57 97 70

**Bergara.** Erdigunean dagoen etxebizitza bat osatzeko bi gela dauzkat libre eta jende bila nabil. Hilean 270 euro dira pertsonako, gastuak barne. 672 68 57 77

**Oñati.** Logela ematen da errentan duplex berri bat osatzeko. Erdigunetik oso gertu. Sukaldea eta egongela erabilgarri. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara. Zurradero Kalea.** Garajea eta trastelekua saltzen dira, Zurradero kalean 8an. 6x1,80=10,80 m2 eta 6x2,30=13,80 m2 dituzte. Elkarren ondoan daude eta biak batera saltzen dira. Prezioa: 17.000 euro. 687 71 42 62

### 202. EROSI

**Autokarabana gordetzeko.** tokia erosi edo alokatu egingo nuke Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Tel.: 636 64 90 94

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Txaeta kalean, ospital inguruan. 679 68 75 22

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Ibargarain, autobus geltoki parean. Apalategiak dauzka. 688 69 76 11

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Fatima. 696 81 09 32

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Mari Karmen. Deitu 617 10 33 51 zenbakira.

**Arrasate.** Emakumezko arduratsua gertu haurrrak edo nagusiak zaintzeko, orduka, edo baita etxean bertan bizi izateko ere. Aukeran, Arrasaten nahiago. Deitu 943 04 45 38 edo 652 58 41 99 telefonoetara.

**Arrasate.** Esperientziadun neska orduka edo egunez lanerako gertu: nagusi zein umeak zaintzen eta garbitasunean. Dendari ere aritutakoa naiz. 638 25 73 91 edo 943 79 80 05

**Arrasate.** Neska euskalduna bulegoak, elkarteak, tabernak eta abar garbitzeko gertu. 686 27 45 81

**Bergara, Arrasate edo Oñati.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

**Bergara.** 49 urteko emakume arduratsua edozein laneratako prest. 606 24 79 09

**Bergara.** Bergarako emakumea garbitasun lanetarako gertu. Esperientzia eta informeak dauzkat. 696 27 25 34

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Garbitasunak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Amaia. 639 04 65 11

**Bergara.** Garbitasunak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Loli. 676 67 19 07

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Bergara.** Haur hezkuntza eta psikopedagogia ikasketak dituen neska esperientziaduna umeak zaintzeko gertu. Goiz eta eguerdian edo orduka. Deitu 669 64 64 27 telefonora

